



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

ZUZENBIDE  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE DERECHO

# EMAKUMEA (DES)ERAIKITZEN: TRANS EMAKUMEAK, FEMINISMOA ETA TRANSFOBIA. GARAPENA ETA EGUNGO GATAZKA

GRADU AMAIERAKO LANA

**KRIMINOLOGIAKO GRADUA**

2022-2023 IKASTURTEA

Egilea: Noelia Chirinos Cornejo

Zuzendaria: Angel Maria Beldarrain Durandegui

Donostian, 2023ko ekainaren 16an



“Me miras y creo que es que te gusto. Al final solo es la curiosidad de saber cómo puedo verme tan Eva cuando la biología me hizo Adán”.

Agatha Brooks, 2020

## ESKERTZA

Honako lan hau posible egin duten pertsoneri eskerrak ematea ezinbestekoa iruditzen zait.

Lehenik eta behin, eskerrak eman nahiko nizkioke Angel Beldarraini, graduan irakaslea izandakoa eta Gradu Amaierako Lan honen zuzendaria den horri, sortutako zalantzak ebatzteagatik eta laguntzeko beti prest egoteagatik.

Bigarrenik, eskerrak eman behar dizkiet elkarriketarako bere burua aurkeztu duten trans neska guztiei, besteek euren ahotsak entzuteko gogoia duten horiei, huts egin ez diedalakoan nago.

Eta azkenik, eskerrak eman behar dizkiet nigan konfiantza izan duten senide eta lagun guztiei, batez ere Andrea, Ane eta Yuneri, eskainitako laguntza mugagabearengatik.

# AURKIBIDEA

EMAKUMEA (DES)ERAIKITZEN: TRANS EMAKUMEAK, FEMINISMOA ETA TRANSFOBIA. GARAPENA ETA EGUNGO GATAZKA.....	1
SARRERA.....	8
MARKO TEORIKOA.....	11
Feminismoaren jatorria eta bilakaera.....	11
Queer teoriak.....	19
Trans pertsonak historian.....	20
Transfeminismoa.....	22
TERF (trans exclusionary radical feminism).....	23
METODOLOGIA .....	26
Erabilitako tresnak .....	26
Zailtasunak eta mugak .....	28
Kronograma eta prozedura.....	28
TRANS LEGEAREN PROZESUAREN BEHAKETA .....	30
Trans Legearen aurrekariak: manifestuak.....	43
Egungo kasu polemikoak trans pertsonekin .....	53
Kongresua: eztabaidak eta mitinak .....	56
Elkarrizketak trans emakumeekin.....	68
EZTABAIDA .....	95
ONDORIOAK.....	101
BIBLIOGRAFIA.....	103
ERANSKINAK.....	111
TXOSTEN EXEKUTIBOA .....	114

LABURPENA: Aurten argitaratutako Trans Legearekin trans identitateen inguruko eztabaidak eta aurkako argumentuak zabaldu dira berriz komunikabideetan eta iritzi publikoan. Honek feminismoan ere eragina izan du, sektore feminista trans baztertua legearen aurka agertu da, trans kolektiboaren aurkako argumentuak emanez, emakume transexualen aurka, zehazki.

Gatazka aztertzekeo xedearekin jarraipen bat egin da feminismoaren garapenean eta trans kolektiboaren egoeran. Lan honen xede nagusiak dira erreakzio transfobikoak aztertzea gaur egun arte eta horiek izandako inpaktua trans emakume gazteengan.

Metodologiarako prentsa eta lau trans emakume gazteen elkarrizketak erabili dira, horregatik galderak egin zaizkie trans bezala identifikatzen diren lau parte hartzaileei. Elkarrizketatuek trans identitateak, terf kolektiboarekin bizi duten gatazka eta Trans Lege berriak sustatu ditzakeen aldaketei buruzko galderak erantzun dituzte. Jasotako emaitzek lege berriak sortutako itxaropen eta frustrazioei buruzko gogoeta egitea ahalbidetu dit.

*Hitz gakoak: transgenero, transexualitate, emakumeak, transfobia, feminismo, TERF.*

RESUMEN: Con la Ley Trans publicada este año se han reabierto los debates y los argumentos en contra de las identidades trans en los medios de comunicación y la opinión pública. Esto también ha influido en el feminismo, el sector feminista trans excluyente se ha mostrado contrario a la ley, aportando argumentos contra el colectivo trans, concretamente contra las mujeres transexuales.

Con el fin de analizar el conflicto se ha realizado un seguimiento del desarrollo del feminismo y de la situación del colectivo trans. Los principales objetivos de este trabajo son analizar las reacciones transfóbicas hasta la actualidad y su impacto en las mujeres trans jóvenes.

Para la metodología se ha utilizado prensa y cuatro entrevistas de mujeres jóvenes trans, por lo que se han realizado preguntas a las cuatro participantes que se identifican como trans. Los entrevistados han respondido a preguntas sobre las identidades trans, el conflicto que viven con el colectivo terf y los cambios que puede promover la nueva Ley Trans. Los resultados obtenidos me han permitido reflexionar sobre las expectativas y frustraciones generadas por la nueva ley.

*Palabras clave: transgénero, transexualidad, mujeres, transfobia, feminismo, TERF.*

SUMMARY: With the Trans Act published this year, discussions and arguments against trans identities have been reopened in the media and in public opinion. This has also affected feminism. The exclusionary trans feminist sector has opposed the law by providing arguments against the trans collective, specifically against transgender women.

The purpose of analysing the conflict has been to monitor the development of feminism and the situation of the trans collective. The main objectives of this work are to study transphobic reactions to this day and their impact on trans young women.

The methodological press and interviews of four trans young women have been used, so questions have been asked of the four participants identified as trans. The interviewees have answered questions about trans identities, the conflict with the terf collective and the changes that the new Trans Act may bring about. The results have allowed me to reflect on the hopes and frustrations of the new law.

*Keywords: transgender, transsexuality, women, transphobia, feminism, TERF.*

## SARRERA

Lan honen helburua feminismoa eta trans mugimendua honen barruan izan den bilakaera aztertzea izan da. Horretarako, azken urteetan sortu den gatazka aztertu dut, non alde batetik, ikuspegi biologizista bultzatzen duten talde feministak aurkitzen diren, eta bestetik, feminismo inklusibo baten bila doazen taldeak. Esan daiteke gaur egun polemika eta kontrobersia handia sortu duen gaia jorratu dudala, zeren eta Trans Legearen inguruan sortutako eztabaidan hainbat talde politiko murgildu dira, diskurtso transfobikoa partekatzen dutenak bereziki aktiboak izan direlarik.

### - Lanaren justifikazioa

Gaia hautatzearen arrazoia da azken urteetan trans mugimenduari buruz asko hitz egin dela, baina beti ere ezjakintasunaren ildotik. Trans identitateak ez dira gaurko kontua, baina LGTBI+ kolektiboaren eskubideak babestu eta bermatzeko legea argitaratzeko proiektuaren proposamenarekin batera gaia berriz pil-pilean egon da, bai telebistan, bai prentsan. Larisa Paula Zerbinoren (2023) lanean aipatzen den bezala, trans emakumeak bereziki kriminalizatuak izan dira, delitu sexuarekin eta substantzien trafikorekin. Lege berriaren argitalpenarekin batera, argumentu transfobikoak itzuli dira, bai kongresuan, bai hainbat talde feministen diskurtsoan.

### - Lanaren nondik norakoak

Aipatutako guztia dela-eta, lan honen hasierako helburua emakumeen errealitatearen garapena aztertzea izango da trans emakumeen legearen etorrera arte. Gatazka polarizatu batetan inplikaturik dauden aldeak identifikatuko ditut: alde batetik, emakume kontzeptua kolokan jarri izan dutenak eta, aldi berean, erreakzio anitz sortarazi dutenak feminismoaren barnean, transfeminismoa sortuz. Azken hauek trans emakumeak onartu egiten dituen feminismoaren korronea izanik, deskribatuko dut nola aurkako erreakzioari aurre egin behar izan dioten, mugimendu feminista erradikal bat sortu denean, trans baztertzaileak (*trans exclusionary radical feminism, terf*) trans mugimendua emakume oro eta baita ere feministen etsaia izan daitekeela



aldarrikatzen duena. Bi adar hauen arteko alderaketa egingo da, eta baztertzailleek trans emakumeengan izandako eraginaz ohartuko naiz.

Lanarekin aurrera egin ahala, beharrezkoa ikusi da beste arlo batzuetan ikerketa egitea, hala nola, arlo juridikoa, Trans Lege berria aztertuz, eta Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) legedia aztertuz. Gainera, ezinbestekoa ikusi da transfobia aztertzea modu orokorrean, eta honek feminismoarekin duen lotura, trans emakumeen estereotipoetan eta kriminalizazioan sartuz.

Lan honekin planteatzen ditudan galderak hauek dira: feminismo erradikal trans baztertzailleak zein lotura duen transfobiarekin eta transfeminismoak jarrera baketsuagoa ote duen edo ez.

#### - Egitura

Lanaren marko teorikoa bi atal nagusitan banatuta dago: lehenengoa feminismoaren bilakaera azaltzean datza, sufragismoarekin hasiz lehenengo olatuan, baina batez ere Espinian zentratuz (maila nazionalean izandako aldaketa politiko eta sozialen ondorioz, Francisco Francoren diktadurak izandako indarra bitarte, estatuan feminismoak erritmo desberdina izan du, nazioarteko mailarekin alderatuz), eta zehazki hirugarren olatura iritsita bigarren atalari hasiera emango dion neofeminismoan murgilduko da, queer teorien sorrerarekin eta feminismoaren ikuspegi erradikaletik eratorritako transfeminismo eta feminismo trans baztertzailera iritsi arte.

Bi azken hauekin (queer eta feminismo erradikala) gaurkotasuneko egoerara egokituko da haria, egungo gobernuak indarrean jarritako Trans Legearen eztabaidarekin.

Metodologiari dagokionez, trans emakumeen errealitatea aztertu nahian, online prentsa eta eta irrati kateen webguneen eragina ere kontuan izango dut. Trans emakumeen bizipenak eta pertzepzioa aztertu ahal izateko, elkarrizketa erdiegituratuak

egin zitzaizkien lau neska gazteei, 18-23 urte bitartekoak. Horretarako gidoia prestatu zen intereseko arloak jorratuz.

## MARKO TEORIKOA

### Feminismoaren jatorria eta bilakaera

- Aitizindariak: 1789- 1848

Mundu mailan feminismoaren lehenengo olatua XVIII. mende bukaeran hasi zen. Honetarako nabarmendu beharreko da aurrekarietako bat Frantzian Olympe de Gouges izanik, berarekin hasiko litzatekeela ofizialki femismoaren historia, Aguilar Barriga autoreak (2020) aipatzen duen bezala. 1789ko Gizonaren eta Herritarraren Eskubideen Deklarazioaren (*Declaración de los Derechos del Hombre y del Ciudadano*) 1. artikulua honako hau ezarri zuen: Gizakiak aske jaio eta mantentzen dira, eta eskubide berberak dituzte. Bereizketa sozialak erabilgarritasun komunean baino ezin dira oinarritu.

Deklarazioari erantzunez, 1791ean, Olympe de Gouges feminista frantsesaren Emakumearen eta Herritarraren Eskubideen Aitorpena (*La Declaración de los Derechos de la Mujer y de la Ciudadana*) lana sortu zen, emakumearen eskubideen borrokaren eta defentsaren aitizindari gisa kokatzen duena.

Emakumearen eta Herritarraren Eskubideen Aitorpenaren Hitzaurretik haratago, Aitorpenaren lehen artikuluan, Olympe de Gougesek honako hitz hauek adierazi zituen: "Emakumea aske jaiotzen da eta gizonaren berdina izaten jarraitzen du eskubideetan, eta gizarte-sariak guztien onuran baino ezin dira oinarritu". 10. artikuluan, honako hitz hauek jaso zituen: Emakumeak eskubidea du urkamendira eramana izateko eta, era berean, tribunara igotzeko, baldin eta haren adierazpenek ez badute aldatzen legeak ezarritako ordena publikoa.

Eta horiek izango ziren emakumearen eskubideen aldeko borroka oso baten hasieraren aurrekariak. Geroago, New Yorken, Seneca Falls-ko akordioan, 1848an, "Seneca Falls-en Adierazpena" edo "Sentimenduen Adierazpena" izeneko dokumentua onartu zen. Miyares-en hitzetan (1999), hirurogeita hamar emakume esanguratsu eta hogeita hamar gizonezko bildu ziren garai hartako emakumearen egoera aztertzeko. Dokumentuan, alde batetik, herritartasun zibila lortzeko beharrezko eskakizunak aurkezten dira, eta,

horretarako, "emakumearen benetako eta funtsezko zorientasuna" oztopatzen zuten lege batzuk aldatu behar ziren, eta, bestetik, ohiturak eta morala aldatu behar zituzten printzipioak.

- Lehen olatua

Mugimendu feminista noiz jaio zen zehaztea zaila den arren, esan daiteke badela momentu klabe bat Espainian, Lehenengo Mundu Gerra izan zena, Folgueran aipatzen den bezala (2022) , batez ere Espainiako testuinguruan murgilduz. Izan ere, garai honetan herrialde beligeranteetan aldaketa nabaria eman zen, Espainia neutral mantendu zen arren, gerraren ondorioek ere sakon eragin zuten herrialdean.

Herrialde beligeranteetan, emakumeek, gizonekin batera, gatazka armatuarekin zuzenean zerikusia zuten zeregin batzuetan parte hartu zuten (Armadaren mendeko zerbitzu laguntzaileetako kidegoak, etab.), baina haien ekarpenik garrantzitsuena – eta, neurri handiagoan, haien etorkizunari buruzko plangintza egingo zuena – lanpostuetan gizonak ordezkatu behar izatea izan zen.

Espainiak gerran parte hartu ez zuenez, emakumeek ez zuten hainbeste esku hartu, herrialde beligerante horietan bezala, bizitza politiko nazionalean, baina bere gain hartu behar izan zituzten gerrak ekarri zituen ondorioetako batzuk. Prezioen igoeraren ondorioz, errenta txikiak zituzten emakume askok, ezkonduak eta ezkongabeak, lan-munduan sartu behar izan zuten. Hortaz gain, gerran parte hartu zuten herrialdeek Espainiari eskatutako baliabideen produkzioerako sortutako lan-postuen ondorioz, emakume ugari lanaren merkatuan sartzen hasi ziren.

Esan behar da Espainian mugimendu sufragistak nahiko berandu piztu zirela, beste ekialdeko herrialdeekin alderatuta. Fernández Fraile autoreak (2008) hainbat faktore atxiki dakizkio atzerapen honi:

- Industria-garapen pobrea, klase ertain garrantzitsu eta aurrerakoirik ez egotea dakarrena.

- Erregimen Zaharraren ondoren inposatzen den eredu liberalaren ezaugarri nagusia ordezkartza-sistema parlamentario ahula da.

- Eliza Katolikoak duen paper garrantzitsua. Aitorpen protestantean, emakumeek mugimendu filantropiko eta sozial erlijiosoetan parte hartzen zuten; horrek administrazio- eta antolaketa-esperientzia eman zien, izaera psikologikoak indartzeaz gain – jarduera publikoak dakarren etsaigoari aurre egitea eta beren buruarengan konfiantza izatea –, haiengan instrukzioaren eta boto-eskubidearen beharra sortuz. Espainiako kasuan, Eliza klase egokituaren hezkuntzaz arduratzen zen eskusiboki, bi sexuen arteko ezberdintasunak eta emakumeak emaztearen eta amaren rolera atxikitzea indartuz.

Guzti horrekin batera, emakumeen analfabetismo-tasa altuak eta lan-merkatura sarbide txikia izateak Espainiako mugimendu feministaren garapena atzeratzen du.

Espainian 1931ko Konstituzioarekin gauzatuko da sufragio unibertsala, gizon zein emakumeentzat, lehen aldiz. Álvarez Rodríguez autoreak (2018) Espainian hainbeste garrantzia izan zuen sufragismoaren inguruan idatzi zuen.

Autorearen esanetan, 1931ko hauteskundeak egin ondoren, behin betiko emaitzen osaketak gehiago errepublikar eta zentrista duen parlamentu-ganbera erakusten du. Aukeratutako 470 diputatuetatik, bi bakarrik izan ziren emakumezkoak: Victoria Kent, Madrilen, Alderdi Erradikal Sozialista, eta Clara Campoamor, baita Madrildik ere, Alderdi Errepublikano Erradikalaren zerrendetan. Bi horien artean kokatzen da Espainiako emakumeen sufragioaren inguruko eztabaida.

Clara Campoamorren aukera argia eta irmoa da: printzipio demokratikoaren ikuspegitik defendatzen du emakumearen botoa. Izan ere, bere ustez, uste demokratiko sendoak dituen inork ezin du serioski argudiatu printzipio demokratiko hori mugatu behar denik nahiz eta jokoan dagoena demokrazia babestea izan. Gainera, paradoxa bat ere bada: diktadurak erakarri zuen emakumea, eta Errepublikak baztertu zuen. Clararen jarrera «argudio ideologikoan» oinarritzen zen: emakumea gizonaren begirune politiko bera merezi zuen herritarra zen; bozkatzeko eskubidea ukatzea jarrera antidemokratikoa zen, erregimen errepublikarraren funtsezko printzipioekin kontraesan zegoena. Hori zen, ikusi den bezala, Campoamorrek eta diputatu sozialisten gehiengoak defendatu zuten aukera. Azkenean, bozketaren egunean, Clara Campoamorren jarrera gailendu zen, eta horrekin batera, emakumeen botoa.

Bestalde, Victoria Kentek defendatzen zuen jarrera zegoen, «aukera-argudioan» oinarrituta: politikoki ez da egokia emakumeari botoa emateko eskubidea ematea, izan ere, emakumeak, ia automatikoki, alderdi kontserbadoreen alde egingo duelako, sektore katolikoek harengan duten eragina dela eta, eta horiek baliatuko lukete II. Errepublika laminatzeko. Horregatik, jarrera horren defendatzaileek eskubide hori mugatzearen edo zuzenean ukatzearen alde egiten dute. Emakumea ez zegoen oraindik prest botoa emateko eta eskubidea erabiltzeko aukera horrek emakumeen askatasunerako proiektuaren atzeratzea sustatuko luke. Kentek ez zuen botoa baldintzatu nahi, atzeratu baizik. Abagune politiko kontua zen II. Errepublikarentzat. Botoa ukatzea bidegabea iruditzen zitzaion.

- Bigarren olatua: Diskriminazioa eta berdintasuna

Elizabeth Jean Maier- Hirsch-ek (2020) egindako lanean feminismoaren jatorri eta garapena aztertu zuen. Feminismoaren bigarren olatuari dagokionez, mugimenduak indar hartu zuen berriz ere herrialde oso industrializatuetan, honek zekarren aurrerakuntzekin bat eginez, eta aldi berean ongizate sozialaren eredu kapitalista keynesiarrari erantzuna emanez.

Autore honen arabera, garai horretan sortu ziren lan- eta hezkuntza- eskaintzek emakumeentzat eta politika berria, antisorgailuen aurrerakuntza zekarrenak, jadanik ezarrita zegoen familia eredu nuklear eta heteropatriarkalean tentsioak sortarazi zituzten, baita kapitalismo industrialean ere. Hirurogeiko hamarkada hasieratik feminismoak familiaren berrantolakuntza eta lanaren zatiketa sexuala planteatzen hasi zen, honela aldarrikatuz emakumearen definizio desberdin baten beharra, bai kulturalki, bai instituzionalki, emakumea guztiz partaide politiko, sozial eta ekonomikoa izan zedin.

Bigarren olatu feministak, nazioarteko desberdintasun kultural, historiko eta estrukturalak aparte, konplexutasun handiz sakondu zuen era progresiboan bere ekarpen paradigmaticoa, herrialde bakoitzeko testuinguru eta baldintza propioei moldatuz.

Kasu orotan, garai hartako feminismoa bertako emakumeari zegokion leku soziala zalantzan jartzeaz arduratu zen, baina nazioartean zeuden desberdintasun horiei ere atxikiz. Erabilitako estrategietan ere aniztasun handia aurkeztu zen, perspektiba ontologiko eta politikoen arabera, horrela feminismoaren korrante desberdinak, hala nola, sozialista, liberala, erradikala edota kulturala nabarmendu ziren.

Soraya Gahete Muñoz-en lanean (2020) islatzen den bezala, feminismo korrante artean egin daiteken bereizketarik nagusia feminista erreformista eta feminista erradikalen artean izango litzateke. Lehenengoentzat xede nagusia zen arlo juridikoan berdintasuna lortzea gizonezkoen mailarekiko, modu horretan emakumeei egiten zitzaizkien diskriminazioari bukaera emateko, eta feminista hauei liberalak deitu zaie ere.

Bestalde, feminismo erradikala bereizten da, kide askok unibertsitatean ikasten zuten eta ezkerreko alderdietan kontaktuak zituzten. Feminista hauek emakumearen mendekotasunaren jatorria aztertzeaz gain, emakumearen askatasuna lortzeko beste proposamen batzuk aurkeztu zituzten, hala nola, oldarkotasunari bukaera ematea, baita eraso sexualei eta bortxaketei. Arazo hauen aurka gogor borrokatu zuten erakun feminista erradikal askok, ekintza hauek gizonezkoek erabili ohi duten emakumearen gaineko boterea erakusteko adibide argiak bezala ulertuz.

Autoreak Espainiari erreferentzia egiten dionean, aipagarria da feminismoak izandako garapenak erritmo erabat desberdina zeramala, XX. mendean izandako aldaketa politikoak zirela medio. Feminismoak espainiar lurraldeetan atzerakada handia izan zuen Francisco Francoren diktaduraren eraginez, ia berrogei urte iraun zuena, bertan emakumearen egoera erabat okertu zen arlo politiko, juridiko zein sozialean. Diktaduran askatasun asko kendu zitzaizkion populazioari, baina emakumeen egoeran zentratuz, legedian emakumea pertsona adingabe batekin alderagarria zen, gizon baten autoritatearen pean zeuden. Baina ideologia hau, eta bere atzetik zegoen estatus juridiko hori aldatuz joango da, batez ere 60ko hamarkadatik aurrera nabarmenduko dena, populaziorik gazteenean bereziki.

Espainiaren egoeran ere nabarmentzekoa da erakunde feministek aldarrikatzen zuten militantzia bakarra edo bikoitza, izan ere, horietako asko urteetan zehar inposatuta egon zen diktadura batetik zetozen eta Francoren heriotzarekin aldaketa politiko handiak zetozen, non beraiek ere parte hartu zuten. Testuinguru horretan sortzen dira feminismoaren korrante edo joera nagusiak: marxista eta sozialista, klaseari garrantzi gehien ematen ziotenak sexuari baino, eta feminismo materialista defendatzen zutenak, teoria marxista emakumeen egoerari aplikatuz.

Pardok, Folgueran (2022) aipatua, azaldu zuen bezala, 1953. urtean, Espainiako lehen emakume-erakundea sortu zen, Espainiako Emakume Unibertsitarioen Elkarte. Elkarte hori kultura-maila nabarmeneko emakumez osatuta dago, urteei begira. Aurrerago, 1960an, Emakumearen Soziologia Mintegia sortu zen, azterketan eta ikerketan aritzen ziren emakume intelektualek osatua.

1970eko hamarkadan, feminismoak Euskal Herrian izan zuen eragin handia nabarmendu behar da, bigarren olatura bideratutako zenbait lan interesgarri egin baitira, hala nola Beorlegui Zarranz-ena (2020).

Bertan, elkarrizketak egin zitzaizkien Euskal Herriko feminismoaren bigarren olatuko emakume ekintzaileei, eta feminismoaren eragin handia izan zuten, hala nola Leioako Emakumearen Jardunaldian edo Basauriko hamaika emakumeen mugimenduan, hamar emakumek eta mediku batek osatua, abortua gauzatu zutenak eta horregatik epaituak izan zirenak. Azken horiek abortuaren gaia jorratu zuten ideologia feministaren barruan, eta esloganak defendatu zituzten, hala nola “sexualitatea ez dela amatasuna”. Mugimenduak abortuaren aldeko eragin handia izan zuen.

María José Guerra Palmerok (2016) egindako lanean, feminismoaren bigarren olatuaren egileek egindako hainbat ekarpen kontrastatzen dira. Etapa honetan, emakumeek bizi duten errealitateaz eta bizi duten bizitza osoko desberdintasun-egoeraz jabetzen dira. Egoera horri esker, bizi zuten errealitatea gizonengan oinarrituta zegoela konturatu ziren, eta gizonengan biratzen zuela.

Garai horretako frantziar egileen artean Simone de Beauvoir nabarmentzen da, Guerra Palmerok (2016) aipatua, emakumea maila soziologikoan aztertuz. Emakumeak



emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna azaltzeko beharra ikusten zuen, emakumeen posizioa debaluatzen zuten mitoak eta beste tradizio kultural batzuk deseraikitze beharra. Bestalde, bere ekarpenik garrantzitsuenetako bat izango zena: emakumeari eta generoari buruzko hausnarketa, azken hortan dagoen faktore dikotomikoa (gizona/emakumea) nabarmendu zuen, mundua ikusterakoan erabakigarria izango zena. Horrela bere esaldi famatura iritsiz, “ez da emakumerik jaiotzen, emakume izatera iristen da”, genero berak dakarren ikaskuntza soziala adieraziz, ikuspegi biologiko batetik abiatuta.

Simone de Beauvoir-ek hasitako hausnarketa eta analisiekin generoaren definizioa kolokan jarri zuen, ondoren hainbat autore emakumeek eztabaidatuko zutena, iritzi desberdinak agerraraziz.

Feminismoa Espainian bereziki atzeratu zen, batez ere diktadura frankistaren eraginez, izan ere totalitarismo honetan sakon jo zuten emakumeen aurka, batez ere ideologia desberdina zeukaten emakumeen zapalkuntza sakona eman zelarik.

Muñoz-Encinarrek (2021) egindako ikerketa sistematikoan, iturri dokumentalak eta ahozkoak erabili zituen, baina nabarmentzekoa da, gainera, auzitegiko antropologiaren diziplina erabili zuela Extremadurako hobi komunak lurpetik ateratzeko, emakumeen gorputzetan zentratuta.

Emakumeen kolektiboaren barruan, diktadura frankistan ideologia errepublikarrarekin lotutako emakumeen aurkako indarkeria irauli zen. Horiek modu krudelean zigortzen zituzten, tortura fisikoak edo bortxaketa orokortuak eginez, exekuzioraino iritsiz, zigor psikologikoak erabiltzeaz gain, hala nola ilea harrapa ziezaieten, beren feminitatea kenduz, edo kalean paseatuz errizino-olioa hartzera behartu ondoren, zeinak efektu laxantea eragiten baitzien beren gorputzen komunismoa desagerrarazteko.

Ikerketan ikusi zenez, hainbat emakumek sexu-erasoak jasan zituzten, baita tortura fisikoak ere.

Montoya Gomez historialariak (2015) Morant Deusari eginiko elkarrizketan azaltzen da zeharo aldatu zela egoera diktadura amaitzean. Behin Francoren heriotza gertatu zenean 1975. urtean, feminismoak Espainian aurrerakada sakona izan zuen: 1978ko

Konstituzioarekin batera emakumeen eskubideak zabaldu ziren, eta geroago dibortzioa eta antikonzeptzioaren despenalizazioa indarrean sartu ziren. Hortaz gain, 70eko hamarkadan ere emakume espainiarrek eremu akademikoan ere sartu egin zuten feminismoa, eremu zientifikoan feminismoaren ikuspegitik kritikak eginez edukiaren inguruan edo zientzian bertan emakumeek izandako ikusgarritasun faltaren inguruan. Feminismoaren lan klasikoak zabaldu ziren gazteen artean, eta lehen azterketa feministak ere hasi ziren.

70eko hamarkadan Emakumearen Askatasunaren aldeko Mugimendua (Movimiento de Liberación de la Mujer) sortu zen, Blanco Garcíaren hitzetan, patriarkatuaren logikan ezarritako gizonezkoen politikatik bereizi asmoz. Orduan, mugimendu feministan bereizketa bat sumatzen da, militantzia bikoitzaren alde zeuden emakumeen artean, *politikoak* zeritzonak, eta independenteen artean, *erradikalak* deituko zirenak. Politikoak militantzian jarduten zuten alderdi politikoetan eta mugimendu feministan eta erradikalak, ezkertiarren aurka egon gabe, sexismoa kritikatzeko zuten eta emakumeen arazoa baztertzea helburu politiko orokorren aurrean.

70eko hamarkadaren bukaeran bi joera hauek feminismoaren bi norabideetan garatu ziren: berdintasunaren feminismoa eta desberdintasunaren feminismoa, gaur egungo eztabaida osatzen dutenak.

Feminismo erradikalari dagokionez, Pollmann eta Lehmannen (2022) arabera, helburua zera da, emakumeak bere sexualitate eta ugalketa-gaitasunaren kontrolaz jabetzea, zientziaren diskurtsoak ezarritako hierarkia apurtzea, horretarako erakunde ez hierarkiko eta horizontalak sortuz, eta boterea eskuratzea arlo politiko, kultural eta sozialean.

Feminismo erradikalak, lehenengo olatuan jatorria duen feminismoa kritikatzeko du, sufragismoarekin batera emakumeak sisteman bere lekua bilatzea aldarrikatzen duena, lege erreformen bidez, honela arlo kultural, sozial eta politikoan boterea eskuratzeko, aukeratzeko askatasuna izanik.

- Hirugarren olatua

XX. Mende bukaera aldera eta XXI. mendean feminismoan aldeko beste bultzada bat eman zen, jadanik bigarren olatuko politika eta ideologia feminista zaharkituta geratu ziren, Margarita Márquez Padornok (2022) bere lanean aipatu bezala, uste zelako ez zituztela barneratzen kultur-, sexu- eta ideologia aniztasuna.

Garai honetako emakumeek, autorearen hitzetan, testuinguruak bultzatuta aldatzeko beharra ikusi zuten. Izan ere, Berlineko harresiaren erotzea gertatu zen, sobietarren hondoratzea eta neoliberalismoaren etorrera gizarte ekonomikoki garatuenetan, bereziki azken honen aurrean, genero arteko desberdintasuna areagotu zen, emakumearen estereotipoetan oinarritutako berdintasun faltsu baten atzean.

Autore berdinak (2022) Rebecca Walker aipatu zuen, honek hirugarren olatuaren aldarrikapenak adierazi zituelako, non emakumearenganako diskriminazioari aurre egiteko asmoaz gain, beste helburu batzuk sartzen ziren, hala nola boterea eskuratzea arlo politikoan, aniztasun kulturala aldarrikapenetan ere sartuaz, eta gainera emakumeen rolen azpian ezarritako zapalkuntza ezagutzera eramatera. Hirugarren olatuko ezaugarri nagusietako bat da olatuaren globalizazioa, non eragina izan zuten XXI. mendeko lehenengo hamarkadan izandako aurrerapen teknologikoek.

## Queer teoriak

Aro garaikidean izanik, feminismoaren adar ezberdin eta ugari daude, egungo errealitatearen ikuspegi eta dimentsio desberdinak kritikatzeko dituztenak. Lan honek transfeminismoa eta honen aurkako jarrera erakusten duen TERF (*trans exclusionary radical feminism*) zer den azaltzen du, baina queer teoria soziologikoak azaldu behar dira transfeminismoa era egokian azaldu ahal izateko.

Cambridge hiztegian *queer* hitza “(batez ere gizon) *gay* bat” definizio nagusia da, ohar bat erantsita daramana “irain bezala erabil daiteke, baina pertsona batzuk era ez ofentsiboan erabiltzen dute, beren burua deskribatzeko”, bigarren definizioa zera da, “arraroa, ezohikoa edo espero ez zena”(itzulpena Elia itzultzaile neuronala erabiliz lortutakoa).

Ángela María Sierra Gonzalez (2008) bere lanean azaltzen duen bezala, *queer* terminoak estigmatizazioa dakar, “anormala” den horri zuzentzen zitzaiolako, kutsu negatiboarekin, desbideraketa suposatuz. 90eko hamarkadan batez ere gizon homosexualen ikusgarritasuna ekarri zuen terminoak, gizon zuriei, klase ertainei, ondo hezituei. Baina *queer* kontzeptuaren atzean ere bazeuden irudi edo forma hartan sartzen ez ziren pertsona bisexual, transexual, lesbiana, arraza beltzekoak, besteak beste.

Ángela Sierra González (2008) autorearen hitzetan, zabaldua zegoen gizon *gay* irudian sartzen ez ziren pertsona horiek mugimendu sozial eta politikoetan parte hartu zuten eta pertsona “erradikal eta antisistematzat” hartuak izan ziren, erreferentzia egiten dio autoreak Michel Foucault, “anomalia soziala” osatzen duten elementuak zirela aipatuz. Anomalia karakterizazioak “homosexual”, “heterosexual”, “gizon” edo “emakume” bezalako kategoria orokorrak baztertu egiten ditu, baina ez du hauek ezabatzeko asmoa, baizik eta kategoria berriak sartzeari, edo kategoria batean ere sartzeko beharrik ez izatea.

Oro har, esan daiteke *queer* teoriak guztiz arrakalatu dutela sistema. Jiménez Abadek (2021) beren lanean azaltzen duten bezala, gizon eta emakume arteko ezberdintasun binarioak ezabatzen saiatzen diren heinean, teoria hauek zalantzan jartzen dituzte egungo sisteman dauden kontzeptu binario asko, hala nola “gizontasuna/emetasuna”, “heterosexualitatea/homosexualitatea”. Kontzeptu hauek zentzua galduko lukete teoria hauek aplikatuz, nolabait desadostasuna suposatu izan duena hainbat autoreen artean.

## Trans pertsonak historian

Ana María Amigo-Ventureira autoreak (2019) egindako lanean, trans kolektiboaren historia azalduz, kolektiboaren bilakaera eta patologizazioari buruz aritzen da.

Autorearen hitzetan, trans identitateak ez dira ezer berria, jadanik 1960ko hamarkadan hasitako trans mugimendua baino lehenago ere existitzen ziren. 1886. urtean *Psycopathia Sexualis* liburua argitaratu zen, diagnostikorako manuala zena eta ondorengo manualek jaso zuten kategorien aurrekariak biltzen zituena, non deskribatzen ziren beste genero batean bizi nahi zuten pertsonen kasua edo beste generoko genitalekin jaio zirenak.

Ondoren, 1920ko hamarkadan, medikuntza aurrerapena eman zen lehenengo hormona tratamenduekin eta genitalen interbentzio kirurgikoekin, Harry Benjamin medikuaren eskutik, Magnus Hirschfeld psikologo eta sexologoaren laguntzaz. Garai horretan eginiko gorputz aldaketa eta tratamendurik famatuena Lili Elbe eta Dörchen Richterrenak izan ziren.

Beste kasu famatuetariko bat aipatzen du, Christine Jorgensen, Dinamarkara bidaiatu zuena eta Estatu Batuetara itzuli zenerko emakumea zen, antzezlea eta modelo bezala lan egin zuen. Kasua oso famatua egin zen mundu mailan.

Lacie Matthews autoreak, Amigo-Ventureiran (2019) aipatuta, trans mugimendu eta trabesti mugimenduaren ikusgarritasuna kokatzen du 1966 eta 1969 urteen artean.

Izan ere, 1966. urtean, trans emakumeen matxinada eman zen, sexu zerbitzuetan aritzen zirenen artean, San Franciscoko polizien tratu txarren aurka. Matxinadaren ondorioz gizarte-segurantzaren hobekuntzak izan ziren, adibidez, karneta osasun zerbitzuak jaso ahal izateko. Gainera, poliziekin tratua hobetu zen.

San Franciscoko errebolaren ondorioz, trans pertsonen osatutako erakundeak sortzen hasi ziren, hala nola Conversion Our Goal (COG), National Transexual Counseling Unit (NTCU) eta Orientazio Transexualaren Zerbitzua.

Ondoren, 1969ko ekainaren 28an, Stonewall tabernako istilua gertatu zen. Taberna LGTB kolektiboarekin erlazio estua zeukan, arraza- eta diru- bazterketarekin batera. Aipatutako egunean 2000 LGTB kide aritu ziren 400 polizien aurka eta kolektiboaren polizia-gehiegikeriaren aurkako borroka nagusienetakoa da. Istiluek egun gehiago iraun zuten, non LGTB kideek talde aktibistak sortu zituzten, bere nortasuna askatasunez adierateko tokiak bilatu asmoz. Urte bat geroago, Gay Harrotasunaren Eguna ezaguna zen martxa antolatu zen, LGTB kolektibo osoko kideek parte hartu zuten arren. Geroago, Harrotasunaren Eguna (*Pride Day*) bezala deitu zitzaion, eta hala izan da gaur egun arte.

Stonewalleko istiluen ondorioz, Marsha P. Johnson eta Silvia Riverak trans eta trabesti mugimenduaren aldeko borroka hasi zuten, kalean bizi ziren trans eta trabesti

pertsonentzako etxea aldarrikatu zuten, diskriminazioa ikusiaraztearen alde egin zuten, eta arrazaren arabera ematen zen diskriminazioaren areagotzea ikusiarazi zuten

1972an Suezian genitalen interbentzio kirurgikoa legeztatu zen, Europako lehenengoa izanik. Johnson eta Riverak egindako lana pisuzkoa izan arren, ahaztuta geratu zen eta kolektibo transexuala bazterturik geratu zen LGTB kolektiboaren barne.

1980eko hamarkadaren hasieran zatiketa eman zen LGTB kolektiboan bazterketa ematen ari zelako pertsona transgenero (kontzeptua nagusitzen da ordurako) eta transexualak, pertsona arrazalizatuekin batera.

1990eko hamarkadan LGTB kolektiboari sigla gehiago gehitzen zaizkio, beste talde batzuk gehituz, hala nola, intersexualak, queer, asexualak, bestelako orientazio eta identitateekin batera, honela LGTBIQ+ izanik.

2000ean Stop Trans Pathologization nazioarteko kanpainia hasi zen, trans identitateak despatologizatzearen alde eta aurrerapenak eman ziren trans kolektiboari zuzendutako legediaren inguruan.

## Transfeminismoa

Lehen aipatu diren kolektibo gutxiengok bildu egin ziren mugimendu sozial eta politiko berriak osatzeko, hau nabarmen ikusten da gaur egungo feminismo korrontean, batez ere transfeminismo deritzon horretan.

Transfeminismoa deritzon hori oso kontzeptu anitza da. Pablo Pérez Navarro autoreak (2019) egindako lanean islatzen den bezala, transfeminismoek genealogia posible ugari dituzte. Espainia mailan hitz eginez, esan daiteke bi joerek izan dutela eragina bertan sortutako mugimenduan, hala nola, trans identitateen despatologizazioaren aldeko mugimendua eta queer aktibismoek feminismo autonomoaren hainbat espaziotan duten eragina. Konbergentzia horren ondorioz, transfeminismoaren ezaugarri bereizgarrietako

bat subjektu bakarraren politika feministak kritikoki irekitzea izango da, gorpuztasun, genero eta posizionamendu subjektibo ugariren arteko aliantzara bideratuta. Zentzu horretan, transfeminismoak Hartutako Inmunoeskasiaren Sindromearen (HIES) krisiari erantzun aktibista emateko garaietatik *queer* politikei berez dagozkien ugaltze- eta koalizio-dinamiketan parte hartzen du.

Andrés Jiménez Abad-en hitzetan (2021), transfeminismoaz hitz egiterakoan, feminismo zabal bati egiten zaio erreferentzia, sexu maskulinoa duten eta emakume sentitzen diren pertsonen defendatzen dutena. Aldi berean esaten da ere, transfeminismoaren etorrerarekin, feminismo beraren subjektu politikotzat jotzen den “emakume” kontzeptua gaur egun nahiko zaharkituta geratzen ari dela eta baztertzailea, izan ere, ez lirateke sartu beharko ikuskera biologikoan sartzen diren pertsona guzti horiek bakarrik, baizik eta emakume sentitzen den pertsona orok lekua izan beharko luke mugimenduaren barruan.

Autore berak ere aipatu egiten du logika honen barruan sartzen den pertsonen autodeterminaziorako eskubidea, azaltzen duelarik pertsona batek sexu aldaketa baterako askatasuna izan beharko lukeela, transexualitate diagnostiko baten beharrik izan gabe ere. “Negatibismo sexual” hau feminismo tradizionalen mehatxutzat pertzibitu da, emakumeen eskubideen urraketa darrena, honek defendatzen duelako segun eta zein sexu (maskulino edo femeninoa) jaiotzen den, mundua ikusteko eta bizitzeko aukera zeharo desberdina dakarrena.

### TERF (trans exclusionary radical feminism)

Trans kolektiboa feministotik baztertzen duen feminismoaren adarraren jatorria, Fernández Chagoyaren hitzetan (2021), XX. mendeko 70. hamarkadan dago, orduan sortutako feminismo erradikal anglosaxoiaren ekarpenak direla medio.

Baita ere esaten da feminismoaren adar honek gorroto edo mespretxuzko diskurtsoa zabaltzen duela, non emakumakume kategoria “emakumeen klase soziala” bezala zehaztu

egiten den, eta aldi berean nortasun juridikoa eta inguruabar historikoei gogor heldu behar zaien, nolabait emakume izateari bakarrik dagokion zerbait balitz bezala.

Gaur egun, Rodríguez Poncek (2021) egindako ikerketan azaltzen den bezala, *terf* terminoak kutsu negatibo edo barregarria hartu du, ia irain bat izateko punturaino. Feminista hauekin sare sozialetan bromak edo *meme* delakoak erabiltzen direlarik umore satiriko eta ironiaz betea. Nahiz eta terminoa hasiera batean talde aktibista baten (feminista erradikalak edo *radfem*) deskribapen teknikorako erabili, gaur egun irain moduan erabiltzen da.

Era berean, Rodríguez Poncek analisi kritikoa erabili eta gero *terf* edo *terfa* hitzaren inguruan, ondorioztatu zuen erabilera sexista eta antifeminista erabili izan dela, eta oraindik erabiltzen dela, talde feminista baten inguruan, “kausa justu” bezala justifikatuz, talde sozial bat baztertzen duelako ikuspuntu biologikoa defendatuz.

Trans baztertzailak diren emakume feministen kopuru handi bat Z belaunaldia baino atzeragoko kideak dira. Hori islatzen da Peña Fernández eta bere kideek egindako ikerketan (2023), non azertu zuen gaur egun asko erabiltzen diren Twitter eta TikTok aplikazioetan, *terf* hitza eta haren inguruko hitzen erabilera. Ikusi zuten transfeminismoaren aldeko jarrera erakusten zela batez ere gazteengan (lau gaztetik hiruk, adina 34 urte baino beheragokoa izanik), eta bere burua *terf* bezala ikusten zuten emakumeak 35 urte edo goragokoak zirela, kopuru handiena 50 urtetik goragoko emakumeak izanik.

TERF mugimendua eta transfeminismoaren arteko eztabaidak kontraesana sortzen du. Trans emakumeen etorrera oso polemikoa izanik, feminista talde biek amankomunean duten ideologia feministan balore eta ikuspuntu kontraesankorrak dituzte modu zatikatuan. Egoera aztertuko da dilema ideologikoak kontuan harturik, Billig eta bere kideek, Ana Gálvez Mozok eta Francisco Tirado Serranok (2020) egindako lanean aipatuta, dilema ideologikoen teoria egunerokotasunarekin lotzen ditu. Dilema hauek gizabanakoen sen ona definitzen dute, elementu kontraesankorrak eta gatazkatsuak dituzte. Baina pertsona lasai bizi daiteke dilema hauekin, kontraesanetan murgilduta, bere



ekintzei zentzua ematen dizkiete. Izan ere gizakiak maiz aurre egin behar die konplexutasun moral eta ideologikoei. Kasu honetarako gai polemikoa denez, sor daitezken dilemak aztertzerakoan kontuan hartuko da teoria hau.

## METODOLOGIA

### Erabilitako tresnak

Lan honetan trans emakumeen egungo errealitatea aztertzeke asmoz, emakumeen artean bi talde nagusi desberdintzen dira: transfeminismoa eta feminista erradikal trans baztertzailak. Hortaz gain, trans pertsonen egoera juridikoaren inguruko egoera juridikoaren bilakaera aztertuko da Trans Lege berrira iritsi arte, komentatuko dena ere. Sortutako polemika eta eztabaiden eta transfobiaren analisia egin da.

Bi talde hauen arteko ideologia eta ikuspegiak aztertzeke bi metodo erabiliko dira.

Talde trans baztertzailaren ikuspegi eta argumentuak aztertzeke, online prentsa eta telebista kateen web-orrietako albisteak erabiliko dira, bertan egindako adierazpen eta eztabaidak kontuan hartuz.

Komunikabideak online aztertzea komenigarria da, erabileraren igoera orokorra eman den arren, gazteen artean aritzerakoan batez ere, izan ere Digital News Report-ek 2020 eta 2021ean egindako txostenen arabera, inkesten arabera hemezortzi eta hogeita lau urteko gazteek erabiltzen duten informazioa lortzeke bideen artean online direnak nagusitzen dira (Amoedo, 2021).

Trans emakumeen bazterketa aztertuko da bi ikuskera desberdinak erabiliz, alde batetik Kongresuan izandako eztabaiden bidez, eta bestetik, iritzi publikoa. Bi ikuskera horien argumentuak aztertu eta bilduko dira.

Bestalde, trans kolektiboaren barruan, emakume oro barnebiltzen dituen mugimendu feministaren argudioak ere aztertuko dira.

Iritzi publikoari dagokionez, sakoneko elkarrizketa erdiegituratuak egin dira, trans emakume gazteei, euren ikuspegia eta bizipenak adieraz dezaten, trans kolektiboaren sektore honetan zentratzeke asmoa dela-eta, horrela gaurkotasunean izandako inpaktu

soziala aztertzeke aproposa litzateke. Laura Díaz-Bravo eta kideek (2013) eginiko lanean, elkarrizketa datuak lortzeko tresna kualitatibo eraginkorra zela baieztatu zuten, galdetegia baino eraginkorragoa izan zitekeena, informazio osatuagoa eta mamitsuagoa lortzeko aukera ematen zuelako. Elkarrizketa erdiegituratu definitzerakoan, gidoia erabiltzea beharrezkoa zela adierazi zen, gehi subjektu bakoitzari egokitutako galderak, garrantzitsuak izan zitezkeen datuak lortzeko asmoz. Horretarako, Díaz-Bravo et al. (2013) eginiko lan berean aipatuta, Miguel Martinez-en gomendioak aipatu ziren elkarrizketa erdiegituratuta egin ahal izateko, hala nola, gaietan sailkatutako gidoia prestatzea, elkarrizketatuei helburuak azaltzea eta informazioa ematea, leku lasaiean topatzea elkarrizketatuarekin, gidoia askatasunez jarraitzea eta mozketarik ez egitea subjektuen diskurtsoan.

Jarraitutako gidoiak bost arloren inguruko galderak biltzen zituen: trantsizioa, feminismoa, transfobia, trans lege berria eta proposamenak eta etorkizunerako ikuspegia.

Trantsizio arloko galderak oinarrizko kontzeptuak definitzeko egituratuta zeuden, aldi berean subjektuek euren ikuskera adieraz zezaten, horrekin batera trantsizioaren alde soziala aztertzeke.

Feminismo arloko galderak egituratu ziren feminismo kontzeptuaren inguruko ikuspegia adierazteko, transfeminismoa eta feminismo erradikal trans baztertzailea adar bezala hartuz, bakoitzaren ideologia alderatzeko.

Transfobia arloko galderak egituratu ziren trans kolektiboak izandako inpaktu sozialaren alde negatiboa edo baztertzailea aztertzeke, subjektuen bizipenekin batera.

Trans lege berria arlo bezala sartu zen aztertzeke zer informazio eskuratu zuten subjektuek lege nazional berria eta hark sortutako polemikaren inguruan. Aldi berean horren aurrean subjektuek legearen aurrean zuten asetzea adierazteke.

Azkenik, proposamen eta etorkizunerako ikuspegiaren arloko galderak egin ziren subjektuen haien beharrak adierazteko, aurretik aipatutako arloekiko.

## Zailtasunak eta mugak

Lana osatzeko metodologia elkarrizketa erdiegituratuetan oinarritu da. Baina lana zein elkarrizketak burutzeko hainbat oztopo izan ditut:

Alde batetik, informazioa bilatzeko zailtasunak topatu ditut, dokumentu asko beste hizkuntza batean zeudelako idatzita (portugesez, adibidez), ezagutzen ez ditudanak. Bestalde informazioa eskuratzea gai zehataz honi lotutakoa zaila izan da.

Beste alde batetik, erronka garrantzitsu bat izan da elkarrizketak egiteko subjektuekin harremanetan jartzea. Neska trans askok ez dute bere trans identitatea adierazten publikoki, edo lotsa izaten dute ezezagun batengatik elkarrizketatuak izateko, eta azkenean kontaktuen bidez lortu dut beraiekin geratzea.

Izandako beste oztopo bat da elkarrizketetarako subjektuen bizilekua, guztiak euskaldunak dira jatorriz, baina geratzeko oztopoak ere izan ditugu subjektu batzuk beste herri edo hiri batzuetan bizi direlarik, elkarrizketatuetako bat beste herrialde batean bizi zen eta elkarrizketa telefonoz egin behar izan genuen.

## Kronograma eta prozedura

Urtarrila eta otsaileko lehenengo hamabostaldian gaia zehazten eta horri eman nahi nion ikuspegia zehazten aritu nintzen. Otsailean marko teorikoa egituratzen aritu nintzen, eta hau osatzeko beharrezko informazioa bilatzen ere.

Martxoan, marko teorikoarekin jarraitzen ari nintzen bitartean, metodologia prestatzeko erabil nezakeen tresna bilatzen aritu nintzen.

Apirila aldera, marko teorikoa oraindik osatzen nebilela, elkarrizketak egitea erabaki nuen, eta pentsatzen aritu nintzen zein profil zen aproposena lanerako baliagarria izango zen informazioa eskuratzeko. Apirilaren bigarren hamabostaldian elkarrizketak egiteko norbanakoak bilatzen eta kontaktuan jartzen hasi nintzen.

Maiatza hasieran elkarrizketak egin ziren eta transkripzioak egin nituen. Orduan ere metodologia prestatzen aritu nintzen eta tutoreak era progresiboan egindako zuzenketak aplikatzen egon nintzen.

	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza
Tutoretzak	X	X	X		
Gaia hautatu	X				
Bibliografia bilatu	X	X	X	X	
Marko teorikoa osatu		X	X	X	
Metodologia prestatu				X	X
Elkarrizketak					X
Zuzenketak					X

## TRANS LEGEAREN PROZESUAREN BEHAKETA

### Trans kolektiboaren status juridikoa: Trans Legerako bidea

Alejandro Hernández- Melianen ikerketan (2023) trans pertsonen eskubideen eta diskriminazioa ekiditeko saiakuntza juridikoak aztertu ziren, maila europarrean, nazionalean eta autonomikoan. Dirudenez, lehenengo hasi ziren europa mailako neurriak hartzen, hala nola Europako Kontseiluak eta Europar Batasunak, batasun barruko herrialde kideak baino. Prozesu honetan lagungarri izan da Giza Eskubideen Auzitegi Europarra.

Espania Mailan, 2007 urtea klabea dela dio autoreak, ordura arte trans pertsonen eskubideak ez zeudelako guztiz babesturik. Are gehiago, diktadura frankistan homosexualak eta trans pertsonak juridikoki babestuta ez izateaz gain, 1954an Alfer eta gaizkileen aurkako Legean (*Ley de Vagos y Maleantes*) sartu zituzten pertsona transexualak delitugile bezala.

Behin Franco hil zenean, errealitate desberdin batean murgiltzen da estatua, eta pertsona trans eta homosexualak berez babestuko lituzke 1978ko Konstituzioak. Baina trans pertsonen kasuan konplexuagoa da, eskaerak hasieran sexua eta izena erregistroan aldatzearen inguruan zeuden. Lehenengo urratsa sexua aldatzeko interbentzio kirurgikoaren despenalizazioa zen, horretarako beharrezkoa izaten zen banakoaren berresleitze oso bat egitea, orduan indarrean zeuden jarraibide medikuen bidez eta epaile batek baimena ematen baldin bazuen, horretarako segurtasun gabeko prozesu batengatik pasatzera beharturik. Baina aipatzekoa da behin lortuta ere, ez zela guztiz aitortzen sexuaren erregistroa, ondorioak izango zituena adopzioarako, ezkontzeko edota lan eskaintzetarako.

Behin 2007. urtera iritsita, martxoaren 22ko 3/2007 Legea argitaratzen denean, egoera aldatu egiten da. non trans mugimenduari atentzioa ematen zaion, genero nortasuna onartuz baimen judizial eta interbentzio kirurgiko oso baten beharrik izan

gabe. Prozesua, hortaz, sinplifikatu zuen, nahiz eta kritikak ere jaso zituen legeak, aurrerapausoa suposatu du.

2007ko Legea indarrean sartu ondoren, lege asko sortu dira LGTBI+ kolektiboaren babes eraginkorra lortzeko asmoz. Autonomia erkidego gehienek beren legedia sortu dute kolektiboaren babesa kudeatzeko eta diskriminazioa ekiditeko. Ondoren, nazio mailako lege erreformaren bat egon arren, esan daiteke 2007koa nagusia izan dela.

### Trans Lege Berria Espainian

Aurten bertan onartu eta indarrean jarri da otsailaren 28ko 4/2023 Legea, transexualen berdintasun erreal eta eraginkorrerakoa eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzekoa. Hurrengo orrialdeetan legearen aldaketa nagusiak arautzen dituzten artikulua komentatuko dira.

Lege horrek, hitzurrean esaten den bezala, transexualen eskubideak arautzeaz gain, lesbiana, gay, trans, bisexual eta intersexualen (LGTBI) eskubideak ere jasotzen ditu. Hain zuzen ere, kolektibo osoa kontuan hartuz norberak bere sexualitatea, nortasuna eta generoa askatasun osoz bizi eta adierazteko neurriak hartzeko asmoarekin sortu zen.

Legeari dagokionez, lau titulak osatzen dute: "I. Titulua botere publikoen jardunari buruzkoa da, II. Titulua trans pertsonen berdintasun benetako eta eraginkorrerako neurriak biltzen dituena, III. Titulua LGTBI kolektiboko pertsonenganako fobiaren ondoriozko bereizkeria eta indarkeria eraginkortasunez babesteari eta erreparatzeari buruzkoa, eta azken eta laugarren Titulua arau-hausteei eta zehapenei buruzkoa".

Trans eta LGTBI Legeak eztabaida handia sortarazi du, batez ere legearen oinarri nagusietako bat trans kolektiboaren despatologizazioa delako.

Izan ere, orain arte transgeneroa patologia bezala agertu ohi da adituek erabilitako manualetan. Buruko Nahasmenduen Diagnostiko eta Estatistika Eskuliburuan, (*Diagnostic and Statistical Manual of Mental Disorders*, DSM-V) psikologian

patologiaren diagnostikorako erabilitako liburuan, “genero identitatearen nahasmendua” bezala agertzen zen, baina orain “Genero- disforia” bezala sailkatuta dago, beti ere patologia kategoriatan hori mantenduz.

Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapenean (Clasificación Internacional de Enfermedades, CIE), Munduko Osasun Erakundeak patologiaren diagnostikorako manual orokorrean, 1990eko hamarkadan erabiltzen zen 10. bertsioan (CIE-10) trans pertsonak kokatzen ziren “transexualismo” kategoriaren barruan Osasun sexual eta portaera nahasmenduen sailkapenean, baina azkeneko bertsioan (CIE-11), patologia hau ezabatu da, eta orain “genero-diskordantzia” bezala koka daiteke, patologia kategoriatik kenduta, Osasun sexualaren baldintza baizik.

Hurrengo orrialdeetan 4/2023 Legea, otsailaren 28koa, komentatuko da, trans pertsonen berdintasun erreal eta eraginkorrerako eta LGTBI pertsonen eskubideen bermerako dena, aurrerapen handien suposatzen dituzten artikulatuak hartuz, zehazki trans kolektiboan zentratutik.

- Despatologizazioa

Nazioarteko erakundeek despatologizazioaren aldeko jarrera erakustea, Espainiako legedian ere eragina izan du, eta legean argi eta garbi adierazten da.

Ildo horretatik abiatuz, despatologizazioarako asmoa edo joera erakusten da lehen aipatutako betekizunak (genero- diskordantziako aurretiazko diagnostiko bat eta interbentzio kirurgikoa) ezabatzen diren heinean, Legearen 44. 3 artikuluan azaltzen den bezala:

“3. – Sexuari buruzko aipamena erregistroan zuzentzeko eskubidea gauzatzeko, ezin izango da aldeztu aurretik jaiotza-inskripzioan aipatutako sexuarekin bat ez etortzeari buruzko txosten mediko edo psikologikoa erakutsi, ezta prozedura mediko, kirurgikoa edo bestelako bidez pertsonaren gorputzaren itxura edo funtzioa aldeztu aurretik aldatu ere.”



- Legitimazioa

Hortaz gain, legitimazioari dagokionez, Legearen 43. artikulua zehazten du zeinek eska dezakeen sexuaren inguruko erregistro-aipamena:

“1. Espainiako naziotasuna duen eta hamasei urtekoa baino handiagoa den pertsona orok eska diezaioke Erregistro Zibilari, bere kabuz, sexuari buruzko erregistro-aipamena zuzentzeko.

2. Hamasei urtetik beherako eta hamalau urtetik gorako pertsonak beren kabuz aurkeztu ahal izango dute eskabidea, prozeduran beren legezko ordezkarien laguntzarekin.

Gurasoak edo legezko ordezkariak beren artean edo adingabearekin ados jartzen ez badira, defendatzaile judizial bat izendatuko da, Kode Zibilaren 235. eta 236. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.

3. Pertsona desgaituek eskatu ahal izango dute, hala denean beharrezkoak diren laguntza-neurriekin, Erregistroan sexuari buruzko aipamena zuzentzea.

4. Hamalau urtetik beherako eta hamabi urtetik gorako pertsonak baimen judiziala eskatu ahal izango dute sexuaren erregistro-aipamena aldatzeko, Borondatezko Jurisdikzioaren uztailaren 2ko 15/2015 Legearen II. tituluaren I bis kapituluaren arabera”.

Artikuluan, lehen erregistro-aipamena askatasunez aldatzeko ezartzen zen gutxieneko adina jaisten du, lehen hemezortzi urte izanik, eta orain hamasei urte. Hortaz, baimenarekin erregistro aipamena aldatzeko adina jaitsi egiten da, hamabi urte gorako gazteetatik abiatu, baimen judiziala eskatzeko aukera izanik, hamabost urteko gazteen kasuan nolabaiteko malgutasuna dago. Legeak desgaituentzat dituzten pertsonen kasuak ere barnebiltzen ditu. Aipatzekoa da adingabeen babes emateko 2. puntu aipatzen den defendatzailearen papera, gurasoen adingabearen nortasuna onartzen ez baldin badute ezarriko dena, Kode Zibilean arautzen den bezala, adingabeak (235. art) eta desgaituentzaren bat duten pertsonen (236. art) interesak defendatzeko funtzioa du.

- Sexuaren inguruko aldaketa erregistralaren efektuak

Sexuari buruzko erregistro aipamenaren efektuak ere aurreikusita daude legean, 46. artikuluan.

Lehenengo puntuan azaltzen da erregistro-aldaketa erabakitzen duen ebazpenak eragina izango duela Erregistro zibilean inskribatzen den unetik.

Bigarrenean argi adierazten da zuzenketa erregistralak pertsonaren egoera berriari dagozkion eskubideak egikaritzeko ahalbidetuko duela.

Baina aipamen berezi bat egin behar zaie hirugarren eta laugarren supostuei, non aurreikusten diren egoera arazotsu batzuei erantzuna ematen zaien:

“3. – Sexuari buruzko erregistro-aipamena zuzentzeak eta, hala badagokio, izena aldatzeak ez dute aldatuko Genero Indarkeriaren aurkako Babes Osorako Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren ondorioetarako pertsonari erregistro-aldaketa inskribatu aurretik aplikatu beharreko araubide juridikoa.

4. – Erregistroko sexu-aipamena zuzentzen duen pertsonak, sexu maskulinoetik femeninora pasatuz, emakumeen alde berariaz hartutako ekintza positiboko neurrien onuradun izan ahalko da, Emakumeen eta Gizonen berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 11. artikulua araberak, erregistro-aldaketa gauzatzen denetik sortutako egoeretarako, baina ez erregistro-zuzenketaren aurreko egoera juridikoetarako. Hala ere, erregistroko aipamena zuzentzen duen pertsonak, sexu femeninoetik maskulinora pasatuz, ekintza positiboko neurri horietatik eratorritako ondare-eskubide finkatuak gordeko ditu, eta ez da bidezkoa izango eskubide horiek itzultzea”.

Honekin arazoak sor ditzakeen egoera batzuk barneratzen ditu, hala nola, generoa kontuan hartzen dituzten egoera juridikoak, genero indarkeriaren kasuan gertatzen den bezala. Adibide bat jartzearen, gizon cis batek bere emaztea jipoitzen baldin badu urte pare batzuen epean, eta emazteak salatzea erabakitzen duenean. Orduan, burokraziaren iraupen luzeaz baliatuz, senarrak generoa aldatzeko erabakia hartuko balu estrategia

moduan bere onurarako, azkenik emakume trans bat bezala amaituz. Zer gertatutako litzateke, genero indarkeriatzat jotzeko aukera dago, ala bi emakumeen arteko izango litzateke (etxeko indarkeria)?

Legearen 46.3. artikulua arabera, nahiz eta trans emakumetzat jo, oraindik aldaketa egin baino lehenagoko egoera juridikoa mantenduko litzateke eta genero indarkeria baloratuko da.

Aldi berean, 46.4 artikuluan zehazten dira berdintasuna lortzeko baldintzak. Emakume trans aldaketarekin lortuko diren onurak aldaketa eraginkora bat lortzeko xedea dutela, baina arazotsuak izan daitezkeen egoera juridiko horietan, lehen aipatutako adibidea bezalakoak, ez dutela eraginik izango. Gizon trans izateko aldaketarekin batera, berriz, jatorrizko eskubideak mantendu egingo dira.

- Itzulgarritasuna

Badago aurreikusita dagoen beste egoera bat, arazo bat suposa dezakeena eta 47. artikulua argitzen duena. Hau da, zer gerta daitezkeen pertsonak sexua aldatzen badu erregistroan, baina gero damutzen bada hala berriz lehen zuen sexura itzultzea nahi badu.

“Sexuari buruzko erregistro-aipamenaren zuzenketa Erregistro Zibilean inskribatu eta sei hilabetera, zuzenketa hori sustatu duten pertsonak Erregistro Zibilean zuzenketa horren aurretik zegoen sexuaren erregistro-aipamena berreskuratu ahal izango dute, kapitulu honetan erregistro-zuzenketarako ezarritako prozedura berari jarraituz.

Hasierako aldaketa zuzendu ondoren, beste zuzenketa bat egin nahi bada, Borondatezko Jurisdikzioaren uztailaren 2ko 15/2015 Legearen II. tituluko I ter kapituluaren ezarritako prozedurari jarraitu beharko zaio”.

Hortaz, jatorrizko sexura itzultzeko aukera ematen da, sei hilabeteko epea pasa ondoren erregistro aldaketa eman denetik.

- Atzerritarren dokumentuen egokitzapena

50. artikulua atzerritarrei zuzentzen zaie, haiei ere ahalbidetuz emandako dokumentuen egokitzapena, beti ere adierazten badute beren herrialdeetan sexuari buruzko erregistro-aldaketa egiteko ezintasuna eta beharrezko irizpideak betetzen badituzte.

“1. Sexuaren eta, hala badagokio, jatorrizko herrialdeko izenaren erregistro-zuzenketa egiteko legezko edo egitezko ezintasuna egiaztatzen duten atzerritarrek, lege honetan aurreikusitako legitimazio-betekizunak betetzen badituzte – **Espainiako nazionalitatea izatea izan ezik** –, sexuaren aipamena zuzentzeko eta ematen zaizkien agirietan izena aldatzeko eskatu ahal izango dute horretarako eskumena duen agintaritzaren aurrean. Ondorio horietarako, agintaritza eskudunak Kanpo Arazoetako, Europar Batasuneko eta Lankidetzako Ministerioari eskatuko dio Espainiaren kanpo-ordezkaritzan eskuragarri dagoen informazioa biltzeko, jatorrizko herrialdean erregistro-zuzenketa hori egiteko legezko edo egitezko eragozpenik dagoen jakiteko. Ministerio horrek eskura duen informazioa jakinaraziko dio agintaritza eskatzaileari, gehienez ere hilabeteko epean”.

Xedapenean azaltzen den bezala, frogatu egingo da benetan jatorrizko herrialdean erregistro-aldaketa burutzeko legezko oztupoak daudela.

Baina atzerritar guztiek eska dezakete sexuaren edota izenaren erregistro-aldaketa? 50.2. artikuluan erantzuna ematen zaio galdera honi, zehaztuz administrazio publikoak arduratuko direla egoera administratibo erregularrean dauden atzerritarren dokumentuen egokitzapenaz, beren herrialdean erregistro zuzenketa eskatu dutenak.

- Adingabeen izen aldaketa erregistroan eta diskriminazioaren aurkako printzipioa

51. artikulua araber, adingabeek eskubidea dute, behin aldaketa erregistratu gauzatu denean, Administrazio publikoak zein erakunde pribatuek emateko dokumentuak bere izen berriarekin, Erregistro zibilean agertzen dena. Gainera, Administrazio publikoek errespetatu beharko dute sexua eta izena aldatu duen

adingaberi dagokion tratu egokia, diskriminazioa baztertuz. Honek ez du eragingo Erregistroan sexua aldatu duten pertsonen eskubideetan.

- Trans pertsonentzako osasun zerbitzu integrala

Despatologizazioarekin batera, beste printzipio batzuk bermatu beharko dira 56. artikuluan araututa daudenak, “ Transexualei osasun-arreta printzipio hauen arabera emango zaie: ez patologizatzea, autonomia, erabaki eta baimen informatuak, diskriminaziorik eza, laguntza integrala, kalitatea, espezializazioa, hurbiltasuna eta bereizketarik eza”; eta nabarmendu behar da ikuspegi kliniko batetik azaltzen den despatologizazioa (lehen aipatutako interbentzio kirurgiko eta diagnostikoen ezabapena), “Beti ziurtatuko da intimitatea errespetatzen dela eta ezaugarri fisikoak isilpean gordetzen direla, eta saihestu egingo dira alferrikako miaketak edo helburu diagnostikorik edo terapeutikorik ez duen esposizioa”.

- Trans ikasleen arretako eta jazarpen transfobikoaren aurkako protokoloak

Legeak aurreikusten du gaur egun gazteen artean zabaldu den eskola-jazarpena edo *bullying*-a. Homofobiaren, Bifobiaren eta Transfobiaren aurkako Andaluziako Behatokiaren arabera, 2019an, guztira, gorroto-delituen 278 kasu erregistratu ziren Espainian, aurreko urtean baino % 8,6 gehiago. Horietako asko sare sozialetan izan ziren. Hala ere, kontuan hartu behar da mota horretako delitu gehiago daudela salatzen ez direnak, beraz, ezagutzen ez direnak, eta zifra beltza osatzen dutenak.

Arazoari aurre egiteko, legeak 61. artikuluan zera arautzen du: “administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, ikasle transexualei laguntzeko eta jazarpen transfobikoari aurre egiteko protokoloak landuko dituzte, ikasle transen aurkako indarkeria- eta bazterketa-egoerak prebenitzeko, detektatzeko eta horietan esku hartzeko”.

Trans legedia Euskal Autonomía Erkidegoan (EAE)

Espainiako komunitate autonomo bakoitzak bere legedi propioa ezartzeko aukera dauka, lehen aipatutako Trans eta LGTBI pertsonen babeserako Legeaz gain, bere eremuko zehaztasun edo neurri batzuk gehitzeko eta kolektiboaren kudeaketa egokia egiteko.

Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE), aipatzekoa da 4/2012 Legea, ekainaren 28koa, transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa.

Lehenengo artikuluan aipatzen den modura, “xede da transexualei bermatzea Euskadiko herri-administrazioetatik arreta integrala eta beren beharrian mediko, psikologiko, juridiko eta bestelakoetara egokitua jasotzeko eskubidea, gainerako herritarrek jasotzen duten moduan. Gainera, babesa ematea beren askatasuna erabil dezaten, oro har, bizitza sozialeko eremuetan eta, bereziki, zerbitzu publikoetan”.

Aplikazio eremuari dagokionez, aipatzekoa da bigarren artikuluan legea aplikatzeko eskatzen diren betekizunak direla EAEn bizitzea eta transexuala izatea. Transexual kontzeptua argitzen da hurrengo artikuluan, 3/2007 Legeari erreferentzia eginez, martxoaren 15ekoa, Erregistro- zuzenketa betekizun bezala aipatuz, eta mediku edo psikologoak egindako txostena, egiaztatu beharreko puntu batzuk eduki behar dituenak:

“a) Ez duela nortasun-nahasmendurik, adierazten duen eta aitortzea nahi duen genero-identitatearen inguruko okerrik izatera eragiten dionik, eta horren aurrean erakusten duen borondatea sendoa, zalantzarik gabekoa eta iraunkorra dela.

b) Ez datozela bat sexu biologikoa eta berak sentitzen duen genero-identitatea, eta disonantzia horrek modu egonkorrean eta iraunkorrean bizi duela gutxienez sei hilabetea”.

Hala ere, lehen komentatutako Trans pertsonen eta LGTBI pertsonen berdintasun erreal eta eraginkorrerako Legeak ezartzen duen moduan, aurten jadanik ezin izango

da txosten mediku ezta psikologikorik egin transexualitatea egiaztatzeko, despatologizazioa bermatzen den heinean.

Urrats hau kontuan hartu egin zuten Euskal Autonomia Erkidegoan, aurtengo legea baino lehen, ekainaren 27ko 9/2019 Legean, transexualak genero indentitateagatik ez baztertzea eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa aldatzekoan. Bertan aldaketa bakarra egiten da, aipatutako hirugarren artikulukoa, despatologizazioan oinarrituz:

“Transexualitate-nozioak erreferentzia egiten dio egoera bati zeinean pertsona batek jaiotzean jarri zitzaion sexua ez datorren zerbait bezala sentitzen duen, eta berea dela badakien sexuarekin egokitzen ez den traba bezala bizi du jarri zitzaion sexua. Transexualitatearen beharra, beraz, modu bakarrean ezagutu daiteke: libreki adierazten duen pertsona entzunda. Eta, sexu-identitatea bezalaxe, ezin da diagnostikatu. Ez da gaixotasuna, ez desoreka, ez anomalia bat, giza aniztasunaren parte baizik.

Ondorioz, lege honen ondorioen artean azpimarratzekoa da pertsona transexualaren kontsiderazioa arautuko duela identitate sexualaren autodeterminazio librerako eskubidea sustatuaz. Eskubide hori ezingo da mugatua, murriztua, zaildua edo ezeztatua izan, beti arauak jarritz eta aplikatuz ariketa libre eta oso horren alde. Pertsona transexualak baliatu ahal izango dira lege honetan ezarritakoaz, diagnostiko edo txosten psikiatrikorik, psikologikorik edo tratamendu medikorik gabe.”

Transexualitatearen definizioa aldatu egiten da, despatologizazioa argi eta garbi adieraziz, lehen araututa zegoen txosten mediku edo psikologiaren ezabapenarekin. Hortaz gain genero autodeterminazioa onartzen da artikuluan, honek suposatzen du beste genero batekoa sentitzen den pertsonak, bertan koka dezakeela bere burua era librean. Hori dela-eta, diganostikorik gabe pertsonaren adierazpenarekin nahikoa izango litzateke, askatasunez.

Bosgarren artikuluan transfobiari aurre egiteko neurriak aurreikusten dira, pertsona transexualen elkarrekin neurriak hartzeko:

“a) Sistematikoki, politika proaktiboa diseinatu, ezarri eta ebaluatuko dute, transexualek behar dituzten laguntzei dagokienez. Politika horrek bideragarria izateko beharrezkoa dena.

b) Trebatzeko, sentsibilizatzeko eta bestelako programak garatu eta ezarriko dituzte, genero-identitatearen ondorioz sortzen diren diskriminazio-jarrereri, aurreiritziei eta estereotipo nagusiei aurre egiteko, era horretara lagunduz pertsonak elkar ezagutu dezaten, elkarrekin harremana izan dezaten eta euren burua onets dezaten.

c) Sentsibilizazio-kanpainak abiaraziko dituzte herritar guztientzat, genero-identitatearekin loturiko indarkeriaren azpian dauden aurreiritziak desagerrarazteko.

d) Trebatze- eta sentsibilizazio-programak abiaraziko dituzte generoagatik diskriminaziorik ez izateko printzipioaren inguruan, Euskadiko administrazio, organismo, sozietate eta erakunde publikoetako funtzionarioei, lan-kontratudun langileei, estatutupekoari eta pertsonal sanitarioari zuzenduak.

e) Ziurtatuko dute titulartasun publikoko nahiz pribatuko hedabideen ekoizpena eta antolamendua pluralista eta ez baztertzailerik izango dela, genero-identitatearekin zerikusia duten gaiei dagokienez.”

Laburbilduz, xedapen hauek diotenaren arabera, Administrazioak politikak, kanpianak eta programak sortu behar dituzte, trans pertsonen beharrak kontuan hartuta, diskriminazioa ekiditeko eta aurre egiteko, aurreiritzi eta estereotipoak ezabatzeko, eta gainera hedabideen ekoizpen anitz eta pluralista bilatzen da.

Herri Administrazioak helburu hauetarako trans pertsonak osatutako eta kolektiboaren eskubideak defendatzen dituzten elkarteekin lankidetzaren bermatu behar dute. Elkarte ahuei, zein arlo berean jarduten duten erakundeak akreditatuko dira: “f) *Transexualen eskubideak sustatu eta babesten dituzten elkarte, talde eta erakundeen aitortza eta kreditatzea babestuko dute.*”

Hurrengo xedapenak transexualitatearen inguruan ikerketak egiteko sustapena eta lankidetzaren ingurukoak dira:



“g) Euskadiko unibertsitateetako esparru akademiko guztietan transexualitateari buruzko prestakuntza, irakaskuntza eta ikerketa jasotzea eta sustatzea bultzatuko dute, eta lankidetzaz hitzarmenak egingo dituzte honako xede hauekin:

h) Gizartean parte hartzea eta jolas- eta kirol-arloan gehiago integratzea bultzatuko dute”.

Adierazten da transexualitatea ikertzea beharrezkoa dela, baina baita ere parte-hartze soziala sustatzearekin batera, jolas- eta kirol- arloan integratzea, kontua da ez dela azaltzen zehazki nola lor daitekeen helburu hau. Trans pertsonen ikusgarritasuna handiagotzearekin batera, polemika handia sortu da, arlo biologikoarekin lotuta. Hala nola, kirol zein froga fisikoetan trans kolektiboaren presentziak kolokan jarri ditu orain arte kirol anitzetan parte hartzeko kontuan hartu beharreko irizpideak, batez ere elite mailaz aritzerakoan trans emakumeekin.

Polemika horren adibide izan zen Renée Richards, tenis jokalaria, jadanik trantsizioko prozesu hormonalean egon arren, kromosoma-test batera egiteko behartu behar zuten *US Open* jokatu ahal izateko 1976an, azkenean hori ukatu eta salatu egin zuelarik.

Nabarmenezkoa da ere, lege bereko 6.3 artikulua, honako hau dioena: “Emakume sentitzen den pertsona orok, baldin eta hori hala dela hirugarren artikuluan xedatutakoaren arabera egiaztatzen badu, eta indarkeria matxistaren biktima bada, laguntzako baliabideetara jo ahal izango du, baldintza berdinetan”.

Artikuluak lehen komentatutako Gobernu Espainiarraren otsailaren 4/2023 Legean 46.3. artikuluan azaltzen den aurkako egoera azaltzen du. Hau da, trans emakume batek bere bikoteagatik (gizonezkoa, cis edo trans sexukoa den zehazten ez delarik) indarkeria jasaten badu, indarkeria matxistatzat joaz, laguntza jasotzeko aukera aurreikusten da.

EAEko herritar transexualen kasuan, 7. artikulua arabera, erregistro zuzenketa egiteko prozesuak irauten duen bitartean, administrazio agiri egokiak jasotzeko aukera izango dute. Etorkinei dagokienez, beren jatorrizko herrialdeko erregistro aldaketa egiten duten bitartean, administrazio-agiriak indarrekoak izango dira. Hortaz gain,

nortasun-agiri nazionala (NAN) ematerakoan, administrazioaren bidez ezaba ditzakete beren lehenagoko identifikazioa edo transexuala zenekoa, betiere pertsonaren Osakidetzako pertsona erregistratuen historial klinikoarentzako garrantzitsuak izan daitezkeen datuak izan ezik.

Osakidetzaz, Euskal Osasun Zerbitzuaz arituz, 8. artikulua araberan, trans pertsonen osasun esparruaren baitan dituzten behar zehatzez ere arduratuko da, doako prestazioen bidez, hala nola: diagnostikoak (kontuz ibili behar da, transexualitatearen patologizazioari keinua egin ez dezan), hormona-tratamenduak eta interbentzio plastiko-kirurgikoak. Artikulu berean esaten da ere barnean sartzen direla “lege hau garatzeko, gorputz-garapena pertsonak berea sentitzen duen generoaren aurka joateagatik sortzen diren arazoak konpontzeko ezartzen diren tratamenduak ere”. Dirudienez, ez da zehazten zein arazo sor daitezkeen ezta zein tratamendu eskaintzen diren.

Osasun arloan bereziki aipatzekoa da adingabe transexualen kasua, 11. artikuluan araututa dagoena:

“Transexual adingabeek erabateko eskubidea dute beren transexualitateari buruzko diagnostiko eta tratamendu mediko egokia jasotzeko, bereziki hormonon bidezko terapia. Adingabeei eman beharreko osasun-arretan aintzat hartuko da, adingabeak diren aldetik, Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legeak ezartzen duena, eta halaber, pazientearen autonomia eta informazio eta dokumentazio klinikoaren arloko eskubide eta betebeharrak arautzen dituen 2002ko azaroaren 14ko 41/2002 Oinarrizko Legean ezarritakoa”.

Nahiz eta 2019an erreforma egin zuten 14/2012ko trans pertsonen legean, 3. artikulua aldatuz transexualitatearen patologizazioa ekiditeko, oraindik artikulua honetan diagnostikoa aipatzen da, patologiarekin zantzua dena. Beste puntu polemiko bat aipatu daiteke, hau da, hormonon tratamendua arautzen da adingabeen kasuan, baina ez da zehazten zein adinean gauzatu daitezkeen, ez da berdina hamar urteko ume bati hormonak ematea edo hamaseiko bati. Hortaz, gehiago zehazteko beharra komenigarria litzateke.

Aipatzekoa da, azkenik, EAEko lege-eremuan, abenduaren 22ko 234/2015 Dekretua, transexualen dokumentazio administratiboari buruzkoa, non EAEn bizi diren atzerritar transexualeentzat arreta eskainiko dela zehazten den.

Lehenengo artikuluan arautzen den bezala: “xedea da transexualek, Erregistro Zibilean sexuari buruzko aipamena aldatzen duten arte, edo Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren etorkin transexualen kasuan, jatorrizko herrialdean erregistro-aldaketa egin ahal izan arte, eduki ahal izango duten dokumentazio administratiboa arautzea”. Hortaz, legean dokumentazioa egokitzeko prozedura burutu ahal izateko jarraibideak arautzen dira bertan, aurkeztu beharreko dokumentuekin, ebazpena eta ondorioak araututa daude.

## Trans Legearen aurrekariak: manifestuak

Trans Lege bat Espainian ezartzeko ideia aurrean, polemika handia sortu zen. Alde batetik, LGTBIQ+ kolektiboaren gehiengoak harrera positiboa egin zuen, baina jarrera negatiboa aurkeztu zuen feminismoaren sektore erradikalarengatik, trans baztertzailerak zirenak.

Trans eta LGTBI pertsonen eskubideen babeserako Legearen aurrean bi jarrera desberdin hauek erakusten duten manifestuak komentatuko dira: Trans Legearen aldeko Manifestua eta Trans Legearen Aurkako Manifestu Feminista.

- Legearen aurkako manifestua: manifestu feminista

Confluencia Movimiento Feminista taldeak 2021eko ekainaren 26an argitaratutako manifestua aztertuko da hurrengo lehenengo komenigarria izango litzateke talde honen inguruko datu batzuk jakitea.

Beren web-orrian aurkeztu egiten dute (Confluencia Movimiento Feminista, 2023): “Mugimendu Feminista modu autonomoan sortu da, Espainiako Estatuko erakunde feministen arteko ahaleginak bateratzeko, une honetan agenda feminista lortzeko indar

politiko handiagoa lortze aldera. Emakumeentzako gizarte bidezkoagoa lortzea da gure helburu bakarra. Horretan ari gara hainbat lurraldetako dozenaka talde feminista – besteak beste, Madrilgo, Valentziako, Andaluziako, Kataluniako eta Murtziako lankideekin –”.

Hortaz, talde honek estatuko autonomia-erkidego askotako elkarte feministak (erradikalak) biltzen ditu, xede amankomuna partekatzen dutenak, adierazten duten moduan: “Bat-egitearen helburu urgentea eta berehalakoa da Espainiako sistema juridikoan generoaren autoidentifikazioaren kontzeptua finkatu nahi duten arau-ekimenak eragozte. Lege-erreforma horiek atzerakoiak dira, eta funtsezkoa da geldiaraztea, borroka feministak emakume guztientzat konkistatutako sexuagatiko zapalkuntzaren aurkako eskubide espezifikoaren babesa ez galtzeko” (Confluencia Movimiento Feminista, 2023).

Argi uzten dute trans mugimenduaren oinarrian zera dagoela: norberak sentitzen duen generoa aukeratzeko eskubidea arriskutzat jotzen dutela feminista hauek, emakumearen historian izandako borrokan eragingo duelako ustetan. Dirudenez, mesfidantza hau trans emakumeetan zentratu da nagusiki, gizon cis bat emakumearen esparruan sartuko balitz bezala. Baina, zer arrisku sor daiteke emakume cis bat beste generora (bakarrik generoa, ideologia honek gogor eusten dio aldaezina den sexuaren definizio biologikoari) aldatzen bada? Ez da zuzenean zehazten edo aipatzen gizon trans-en kasua.

Gainera, nazioarteko egoerari erreferentzia egiten diote: “Duela gutxi, Erresuma Batuko Gobernuak baieztatu du ez duela legea zuzenduko, oztupoak sortzeko beren legezko sexua inolako baldintzarik gabe aldatu nahi dutenentzat. Mugarik gabeko autodeterminazioa emakumeen mugimenduak geldiarazi du Erresuma Batuan. Hemen gauza bera egingo dugu” (Confluencia movimiento Feminista, 2021).

Manifestuari dagokionez, Trans eta LGTBI kolektiboaren eskubideak defendatzeko legearen aurrean, manifestua argitaratu zuen Confluencia Movimiento Feminista federazioak, zehazki Trans legearen aurreproiektua argitaratu zenean, honi erantzuna ematen diote, argi eta garbi utziz aurka daudela, Gobernu traidore bezala deskribatuz: “gure aliatuak zirela esaten zutenak eta "historiako gobernurik feministena" direla esaten dutenak,

azken 300 urteetan zehar borrokatu den agenda feministaren aurka egungo legeak eraldatu nahian ari dira”.

Aipatzen den arazo horren errua Gobernuari botatzen diote, Berdintasun Ministeritza konplize izendatuz, feminismoaren atzerakada ekarri dutelako “emakumeon aurkako legeak sustatuz”. Baina ez dira alde batera uzten autonomia-erkidegoetako parlamentuak, beren legedia aldatzea ere aldarrikatzen dute, izan ere hauek “lege eskumenez baliatuz, atzeko ate gisa erabiliak izaten ari dira”.

Confluencia Movimiento Feministak gobernu zentralari zein autonomikoei aldarrikapena argi uzten die: “AGENDA FEMINISTA BERE OSOTASUNEAN BETETZEA ETA TRANS LEGEAK GELDIARAZI ETA INDARGABETZEA ” (Confluencia Movimiento Feminista, 2021).

Ondoren, kritika egiten zaio parlamentuan onartu zen aurreproiektuari. Hasteko, erabilitako terminologiari uko egiten zaio: “Sexua” kategoria juridikoaren ordez "genero-identitatea" kategoria ezartzen duen araudi osoa jasotzen baitu” (Confluencia Movimiento Feminista, 2021).

Hori guztiaz gain, kideen eskubideen aurka doala adierazten da, zehazki adierazaskatasunaren aurka, “emakume, ama edo alua hitzen erabilera defendatzen duten pertsonen kriminalizazioa dakar, baita izenordainen erabilera "okerragatik" ere, 150.000 eurorainoko isunak ezarriz” (Confluencia Movimiento Feminista, 2021)..

Baina esaldi hau erabat okerra da, Aurreproiektuari (2021) erreparatuz gero, “Zehapenak eta mailakatze-irizpideak” zehazten direlako 77. artikuluan, non zehazten den arau-haustearen larritasunaren arabera, ezarriko diren zehapenak, 77.3. artikulua honako hau dio: “*Arau-hauste oso larriak 10.001 eurotik 150.000 eurora bitarteko isunarekin zehatuko dira*”. Hortaz gain artikulua berean ezarri ahal diren zehapen osagarriak aipatzen dira.

Baina esan behar da lehen aipatutako esaldia ez dela, zentzu hertsian, arau-hauste larrian sartzen. Arau- haustea aurreproiektuko (2021) 76. artikuluan arautzen dira, oso larriak 76.4 artikuluan definituta daude:

“4. Hauek dira administrazioko arau-hauste oso astunak:

a) Sexu-orientazio eta -identitateagatiko, genero-adierazpenagatiko edo sexu-ezaugarriengatiko bereizkeriazko jazarpena, arau-hauste penala ez denean.

b) Pertsona batek edozein motatako kexa, erreklamazio, salaketa, demanda edo errekurtsio aurkeztearen ondorioz jasotzen duen edozein errepresalia edo tratu kaltegarri, sexu-orientazio edo -identitateagatik, genero-adierazpenagatik edo sexu-ezaugarriengatik diskriminatzea saihesteko eta berdintasun-printzipioa benetan bete dadin eskatzeko.

c) Sexu-orientazio edo -identitateagatik, genero-adierazpenagatik edo sexu-ezaugarriengatik edozein bereizkeria-mota jasan dutenei arreta edo laguntza benetan emateari uko egitea, arau-hauste penala ez denean, eta, betiere, biktima artatzeko betebeharra duenean, bere izaera edo postua dela eta.

d) Pertsonen orientazio eta identitate sexuala edo genero-adierazpena edozein modutan aldatzeko, abertsiko, bihurtzeko edo kontrabaldintzapeneko metodoak, programak edo ekintzak egitea, hedatzea edo sustatzea, haiek edo haien legezko ordezkariak emandako baimena gorabehera.

e) Pertsonak, orientazio eta identitate sexualaren, genero-adierazpenaren edo ezaugarri sexualen arabera, giza duintasun handiagoa edo txikiagoa dutela adierazten duten testu-liburuak eta material didaktikoak egitea, erabiltzea edo zabaltzea ikastetxeetan.

f) LGTBI pertsonen aurkako sexu-orientazio eta -identitateagatiko, genero-adierazpenagatiko edo sexu-ezaugarriengatiko diskriminaziora bultzatzeko helburua duten jendaurreko ikuskizunen edo jolas-jardueren deialdia egitea.

g) Irizpide edo baldintzak ezartzea, enplegua lortzeko, enpleguan irauteko, lan-baldintzak ezartzeko – kaleratzea eta ordainsaria barne –, lanbide-sustapena edo lanbide-heziketa, sexu-orientazio edo -identitateagatiko, genero-adierazpenagatiko edo sexu-ezaugarriengatiko diskriminazioa badira.

h) Jendearentzat eskuragarri dauden establezimendu, ondasun eta zerbitzuetarako sarbidea eta eskaintza ukatzea, etxebizitza barne, arau-hauste penala ez denean, ukatze hori pertsonaren orientazio eta identitate sexualagatik, genero-adierazpenagatik edo ezaugarri sexualengatik denean”.

Hortaz gain, Confluencia Movimiento Feministaren manifestuan trans araudi autonomikoaren aurka egiten dute, indargabetzea aldarrikatuz, eskaera horren arrazoia politika matxistak zabaltzeko aukeroan ezartzen dute, emakumeon eskubideak urratuz, “sexuan oinarritutako emakumeon eskubideak urratzen dira (gizonek gure espazioetara sartzeko aukera izan dezaten eta estatistikei kalte egin diezaieten)” (Confluencia Movimiento Feminista, 2021).

Araudi hauetan ere, autonomiek haurren hormonazio indiskriminatua egiten dutela adierazten dute, eta honek ondorio negatiboak izango dituela adingabeengan. Egia da, EAeko araudi autonomikoa aztertzerakoan ikusi dela ez dela zehazten hormonazioa hasteko adina, baina dirudenez, medikuen eskuetan utziko dela ondorioztatzen da.

Beste herrialde europarrek hartutako neurriak ere aipatzen da, hormonon erabilera gaitzesten dituztenak, “nahiz eta lege horiek onartu zituzten gure inguruko herrialdeak (Erresuma Batua, Suedia edo Finlandia, esaterako) atzera egiten ari diren eta pubertaroaren blokeatzaileak erabiltzea debekatzen ari diren ondorio atzeraezin eta kaltegarriak dituztelako” (Confluencia Movimiento Feminista, 2021)..

Aurten argitaratutako 4/2023 Legean ere ez da ezer esaten hormonazioaren inguruan, bakarrik erregistro- sexua aldatzeko ez dela beharrezkoa izango tratamendu batetik pasa behar izatea, ondorio positiboak izan beharko lituzkeena.

Azkenik, trans pertsonen presentzia espetxe-instalazioetan sor daitekeen egoera bat azaltzen da, “Hitz batez, salatzen dugu eta sumindu egiten gara bortxatzaileak eta hiltzaileak emakumeen espetxeetan sartzeko trans araudia erabiltzeagatik.”

Ondorioztatu daiteke erreferentzia egiten zaiela emakume trans-ei esaldi honetan.

Argitu beharra dago trans pertsonen sarrera espetxeetan edo espetxe-moduletan ez dela ezer berria, jadanik 2006. urtetik araututa dago 7/2006 Instrukzioan trans pertsonak bere generoari dagokion modulua hautatzeko eskubidea duela, eta ez da modu askean egin orain arte behintzat, prozesu bat izan da. Espetxeen Lege Organikoan (1/1979), bakarrik hartzen

zen kontuan itxura fisikoa, baina aipatutako instrukzioan irizpide berria hartzen da kontuan, genero-identitatea.

Iadanik instrukzioan esaten den bezala, trans pertsonak bere sexu ofiziala aldatu gabe ere, eskubidea aitortzen zaie modulu egokian sartzeko: “Nahitaezko balorazio mediko eta psikologikoko txostenekin eta genero-identitate psikosozialaren aitortzarekin, espetxe-ondorioetarako, sexu-identitate ofizialik ez duten transexualek beren izaerari egokitutako modulu eta barneratze-baldintzak eskuratu ahal izango dituzte”. Beraz, 2023ko legearen aurrean berriz ateratzea trans pertsonen kudeaketa espetxeetan arazo berria balitz bezala ez litzateke egokia.

Argi adierazten da ere trans emakumeen kriminalizazioa islatzen dela aztertutako esaldian, kolektibo osoa delituekin lotuz, zehazki alarma sozial handien sortzen dituztenak, sexu delitua eta bizitzaren aurkakoak.

- Legearen aldeko manifestua: LGTBI+

Bi talde trans baturik argitaratutako manifestua aztertuko da, Trans Lege nazional bat indarrean jartzeko ideia aurrean.

Kasu honetan, bi erakunde horiek Lesbianen, Gayen, Transen, Bisexualen, Intersexualen eta gehiagoren Estatu Federazioa (Federación de Lesbianas, Gays, Trans, Bisexuales, Intersexuales y demás, FELGTBI+) eta Triangelu Fundazioa dira.

Lehenengoari dagokionez, web-orriaren aurkezten den bezala “Lesbianen, Gayen, Transen, Bisexualen, Intersexualen eta Gehiagoren Estatuko Federazioa izaera laikoa, laizista, feminista, alderdikoia eta asindikalista duen Estatuko gobernu kanpoko erakundea (GKE) bat da, Espainiako lurralde osoko 57 erakunde baino gehiagoren proiektu komun batean biltzen dena eta herrialdeko aniztasun afektibo-sexualaren, familia-aniztasunaren eta genero-aniztasunaren aldeko eta Giza Inmunoeskasiaren Birusaren (GIB) eta HIESsaren aurkako borrokaren aldeko elkarte-mugimenduaren erreferente garrantzitsuena bihurtu dena” (FELGTBI+, 2023). Hogeita hamar urte daramatza elkarteak lanean, gero eta kolektibo zaugarri gehiagoren eskubideak defendatzen.



Euren xedea argi uzten dute, berdintasun bat lortzea eta eskubideak errespetatzea nagusituz, “gure misioa da giza eskubideak eta berdintasuna defendatzea eta sustatzea lesbiana, gay, trans, bisexual, intersexual eta beste sexu- eta genero-aniztasun batzuen artean (LGTBI+), bai eta haien familien artean ere bizitzaren eremu guztietan (soziala, sanitarioa, lanekoa, hezkuntzako, kulturala, etab.), arreta berezia jarriz kolektibo kalteberenetako kideei, hala nola emakumei, transei, haurrei, gazteei, nerabeei, adinekoei, GIBa duten pertsoneri, sexu-lana egiten dutenei edo migratzaile edo arrazializatuei, besteak beste. Eta eskubideen, aniztasunaren, unibertsaltasunaren eta doakotasunaren ikuspegitik egiten dugu” (FELGTBI+, 2023).

Erakundearen baloreak ere azaltzen dituzte (taldeko lana, interseksionalitatea, justizia sozialarekin konpromisua, etab.), horien artean azpimarratu behar da transfeminismoari egiten zaion aipamena: “Erakunde feminista gara, pertsona guztien berdintasuna eta eskubideak defendatzen dituen, edozein direla ere haien genero-identitatea edo - adierazpena, sexu-orientazioa, sexu-ezaugarriak, adina, jatorria, etnia, gizarte-maila, egoera serologikoa eta abar” (FELGTBI+, 2023).

Bestalde, Triángulo Fundazioa dago, eremu txikiago batean zabaltzen dena, “Triángulo Fundazioa irabazi-asmorik gabeko erakundea da, eta lesbiana, gay, bisexual edo transexualen arteko berdintasun soziala lortzea du helburu, hau da, pertsona guztiek tratua bera jasotzea, orientazio sexuala edo genero-identitatea edozein izanik ere”(Fundación Triángulo, 2019).

Elkartearen xedeari dagokionez, berdintasuna bilatzen dutela argi uzten dute, ez berezitasuna, “gure ustez, homosexualak eta transexualak ez dira besteengandik bereizten, eta, beraz, ez dugu pribilegiarik edo desberdintasunik eskatzen, baizik eta, besterik gabe, edozein gizakik dituen aukera, errespetu eta eskubide berberak”(Fundación Triángulo, 2019).

Elkarteak badu bere web-orrian ere, bere ideia nagusiak, bertan lan egiten duten kideek jarraitu eta errespetatu beharrekoak, pertsona homosexuale diskriminazioa ukatuz eta eskubideen babesaren alde eginez, baita trans pertsonen eskubideei aipamena eginez,

despatologizazioa nagusiki, “Pertsona bakoitzak sentitzen duen genero-identitatea askatasunez adierazteko eta aitortzeko eskubidea defendatzen dugu. Berariaz baztertzen dugu transexualitatea gaixotasun bat izatea, eta erakunde medikoek eta legediek erabat despatologizatzea eskatzen dugu” (Fundación Triángulo, 2019)..

Azkenik, bere helburu nagusiak eta lehentasunak laburbiltzen dituzte esaldi bakarrean: “Bakea, tolerantzia, giza eskubideak, gizarteratzea, gizabanakoen desberdintasunetikiko errespetua, sexuen arteko berdintasuneko tratua, transexualen eskubideak eta gure gizartearen lorpen sozialak defendatzen ditugu” (Fundación Triángulo, 2019).

Manifestuari dagokionez, PSOEko Berdintasun Idazkaritzak bultzatutako argumentuen aurrean manifestuan azaltzen dute beren ideia nagusiak:

Alde batetik, despatologizazioa aldarrikatzen dute, bere burua defendatuz “Trans pertsonak ez gara gaixoak, disforikoak ezta nahasiak” (FELGTBI+, Fundación Triángulo, 2021).

Genero autodeterminazioa eskubide bezala adierazten dute, “ genero autodeterminazio askea giza-eskubidea da, nortasunaren garapen askearen parte dena” (FELGTBI+, Fundación Triángulo, 2021).

Lehen aztertutako manifestuan ukatzen zaien identitatea baieztatzen dute, zalantzetarako lekuri utzi gabe, “Trans emakumeak emakumeak dira. Trans gizonak gizonak dira” (FELGTBI+, Fundación Triángulo, 2021).

Eta azkenik, trans pertsonen eskubideak giza eskubideka direla adierazten da, hauek ukaezinak izanik, “Trans pertsonen eskubideak giza eskubideak dira” (FELGTBI+, Fundación Triángulo, 2021).

Sarrera eta gero, gizarte zibilari laguntza eskatzen zaio, manifestuan sakonduz lehentasunak:

Feminista trans baztertzailerei erreferentzia eginez, transfobiako edozein forma esplizitua edo inplizitua baztertzen dutela, eta politikarien artean zein iritzi popularrean egondako

polemikari erreferentzia eginez: “gorrotoak ez du lekurik gizarte demokratiko batean, ezta eztabaidetan mozarrotzen bada ere” (FELGTBI+, Fundación Triángulo, 2021).

Trans pertsonen genero- identitatea onartzen dute, emakume zein gizon trans izan, baina baita ere sartzen dituzte genero ez-binarioa duten pertsonen identitatea, edozein kasutan zalantzrik gabeko identitateak izanik: “eta pertsona ez-bitarrak pertsona ez-bitarrak dira, ñabardurarik eta eztabaidarik gabeak” (FELGTBI+, Fundación Triángulo, 2021).

Lehen aipaturiko trans legearen aurkako manifestuan erabili den printzipio nagusi bati aurre egiten zaio manifestuan, hau da, ikuspegi biologikoa: “Pertsona guztiak jaiotzean esleitzen zaigun generoa zehazten duen gorputz sexudun batekin jaiotzen garela, baina esleipen horrek ezin duela inoiz ekarri patu saihestezina izatea gizartean eta legean” (FELGTBI+, Fundación Triángulo, 2021).

Hau da, onartu egiten da sexua jaiotzetiko zerbait dela, ez zaio uko egiten, kontrako manifestuan agertzen den bezala, biologikoa da, baina generoa azaltzen da jariakorra. Manifestuan bertan aitortzen dute ez diotela sexuari uko egiten: “pertsona batek garatzen duen identitateak ez du zertan bat etorri jaiotzean bere genitalen arabera esleitu zitzaionarekin, eta horrek ez du esan nahi sexua ukatzen denik, argudio tortizeroek eta asmo txarrekoek defendatzen duten bezala” (FELGTBI+, Fundación Triángulo, 2021).

Trans identitatea jada ez dela patologia bat gogorarazten da, eta horregatik diagnostiko baterako beharrik ez da ikusten (aurtengo legeak aurreikusten duen bezala): “Osasunaren Mundu Erakundeak 2018an onartu zuen bezala, trans identitateak ez dira gaixotasun mental bakar bat ere, eta, beraz, iraingarria da gure legeriak diagnostiko psikiatriko bat eskatzen jarraitzea, transexualek beren eskubideak baliatu ahal izan ditzaten” (FELGTBI+, Fundación Triángulo, 2021).

Gogorarazten da ere, sexua aldatzea ez dela gaurko kontua, jadanik 2007tik egin daitekeel eta ez duela arazo handirik ekarriko, orain arte gertatu ez dela kontuan harturik: “transek beren erregistro-sexua alda dezakete 3/2007 Legeaz geroztik, eta autodeterminazioa hainbat lege autonomikotan jasota dago, baina horrek ez du ekarri sortuko den arazo askorik” (FELGTBI+, Fundación Triángulo, 2021).

Kontrako manifestuan agertu den argumentazioan aipatu den norbere buruaren onurarentzako legearen erabilera desegokiari erantzuna emanez, aipatzen da Kode Zibilak legea desegoki erabiltzea saihestea aurreikusten duela eta lege honekin ez dela salbuespenik izango: “Kode Zibilaren 6.4 artikulua gure herrialdeko segurtasun juridikoa babesten du, eta saihestu egiten du lege batek hitzez hitz dioena erabiltzea beste baten espiritua urratzeko, lege-iruzur gisa ezagutzen dena” (FELGTBI+, Fundación Triángulo, 2021).

Honen adibide bezala ezkontza behartuak erabiltzen dira, jazarriak izaten direnak egiaztatzeko legea betetzen dela, eta sexua aldatzen den kasuarekin alderatzen da: “ezkontzeko gutxieneko ezkongai-aldirik ez eskatzeak ez du eragozten komenentziako ezkontzak legearen iruzurraren ondorioz pertsegitzea; generoaren autodeterminazio askea onartzeak ere ez du eragotziko legearen letra xede faltsuetarako erabiltzen saiatzen dena ikertzea eta jazartzea” (FELGTBI+, Fundación Triángulo, 2021).

Eta legea gaizki erabiltzeko probabilitatea badago ere, lege guztiekin gertatzen da, baina ez dute hori oztopo bezala ikusten legea onartzeko eta indarrean sartzeko, adibide bezala Genero Indarkeriaren aurkako Legea erabiltzen da: “Genero-indarkeriaren legea erabat salbuespenez erabili ahal izatea salaketa faltsuak aurkezteko, ezin da izan indarkeriaren biktima diren emakumeak ez babesteko argudio bat” (FELGTBI+, Fundación Triángulo, 2021).

Trans mugimendua, bereziki zaugarria bezala deskribatzen da, datu estatistikoak emanez, jasaten duen bazterketa soziala kontuan harturik eta suizidiorako joera handiagoa, legegintza-laguntza eta laguntza politikoa behar duena: “Trans pertsonen gure herrialdeko gizarte-bazterketako tasa handienetako bat dute, % 80 inguruko langabezia baitute, eta kolektibo kalteberenetako bat dira, eta, beraz, ahalik eta babes legegile eta politiko gehien behar dute. Transek cis pertsonen baino zortzi aldiz aukera gehiago dituzte beren buruaz beste egiten saiatzeko, eta frogatuta dago ehunekoak berdinak direla trans pertsonen identitatea onartzen denean” (FELGTBI+, Fundación Triángulo, 2021).

## Egungo kasu polemikoak trans pertsonekin

Trans legea aurtengo otsailaren 28an argitaratu zen, beraz, oso berria izanik ez litzateke nahiko denbora pasa beharko arazoak sortzeko (sexua aldatzeko gutxieneko epe bat pasa behar da eskatzen denetik aldaketa ematen den arte), baina jadanik azken urteetan polemika sortuta zegoen trans identitateen inguruan. Hurrengo lerroetan hainbat kasu aipatuko dira, polemika sorut izan dutenak eta Trans Legearen argitalpenarekin eztabaida berpiztu dutenak gizartean, egungo trans pertsonen egoera ulertzeko.

- Sexu aldaketa eta poliziarako oposaketak

El Confidencial egunkarian “Berdintasun sailak atea ixten dio poliziarako hautagaiari, bere burua emakumetzat jotzen duena: ez da baliagarria” tituluarekin zera azaltzen da, pil-pilean egon den berria trans emakumeen eta oposaketaren inguruan:

Torrelodoneseko (Madril) Udaltzaingoan sartzeko hautagai batek oposaketa-prozesuaren erdian jakinarazi du emakume sentitzen dela eta emakumezko hautagaietako bat izateko eskubidea duela aldarrikatuz. Udalak ez zuen egoera hori aurreikusi, eta Berdintasun Ministerioari helarazi dio gaia, nola jokatu azaltzeko. Egunkaria harremanetan jarri da Udalarekin eta Irene Montero ministroak zuzentzen duen sailarekin. Berdintasun Sailak dio hautagaiaren notario-aktak Madrilgo Erkidegoko 2016ko trans legera jotzen duela, eta ez berriki onartutako Estatuko legera (4/2023). Era berean, gaineratu dute Jaurlaritzak bultzatutako arauak epe batzuk ezartzen dituela sexua aldatzeko, eta, beraz, poliziagaiaren argudioak "ez duela balio".

- Trans pertsonak espetxeetan

Polemika handia sortarazi du argitaratu den Trans Lege berriak, ez duelako trans pertsonen espetxeko barneraketa zehazten eta beldurra zabaldu delako delitugile batek legea erabili ote dezakeen bere intereseko modulu edo espetxera sartzeko.

Honen adibide bat La voz de Galicia egunkarian aurki daiteke. “Espetxeetako ziurgabetasuna trans legea indarrean sartzean: Non sartu behar du bere burua emakumetzat duen gizon batek? Gizonezkoen edo emakumezkoen kartzela batean?” izenburuarekin agertzen da berria.

Jonathan Robainaren kasua azaltzen da, bere lehengusina mailu batekin hil zuena objektu batekin bortxatzen zuen bitartean. Akusazioan gizonezko generoarekin agertu zen eta ez zen arazorik izan, instrukzioaren momenturen batean emakumea zena esan zuen arte. Orain arte gizon edo emakumezkoen espetxe batean ote dagoen ez da ziurra, datuak babestuta daudenez, ez daude eskuragarri, baina dirudienez, azkeneko aldiz Las Palmaseko kartzel batean zegoen, gizonezkoa zena.

Baina hau ez da Trans Legeak sortutako arazoa, lehen aipatu den bezala, jadanik 2006. urtetik trans pertsonak eskubidea dute eskatzeko zein modulu edo espetxean sartu nahi duen, beraz ez da arazo berria eta ezer gutxi hitz egin da horren inguruan orain arte.

Hori bera kritikatzeko da aztertzen den albistean, Espetxeetako Administrazioako Kidegoen Elkartearen bozeramailearen hitzetan: “2006ko jarraibide bati jarraitzen diogu, gaur egungo errealitateak zaharkituta dagoena, eta zentro bakoitzak hainbat aldagai kontuan hartuta konpontzen du. Orain ez gara transexualez ari, genero-identitatearen aldaketek baizik, eraldaketa fisiologikorik gabe. Legean faltan sumatzen dugu esatea nolakoa den esparru itxiei aplikatzen zaienean, espetxe bati, esaterako.”

Agian bai komeniko litzateke zehaztasun gehiago ematea oraingo egoera juridikoa kontuan harturik, legearen erabilera desegokia ekiditeko.

Albistean ere gerta daitezkeen bi egoera arazotsu adierazten dira: “Sor daitezkeen egoerak honako hauek dira: batetik, gizontzat jotzen den emakumea, modulu maskulino batean sartzeko, prostituituko duten mafiek bultzatuta; eta, bestetik, beren gorputz-indarra inposatzeko modulu femeninoetan egon nahi duten gizonak”.

- ¿Hay niñas con pene y niños con vulva?

BBC News egunkarian agertu zen albistea, polemika handia sortarazi zuen kanpainia baten ingurukoa da.

Hau da, 2017. urtean, Euskadi, Nafarroan zein Espainiako beste zonalde batzuetan kartelak zabaldu ziren mezu honekin: “Hay niñas con pene y niños con vulva. Así de sencillo”, hau da, bazirela zakildun neskak eta aludun mutilak. Polemika handia sortu zen kanpainiaren inguruan, Chrysallis Euskal Herria trans adingabeen familien elkarteak antolatutakoa. Helburua trans umeen aurrejudizioei aurre egitea eta ezagutzera ematea zen “Gehiengoak sufritzen du gizarteak errealitate hau ez duelako ezagutzen” mezua ere zabaldu zen. Kanpainarekin bat ez zetorren alde kontserbadoretik sinadurak bildu zituzten aurka (BBC News, 2017).

Hilabete pare bat beranduago, egunkari berean beste albiste bat argitaratu zen, Hazte Oír elkarte ultrakontserbadore erlijiosoak autobus batean honako mezu hau jarri izanaren inguruan: “Los niños tienen pene. Las niñas tienen vulva. Que no te engañen”, hau da, argi erantzun zuten lehen aipatutako kanpainaren aurka zeudela, esanez neskek alua zutela eta mutilek zakila. Autobusa Madriletik ibili zen, eta geldiarazi behar izan zuten. Madrileko Udalak busa kaletik igarotzea debekatu zuen. Alderdi Sozialistako Ángeles Álvarez politikariak kanpaina salatu zuen esanez “gorroto kanpaina zela, intolerantzia oinarriturik” (BBC News, 2017).

Hilabete berean, La Razón egunkariak argitaratutako albistean agertzen den bezala, Hazte Oír elkarteak berriz autobusa atera zuen, kanpainian aldaketa pare bat eginda. Madriletik autobusa ibili zen honako mezua zuena: “Los niños tienen pene. Las niñas tienen vulva. Lo dice la biología. No al bullying”, honela lehengo mezu bera errepikatuz, baina *bullying*-a saiehesteko mezua zabalduz, eta logika biologian oinarrituz. Elkarteak adierazi zuen honela egotzi zitzaieen gorrotorako zirikatzea saihestu zitekeela (S, 2017).

Baina hau ez zen izan bukaera. La Vanguardia egunkarian aipatzen den bezala, Hazte Oír elkarteak 2022ko azaroaren 10ean beste autobus bat atera zuenartzelona kaleetatik. Autobusak Trans Legearen aurkako mezua zituen kanpoko paretetan, hala nola, “#StopLeyTrans”, “Les niñas no existen” (hizkuntza inklusiboa eta genero ez binarioari uko eginez, umeak erreferentzia bezala hartuz), “No a la mutilación infantil” (umeen mutilazioaren ukapena).

Autobusa gelditu egin zuen poliziak eta gorrotoaren sustatzea egotzi zitzaion elkarteari, trans pertsonen dignitatearen aurka zegoela argumentatuz (La Vanguardia, 2023).

## Kongresua: eztabaidak eta mitinak

- Kongresuko eztabaida Trans Legea argitaratzeko

2023ko otsailean proposatutako Trans Lege proiektua onartu zen senatuan, baina zuzenketak gehitu zitzaizkionez berriz Kongresuan atzera bota zuten eta prozesua errepikatu behar izan zen.

El País egunkariak argitaratutako “Horrela igaro da trans legearen eztabaida Senatuan, onartua eta orain Kongresura itzuliko dena” albistetik lortu izan dira Senatuan egondako eztabaidako argumentuak (El País, 2023).

Hasteko, aipatzen da Alderdi Sozialista Langile Espainiarrak (*Partido Socialista Obrero Español, PSOE*) kidea den Carmen Calvo diputatua zigortu egin duela Trans Legearen inguruko 2022ko bozketan boturako betebeharra ez egikaritzeagatik, alderdia legearen alde egonik. Egoera honen aurrean, diputatuak legearen aurreko jarrera negatiboa erakutsi du, baina azalpena ematen du “Bere botoaren zentzua azaldu zuen esanez ados dagoela «lege bat egotearekin, baina ez lege horrekin», eta ez datorrela bat «talde horiek babesteko inoiz ez dauden eskuindarren ezetzarekin»”.

Alderdi Popularraren aldetik jarrera negatiboa erakutsi da legearen aurrean, argumentu bezala trans adingabeak erabiliz, esanez hauek biktimizatzeko aukera eman dezakeela “Zentzuzkoa iruditzen zaizu adingabe batek erregistro-aldaketa bat egin ahal izatea gurasoen baimenik gabe?” Irene Monterori galdetuz, Berdintasun Ministeritzako burua dena.



Bestalde, Euskal Alderdi Jeltzaleak (EAJ) legearen alde agertu da, inklusioaren aldeko argumentua erabiliz “Lege horrek ez du kentzen, batzen du, eta ez du zatitzen”. Hortaz gain, Maria Dolores Etxano senadoreak legearen aurka posizionatu den feminismoaren sektoreari erantzuna ematen dio, bere ikuspuntua adieraziz “Ni ez naiz emakume ezabatua sentitzen. Militatzen dudan feminismoak eta ezagutzen dudan trans mugimenduak elkarrekin lan egin dute elkarriketarako tradizio luzearekin, eta ziur nago horrela izaten jarraituko duela”.

Geroa Bai alderdiak trantsizio prozesurako eskaera egin du zuzenketa moduan, hala nola, pertsona trantsizioan erabakiak hartzeko lagunduko duen espezialiste taldea egotea, beti ere “estigmatizatu gabe”. Koldo Martínez Urionabarrenetxea senadoreak gaitzetsi du zuzenketa hori onartua ez izana, zalanzen jartzen duena bere botua alde egotea, “Baietz bozkatu nahi dut, baina trantsizioa inolako bermerik gabe hasi nahi dutela uste duten adingabeen auziak zalantza asko sortzen dizkit”.

Vox alderditik bazterketa osoa aurkeztu da, zientziaren aurkakoa delako argumentua erabiliz “lege honek kalteak eragingo ditu, batzuk itzulezinak; lege faltsua da, gezurtia, biologiak axola ez duela dioen gezurra transmititzen duelako. Alderdi larriena da, biologia alde batera uzten duena” esan du Yolanda Merelo senadoreak.

Alderdi Sozialistaren aldetik gaitzetsi egin da Alderdi Popularrak izandako jarrera, herritar eskubideen aurkakoa delakoan: “PPko jaunak, denboraren tunelean harrapatuta bizi zarete; hiritarrentzat eskubide gehiago egotearen aurka zaudete beti... dibortzioaren legera jo dezakegu... Ba al dakizue nork egin zuen kontra? Talde popularra, Abortuaren Legearen aurka dagoena; edo Berdintasunezko Ezkontzaren Legearen aurka dagoena. Aditu bat ekarri zuten homosexualak gaixorik zeudela esateko. Hori egin zuen PPk. PPk, orain eskuin muturreko anaiatxoak atera zaionak, LGTBiren eta Transen aurka bozkatu du, hori da eskuina”.

Hortaz gain gaitzestu du trans kolektiboa patologizazioarekin estu lotuz, Vox alderdiak ere defendatzen duena: “Ikusiko duzue gobernatzen duzuenean, asko geratzen zaizuela aulkian, zuek ez duzuela ezer indargabetzen. Eta duela astebete, Voxen betoaren

alde bozkatu zenuten, gaur ez duzuela bozkatu nahi testu batek esaten duenean ingeniari-tza soziala dagoela adieraziz, transekin parekatzen direlako nahasmendu psikologikoak dituzten pertsonak edo doktrinamendu sexual identitarioa dagoela...”.

Alderdi Popularraren aldetik, Jaime Miguel de los Santosek Trans Legearen aurkako jarrera erakutsi du, “uholde aurreko Espainia” irudikatzen duelakoan. Gainera, legeak emakumeek lortutako berdintasunaren aldeko onura eta eskubideak urratzeko arriskua dagoela aipatu du.

- Isabel Díaz Ayuso eta Trans Legea

Madriko eskualdeko presidentea, Isabel Díaz Ayuso, Alderdi Popularreko burua den hori, indar berri den Trans Legearen aurkako jarrera erakutsi du, El Diario egunkariaren albistean agertzen den bezala, “Ayusok trans legea gaitzetsi du: ‘Genero autodeterminazioaren bidez Enriqueta López eta Enriqueta Ossorio izan ditzaket’” izeneko albistean (Santos-Olmo, 2023).

Aurten argitaratu den beste lege bat kritikatu nahian, Emakumeen eta Gizonen Ordezkaritza Paritarioari buruzko Lege Organikoa, Trans Legea erabili du burla moduan.

Lege honen xedea zera da, arlo politikoan, administratiboan zein enpresa-eremuan berdintasuna lortzeko neurri egokiak lortzea.

Isabel Díaz Ayusok (PP), egunkarian adierazten den bezala, legeari buruzko iritzia eman zuen ez zuela beharrik ikusten legearen argitalpenerako, adieraziz “Beharrezkoa bada, bihar genero-autodeterminazioaren bidez nire presidenteordearekin joan gaitezke, nire presidenteorde (emakume) berriarekin, nire sailburu berriarekin. Enriqueta López eta Enriqueta Ossorio izango ditugu, eta, agian, horrela hobeto kudeatuko edo konponduko dugu madrildarren bizitza”.

Esandako burlaren atzean dagoen mezua desberdindu daiteke alde batetik, sexua aldatzea erabaki erraza eta sinplea dela, eta bestalde, berdintasuna generoen artean kuantitatiboki lortzen dela.

Baina dirudienez, esaldi honi aurre egin izan diote alderdi desberdinetako bozeramaileek erantzuna eman dute adierazpen honen aurrean.

El Mundo egunkarian agertutako “Trans pertsonen "iseka" egitea leporatu dio ezkerrek Ayusori” izenburua duen albistean islatzen den bezala, ezkerreko alderdiek negatiboki kritikatu dute Isabel Ayusoren ironia (El Mundo, 2023).

Bozeramaileen Batzarrean, Podemos alderdiko bozeramaileak, Alejandra Jacintok, berdintasunaren aldeko neurriak Madrileko presidentek erakutsitako jarrera zorrotz ukatu du, egunkarian azaltzen den bezala “«arbuiatzaitzat» jo du presidente batek transexualei «iseka» egitea”.

Alderdi Sozialistako bozeramaileak, Juan Lobatok, komentarioaren aurkako jarrera ere erakutsi du, horrelako txantxak ez egiteko eskatuz, berdintasunerako saiakeraren alde agertu da, esanez “Gizarte honetan aurrerapauso handiak eman behar dira berdintasun hori lortzeko. Txantxa horiek soberan zeuden”.

Más Madrid alderdiko bozeramaileak, Mónica García, Ayusok esandakoaren atzean dagoen mespretxuzko mezuari erreferentzia eginez, kritika egin du trans pertsonen burlakaren delakoan, “*Gorrototik eta transfobiatik egiten dituen isekak, empatia faltarekin batera*”.

Bestalde, Madrileko alkateak, Jose Luis Martínez Almeidak, Ayusoren ironia onartu du jarrera permisiboago batekin, umerezko keinua bezala eta ez transfobiako zantzu bezala, esanez “Umoreari buruz inoiz ez, benetan diot, politikan ez dago inoiz soberan. Adibide horren bidez, argi uzten du Trans legeak berdintasunari laguntzen ez dioten gaiak onartzen dituela”, honekin argi utziz umorearekin kritikatu duela lege berria, kolektiboari falta egiteko nahirik gabe.

Eta azkenik, Vox alderdiko bozeramaileak, Rocío Monasteriok, gogor kritikatu du Ayusok egindako txantxa, baina ez transfobiako zantzia ikusteagatik, ezkerreko alderdiek bezala. Kritika egiten dio esandakoari, gaiaren inguruko ele-meleak egiteagatik

txantxak eginez Trans lege nazionalaren inguruan, Madrileko Trans Lege autonomikoa indargabetu nahi ez duenean. Indargabetzeko argumentua ere ematen du, “Beren legearekin haurrak hormonatu ditzakete gurasoen baimenik gabe. Oso iraingarria iruditzen zait kriskitinak egitea. Haurrak hormonatzen dituen Lege honek ez du inolako graziarik”.

Beraz, Vox-eko jarrera trans kolektiboaren aurkakoa da, baina erradikalagoa ere, Madrileko lege autonomikoaren derogazioa aldarrikatuz, hormonon tratamendua argumentu negatibotzat hartuz.

Oro har, Vox-eko alderdiak Ayusoren aurkako jarrera erakutsi du, Madrileko Trans Legea indargabetzeko asmo ezarengatik. Baina zergatik ez du aldatu edo indargabetu, trans kolektiboaren aurkako jarrera duenean?

ABC egunkarian agertzen den bezala, “Ayusok berretsi du eskualdeko Trans Legea erreformatuko duela: «Genero-autodeterminazioak ez du inolako zentzurik»” izenburuarekin (Ep, 2023), Alderdi Popularreko buruak trans mugimenduaren aurkako jarrera argi utzi du “genero autodeterminazioak ez du inolako zentzurik” esaterakoan, baina aldi berean ere justifikatzen du 2016an Madrileko Trans legea argitaratzeko beharra, “eskualdeko araudia sortu zenean, trans pertsonen «ikusgarritasuna ematea» eta «batez ere errespetua eta ikusgarritasuna bilatzea» bilatzen zen, «kalte ugari eta gupidagabeko tratua zegoelako, agian ezjakintasunagatik». Haren ustez, arazoa izan zen «lege hori muturrera eramanez Madrilgo Batzarrean Ciudadanosekin eta gainerako alderdiekin ezkerrean»”.

Madrilgo presidentearen diskurtsoan kontraesana sortzen da: alde batetik trans identitateen oinarrian dagoen sexu autodeterminazioa baztertzen du, kolektiboaren aurka joanez, baina aldi berean onartzen du haien existentzia eta babeserako beharra.

Lehen aipatutako poliziarako oposizioak egiten ari zen trans emakumearen adibidea jarraituz, kasua Madrilen gertatu zen, eta Madrileko trans legeari erreferentzia egiten zitzaion emakumeen froga fisikoa egiteko eskaeran, hortik gobernuko Berdintasun Ministeritzara bidali zen.

Kasuaren inguruan Ayusoren erreakzioa trans legearen erreforma egitekoa izan da “«Uste dut lege horrek erreforma, berrikuntza edo erreforma sakona behar duela, ez baita horrela geratuko»”, eta poliziarako trans emakume hautagaiaren inguruan zera esan du “kasu horiek «kirol-lehiaketetan» eta «beste ordena batzuetan» ere ikusten ari direla”, kasuaren aurrean trans kolektiboaren egoera juridikoa kritikatzeko du “«Uste dut genero-autodeterminazioak ez duela inolako zentzurik, ezin duzula ideologia kode zibilaren aurretik jarri, ez Konstituzioaren aurretik, ez pediatren edo psikologoaren erabakien aurretik»”.

- Carla Antonelli

El Confidencial egunkarian agertzen den albisteak, “Carla Antonellik PSOEn baja eskatu du trans legeari buruzko eztabaida dela eta” izenburuarekin deituta, honako hau azaltzen du: Madrilgo Parlamentuko diputatu ohiak eta aldi berean Espainiar Alderdi Sozialistako lehen trans parlamentari ohiak, Carla Antonelli, alderdiari baja eskatu zion 2022ko urrian, arrazoa espainiar Trans Legearen izapidetza motela eta proiektuaren eraginez sortutako eztabaida izanik, besteak beste: “Nahiago dut kalean ibili eta trans taldekideei aurrez aurre begiratu, traizioa egiteagatik lotsaren burua makurtu baino, eta okerragoa dena, neure burua traizionatu izana”.

Hortaz gain, Twiter sare sozialean bere dimisioa aitortu zuen, bere jarrera eta ideologia sozialista mantentzen zuela adieraziz: “Gaur militantziaren baja eskatu dut@PSOEn, ez nire izenean. Baina, hala eta guztiz ere, nire izaera sozialistatik ezin izango naiz inoiz jaitsi, zainean bainoa, sozialista izan nintzen, naiz eta izango naiz, edonon nagoela ere eta bizitzaren eremua edozein dela ere”.

Antonellik azaldu duenez, urriaren 26ra arte Kongresuan trans legeari zuzenketa partzialak aurkezteko atzerapena "edalontzia bete duen tanta" izan zen, eta PSOEn egotzi dio horren errua. "Jende gutxiren ahotsarekin eta dituzten hedabideetako bozgorailuekin beldurtu dira. Beraz, jende gutxik hausnartu beharko luke gehiengo sozialari nola eragiten dion. Legea behar bezala zegoen, berehala sartu zen Diputatuen Kongresuan, baina bat-batean, azken hamar egunetan, berriro ireki da eztabaida " .

Bere ustez, arazo nagusia PSOEek trans legeari buruz zuen "irrotasun falta" zen, eta Carmen Calvo diputatu sozialistak eta Kongresuko Berdintasun Batzordeko presidentek duela gutxi egindako elkarrizketa batean ohartarazi zuenez, genero autodeterminaziorako eskubidea onartzen zuen lege horrek Espainian zegoen "berdintasun legeria sendoa urra dezake". Antonellik azaldu duenez, "dena probatu ostean" erabaki zuen PSOE uztea, izan ere, esan zuenez, "asko irentsi zuen" alderdiaren barne eztabaidarekin Trans legearen inguruan, nahiz eta beldur zen araua ez ote zen inoiz onartuko, 2023ko maiatzeko hauteskunde autonomikoak eta udal hauteskundeak gertu daudelako.

Bere desadostasuna arakutsi zuen Kongresuak lege proiektua argitaratzeko trabak eta eztabaidak zirela medio, horrek trans kolektiboan zuen eragina kontuan hartuz: "Ezin dut bizkar gainean eraman kolektiboak pairatzen duena, Kongresuko gorabeherak, murrizketak eta hobekuntzak, eufemismoz dioten bezala".

Urriaren 6an, Kongresuak PPK eta Voxek trans legeari aurkeztutako osoko zuzenketak eztabaidatu zituen, baina atzera bota zituzten, eta geroago zatikako zuzenketak aurkezteko faseari ekingo ziolarik. Epe hori lau aldiz luzatu izan zen irailaren 28tik urriaren 26ra, PSOEek eta PPK hala erabakita, PSOEren eta Unidas Podemosen koalizio-gobernuak sustatutako Trans legea, Kongresuan onartzeko zain, mugimendu feministak kritikatu egin zuen erregistroan sexu aldaketa bat sartzeagatik, mediku txostenik eta hormona tratamendurik behar izan gabe, "emakumeak desagerraraztea" ekarriko zuelaren beldur. " Sare sozialetan argitaratutako mezu batean, Antonellik azaldu zuen PSOEko militantziatik "min handiz eta sakon" ateratzeko eskatu zuela, trans legeari buruzko eztabaidari aurre egiteko moduagatik.

Bera lehen kide zen Alderdi Sozialistari Carla Antonellik eskatu zion zuzenketa zein eztabaidei bukaera ematea, atzeratzen ez jarraitzeko: "Pedro Sanchez Espainiako Gobernuko presidenteari eskatzen diot legea bere esku jartzeko, bere garaian egin zuen bezala, zuzenketak egiteko epeak ixteko eta emandako hitza eta hartutako konpromisoa betetzeko premiazko ahaleginekin jarraitzeko. Izan ere, sozialismoa ausarta ez bada, hori ez da sozialismoa". PSOEek Valentzian egin zuen Kongresu Federalean "autodeterminazioa eta despatologia" helburu zituen legedi integralaren aldeko apustua

berretsi zuela gogoratu zuen. Antonellik esan zuen, hala ere, "amesgaizto izugarria" izan zuela, "transfobiarena, bazterketena, barneko eta kanpoko umiliazioena".

Alderdiak hasiera bateko helburuei eusteko itzaropena erakutsi zuen, aurka egin zuten pertsonen eta sortutako polemikaren gainetik: "Benetan espero dut nire alderdiak orain arte izan denaz gogoeta egitea, gizarte-ehunaren sektore baten giza eskubideen aldeko borrokak beti galdu direlako. Hala ere, oihu beldurgarri batek beti aitortuko du historiako on egin, egin eta izatearen poza".

- Trans Legearen argitalpena eta Irene Montero

Urte honetako otsailean onartu da Trans Legea, prozedimenduan eta izapidetzan trabak egonda ere. El Mundo egunkarian argitaratutako albistean izenburua "Irene Monterok Trans Legea onartzea lortu du Kongresuan eta PPK "bai baietz da" berria dela ohartarazi du" izanik, Irene Monterok zuzendutako proiektuaren inguruko polemika aztertuko da.

Irene Monterok, Berdintasun Ministeritzako buruak, traba horien zuhertasuna adierazi du, "iragarpen ororen aurka" lortu dela esanez: "Ahal bezain pauso handia eman dugu, baina jende gutxi espero zuen hori posible izatea".

Hala ere, transfobia eta LGBTIfobia eta buloak zabaltzea leporatu die hainbat sektore politiko zein feministei.

Irene Monterok aurrera eraman nahi izandako proiektuarekin, beti despatologizazioaren alde eta genero autodeterminazioaren alde egin du, horretarako LGBTI kolektiboaren beharrak kontuan hartuz. Twitterren adierazi zuen bezala 2021ean, "Trans Legea lege izango da, genero-identitatea libreki erabakitzeko eskubidea aitortuz eta transekin ordaindu gabeko zor bati erantzunez. LGTBI kolektiboaren proposamena eskertzen dut, beti nahi izan dugu akordio bat, gugatik gaur bertan izan daiteke".

Berdintasun Ministeritzako Trans Legea, hainbat feministen artean errefusa sortarazi du. Adibidez, COPE irratia web-gunean (2023) aipatzen den bezala, Irene Monterok Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean emandako hitzaldi feminista batean 2023ko

otsailean, bi neska sartu ziren, Trans Legearen aurka zeudenak, oihuka “Faxistak unibertsitatetik kanpora!” eta atera behar izan zituzten. Bi neskei erantzun zien ministroak “Trans Legea feminista da”.

Beste adibide bat liteke El Correo egunkarian agertzen den albistea, hau da, martxoaren 8an, Emakumearen Nazioarteko eguna izanik, Emakumearen Institutuak antolatutako ekitaldian, Irene Montero berdintasun ministroarekin, entzun zirenean “dimisioa!” zioten oihuak auditorioan (El Correo, 2023). Ministroak bertaratzea eskaini zien neskei beren argumentuak azaltzeko, bitartean publikoak haiek kanpora joateko oihukatzen zuelarik.

Mikrofonoa eskaini zioten talde txiki horretako buruari, galdetu zionak ministroari “zer da emakume izatea?”, orduan erantzun zien “garrantzitsua da emakumeok, emakume izateagatik, indarkeria eta pobrezia pairatzeko arrisku handiagoa dugula, eta, horregatik, garrantzitsua da emakume guztiak errespetatuko dituen politika egitea. Agian azaldu nahi diguzuen da ez dagoela zakila duen emakumerik, Berdintasunerako ministro gisa nire betebeharra giza eskubideak defendatzea da”.

## PODEMOS VS TERF

Zaragozan ospatu zen Podemosen Udaberriko Festan Laura Terciado kazetariak polemika handia sortarazi duen zerbait esan zuen “Ultraeskuindarra baino talde antolatuagoa, oldarkorragoa eta sendatuagoa gaixotzen dena, hau da, TERFak”. Esaldi honekin definitu zuen emakumearen defentsa eskubide sexualetan oinarritzen duen mugimendu feministaren zatia, *terf* mugimendua. Era berean uko zion hainbat hamarkadako borroka ikusezin bihurtzeari, trans pertsonen inklusioari bide emateko.

Podemos alderdiak Twitterren duen kontu ofizialaren bidez zabaldu zuen bideoa, hitz bereziki polemiko horien murrizketarekin, eta emaitza aurreikusteko modukoa izan zen: milaka erreakzio sare sozialetan eta, batez ere, tonu kritikoa. "Autoboikot bat da", zioen Twitterreko erabiltzaileen lehen komentarioetako batek.



Alderdiko beste politikariak egon arren, Angela Rodriguez, Pam, Adibidez, atentzioa Laura Terciadok eta Bake Gómez-ek eskuratu zuten esandakoagatik. Bi neska hauek podcast batean aritzen dira, lesbianismo, feminismo eta abarreko gaiak jorratuz.

"Oso gogorra da... feminista transbartzertzaileak esango nuke, baina tira, lehen hitza alde batera utziko dugu, batez ere Berdintasun Ministerioaren martxoaren 8ko ekitaldira joan ginenetik" (lehen aipatutako martxoaren 8ko ekitaldian egindako etenaldiari erreferituz), esan zuen gazteak, "Boikota egiten saiatu dira, dena boikotatzen saiatu diren bezala, baina gertatzen dena da badakigula haien aurpegiak, noiz altxatuko diren, zer esango duten, zer ez duten esango", horrekin adieraziz amankomunean partekatzen duten eta zabaltzen duten diskurtsoaren pobrezia.

"Duela hamarkada batzuk lesbianek esaten ziguten ez ginela emakumeak. Gauza bera gertatu zen hamarkada batzuk lehenago emakume beltzekin. Gauza bera esaten dute trans emakumeek. *Hate* bera da, betiko arrabol eta ezjakintasun bera " gaitzestu zuen Laurak, emakumeekiko borroka bukaezina azpimarratuz. Hortaz gain terf kolektiboaren eta kolektibo transfeministaren artean bizikidetzatza egoteko aukera egon daitekeela adierazi zuen, baztertzeari utziko baliote: "Arazoa da ez dutela ulertzen zer den generoa. Horrelako zerbait ikusten duzunean eta gu bezalako jendearekin, Queerrekin, kolektiboko jendearekin harremanetan jartzen zarenean, ulertzen duzu zer den, gorrotatzeari uzten diozu eta biologismoak alde batera uzten dituzu".

- Feminismoa eta Trans Legea

El Pais egunkariaren albistean, bi emakume aktibista gonbidatu zituzten, Trans Legearen inguruko iritzia eta argumentuak ematera. Alde batetik, Ángeles Álvarez Alderdi Sozialistako diputatu ohia zegoen eta bestetik, Marina Saenz, LGBTI kolektiboan aktibista eta Espainiako lehenengo trans emakume katedraduna (Álvarez,P., 2021).

Egindako elkarrizketatik bi emakume hauei, lehenengo galdera aipatzekoa da, Trans Legearen alde edo aurka egoteko arrazoiak zeintzuk ziren.

Ángeles Álvarez-en arabera, bera ez dago transexualitatearen aurka, baizik eta zalantzan jartzen dituela proposaturiko legean kolokan jartzen zirenbeste eskubide batzuk. Trans kategoriaren azpitik sexua biologikoki zein juridikoki ezeztatzen zela.

Marina Saenz-ek alde zegoela aitortu zuen, honela isolatuta egon den kolektibo baten inklusiorako aukera zegoelako, eta gainera honela Europako Auzitegiaren Oinarrizko Eskubideen Agenda Europarra jarraitu zitekeela. Zuzenbide konparatua erabiliz zioen beste herrialde batzuk horrelako neurriak hartu zituztela eta ez zela horrelako liskarrik egon, legeak ez zituelako inorren eskubideak urratzen, eta ez zuelako emakumeen eskubideetan eraginik.

Genero autodeterminazioagatik galdetu zitzaizenean, argumentazio zeharo desberdina agertu zen. Ángeles Álvarez-ek autodeterminazioa ziriartzat jo zuen, biologia ukatzen zuelako. Trans Legean sexua eta generoa nahasten zirela esan zuen, genero autodeterminazioari buruz aritzen zenean, benetan sexu autodeterminazioa zela.

Marina Saenz-en hitzetan, aldiz, patologizazioaren aurkako neurria zela adierazi zuen, jadanik “nahastutzat ez gaituztelako gehiago joko” eta sexua ez zutela ukatzen, baizik eta sexua jaiotzerakoan esleitzen zizkiguten genitaleetatik haratago zihoala, beste faktore batzuk bazeudelako, izaki sexuatuak bihurtzen gintuztenak. “Ez dut ulertzen, gizarte bat proposatzen ari dira, non ez dagoen oso argi zer leku izan dezakegun komunean ere. Izan ere, badirudi galde diezagukeela ea zer daukagun bragetan, bertara sartzera goazenean, emakumezkoa iruditzen bazaizu”, adierazi zuen.

Polemikaren arloan sartu zirenean, Saenz-ek ez zuen ulertzen nondik zetorren, izan ere Alderdi Sozialistak jadanik urteak zeraman genero autodeterminazioa defendatzen 2014. urtetik lege autonomikoetan.

Ángeles Álvarez-ek esan zuen feminismoa duela gutxi arte ez zegoela adi gaiaren inguruan, baiian kontzientzia hartu zutela eta hori ezin zela fobiatzat jo, legitimoa zela feminismoak zalantzan jartzea eta gizarteak jakin behar zuela.

Hortaz gain kritika egin zion Trans legeari: hau aplikatuz bakarrik balioko zuela sinestea nortasuna ez zetorrela bat gorputz sexuatuarekin eta beste gehiagorik ez zuela balioko. Hortaz neskei igortzen zitzaien mezua zela estereotipo “femenino” batean sartzen ez ziren portaerak burutzerakoan transexualitatera jotzeko aukera bat zela.

Marina Saenz-en erantzuna izan zen ezin zela beti portaera estereotipatuengan jo. Hau da, nezka batek futbolera jokatzen bazuen ez zela transexuala izango, ez zelako “kapritxo” bat, baizik eta behar bat.

## Elkarrizketak trans emakumeekin

Lau pertsona elkarrizketatuta izan ziren, amankomuneko perfila izanik Trans emakumea, gaztea (18-24 urte artekoak), jatorriz eta jaiotzez Euskal Herrikoak.

Lehenengo elkarrizketuari 1. Neska deituko zaio lanean, 22 urte dituen eta Euskal Herrikoa dena. Apirilaren 24an egin zitzaizkion galderak, euskaraz egitea erabaki zuen.

Bigarren elkarrizketatuari 2. Neska deritza lanean, 23 urte zituen elkarrizketa egin zenean, 24 betetzeko hilabete eta erdi falta zitzaion. Euskal Herrikoa zen ere. Elkarrizketarako hitzordua apirilaren 26an adostu zen.

Hirugarren elkarrizketatuak, 3. Neska lan honetan, 18 urte zituen elkarrizketa egin zenean, baina 19 betetzeko gutxi falta zitzaion. Elkarrizketa maiatzaren 4an egin zen.

Laugarren, eta azken, elkarrizketatuak, 4. Neskak deituko dena lanerako, 20 urte zituen eta jatorriz Euskal Herrikoa da, baina Europako beste herrialde batean bizi zen. Elkarrizketa maiatzaren 4an ere egin zitzaion.

Elkarrizketa guztiak, azkena izan ezik, presentzialki egin ziren. Laugarren elkarrizketatuari telefonoz egin zitzaion, urruntasun kontuagatik. Lehenengo elkarrizketatua izan ezik, neska guztiek elkarrizketarako aukeratutako hizkuntza erdara izan zen.

Erantzunetako esamoldeak ez galtzeko, erantzunak erdaraz aipatu dira, ondoren euskaraz azalduta izateko.

Egindako galderak bost arlo jorratzen zituzten: trantsizioa, feminismoa, transfobia, Trans lege berria eta proposamenak eta etorkizunerako ikuspegia.

- Trantsizioa: kontzeptuak

Lehenengo arloa trantsizioarena izan zen. Hasteko, transgenero eta transexualitate kontzeptuen inguruan galdetu zitzairen.

Subjektuetako ezta batek ere ez zuen gustuko kontzeptu horiek erabiltzea, bereziki transexualitate kontzeptua.

1. Neskak transgeneroari buruz emandako definizioa generoarekiko asetze-eza izan zen: “nire kasuan, jaiotzerakoan jarri didaten generoarekin ez naizela eroso sentitu eta ikusterakoan ez onartzea”. Transexualitateari dagokionez, kontzeptua arlo klinikoarekin lotu zuen, atzean patologizazioa zegoelakoan: “(...) transexualitatea trantsizio mediku bat

pasa dutenentzat izan da, bai, baina gaur egun aldatu da... ez zait asko gustatzen termino hori zeren azkenean, patologia bezala agertzeko erabili dute”.

2. Neskak bi terminoak definizioa eman zuen, eta horrekiko zuen adostasuna adierazi zuen:

“transgénero y no estar cómoda con tu género y transexual es cambiarte de sexo.

Yo personalmente no me siento muy cómoda con éste último término, aunque podría usar cualquiera de los dos, pero me siento mejor usando el término trans, porque creo que abarca los dos, y además, no considero que todas las personas trans tengan que ser transexuales. Y transgénero... yo tampoco considero que haya cambiado de género, considero que he hecho un cambio en la mirada de los demás”

Hau da, definizio objektiboa eman zuen lehenengo, ondoren bere ikuspegia adierazteko definizio horien aurrean. Orokorrean kontzeptu bien aurreko desadostasuna adierazi zuen, batez ere transexualitatearen aurrean, mugatuagoa izanik. Generoa ez dela aldatzen adierazi zuen, baizik eta besteekiko ikuspegi aldaketa.

3. Neskak ere desadostasuna adierazi zuen termino bien aurrean:

“Yo personalmente prefiero llamar a una persona “trans” directamente porque, en sí, transgénero es como una etiqueta más para clasificar de una manera, según la operación (...). Pero para mí, pues eso, una persona que ha nacido en el cuerpo correcto, pero que no se identifica con lo que le han inculcado desde temprana edad”

3. Neskak emandako transgeneroaren definizioan gorputza eta arlo soziala desberdindu zituen, definizio desberdin bat emanez, non gorputza ez den arazoa, baizik eta ikasitakoarekin ezin identifikatzea. Transexualitateari buruz galdetu zitzaionean desadostasuna erakustez gain, transgeneroarekin lotura zegoela adierazi zuen,

desberdintasuna interbentzio kirurgikoa izanik: “sería para mí prácticamente lo mismo, solo que si hablamos de etiquetas, en este caso sería una persona que sí se ha hecho la operación”.

4. Neskak ez zuen zuzeneko desadostasuna adierazi, kontzeptu biak heziketa sozialarekin inkonformismoarekin lotu zituen, transgeneroa generoari zuzenduta zegoelarik: “tanto transgénero como transexual, significa el inconformismo, con lo impuesto por la sociedad, evidentemente va mas concretado hacia tema género”.

Transexualitatearekin definizio desberdin bat eman zuen: “proceso que llevamos las personas hacia el punto de partida desde el cual empieza la mayoría de la sociedad”, hau da, transexualitatea gizartearen gehiengoak duen “hasiera-puntura” heltzeko prozesua.

Laburbilduz, elkarrizketatutako pertsona gehienak ez zeuden ados “transexualitate” kontzeptuarekin, ez zuten hainbesteko ukapena erakutsi, aldiz, “transgenero” hitzarekin. Hala ere, kasu orotan, “trans” kontzeptua hobetsi zen, integratzaileagoa zelakoan.

Termino biak ukatzeko arrazoiaren artean nagusiak izan ziren generoa, bere aldetik, aldatzen ez delako, baizik eta inguruko jendearen perspektiba. Eta bestetik, transexualitatea mugatuegia delako, trans identitateen sektore bat adierazten duelako bakarrik.

- Trantsizioko faktoreak

Positiboak:

Oro har, esan daiteke elkarrizketatutako neska guztiei lagungarri izan zitzaikeela familia eta lagunak, hau da, gertuko testuingurua.

1. Neskak trantsizioa bi arloren arabera sailkatu zuen, alde batetik trantsizio soziala eta bestetik, trantsizio fisikoa.

Trantsizio sozialaren inguruan emandako faktore positiboak edo erraztasuna eman zutenen inguruan lagunak eta gertuko testuingurua sartu zuen: “zorionez lagunekin eta nire zirkulu sozialean dena ondo joan da, baina hori izan da trantsizio sozialean”.

2. Neskak lehen aipatutako gertuko zirkulu soziala aipatu zuen gehituta eredutzat hartu zituen erreferentziazko figurak, nolabait prozesua erraztu zizkietenak : “mis amigos y familia, que siempre me han apoyado, el cambio que ha hecho la sociedad, más los referentes que me han ido abriendo un poco el camino para conseguir lo que he conseguido”. Beraz, gertuko testuinguruaz gain kanpoko faktore bat gehitu zuen, gizartearen garapena.

3. Neskak familian jarri zuen fokua, ezinbesteko laguntza bezala, lagunak ere garrantzitsuak direlarik, bi talde hauek direlako aldaketaren berri duten lehenengoak “la primera capa de gente a quien tienes que contárselo”. Onartu zuen ez zela erraza haientzat, familian, adibidez, trantsizioa hasteko epe bat pasa behar izateko, “naturalizatzeke”:

“Yo se lo conté a mi ama... el 19 de mayo de 2019. Me dijo, “dame tiempo, dame tiempo”, estuvo 1 año como natural y me dijo, palabra, “naturalizar”. Eso se me quedó, y entonces era ella, que necesitaba su tiempo, también los de la familia más cercana. Y luego, después de 1 año, ya a partir de ahí me facilitó mucho las cosas, pero fue como 1 año de espera.”

Beste faktore bat sartu zuen, autoestima. Izan ere, aurreko faktoreek berarengan eragin zuten, aurrera bultzaz eta horrek aurrera jarraitzeko beharrezko jarrera izaten lagundu zuten, momentu oro laguntza eskaini ziotelako eta ez zutelako bakarrik utzi:

“Que te apoyen, te ayuden, también es cosa de autoestima. Decir, pues qué guay tener una familia así o un entorno amigo, espero que me puedan ayudar y seguir adelante, te hace sentir mejor y más segura de ti misma”.

4. Neskak bere “cispasing” edo “cis-etik trantsizioa” erraztu zion denborak, izan ere, jadanik aldaketa fisikoak dituzten pertsonak pubertarotik aurrera, bere cis generoaren ezaugarri sexuatuak garatzen joaten dira, hau gertatu baino lehen erabaki zuen ez zitzaizola gustatzen. Zioenez, laster konturatu zen aldatu nahi zuela (trantsizio fisikoari dagokionez), eta goiz hasi zen aldaketa fisikoarekin eta cis ezaugarri sexuatuak geldiarazteko aukera izan zuen:

“El tema *cispasing*, me lo ha facilitado mucho, porque, por suerte o por desgracia, he empezado la transición en la pubertad, a principios. Así que no tuve ese problema de ver desarrollar mi cuerpo como quería, para mí fue algo que, vi mi primer pelo del pecho y dije ‘NO’, y ya está”.

Hortaz gain lagunak faktore garrantzitsutzat hartu zituen, eta kanpoan bizi izan zela zehaztu zuen. Itzultzerakoan lagunak trantsizioa errazteko gainerako jendeari berria emateaz arduratu ziren, berak egin ordez.

Elkarrizketatu guztien erantzunetan hiru faktore beraientzat positiboki baloratutakoak izan ziren, kasurako erakunde sozialak direnak.

Alde batetik, familia aipatu zen subjektu guztien diskurtsoan, rol babeslea izan zuena “zaurgarritasunezko” egoeran (trantsizioaren hasiera) eta “armairutik ateratzeko” ezinbesteko elementua izandakoa.

Bestalde, lagunak ere aipatu ziren, trantsizioaren berri izan beharreko lehenengoetariko jendea izanik, trantsizioa errazteko jarrera erakutsi zen elkarrizketatutako neskeekiko.

Hirugarrenik, gizarteari erreferentzia egin zitzaion kasu guztietan, trantsizioa hasteko eta garatzeko eragina izan zuena. Kasu guztietan, gizartea negatiboki baloratu zen trantsizioa hasteko, baina onartu egin zen aldatzen ari dela gizartea soziologikoki, baina oraindik aldaketa gehiago behar direla.



Aipagarria da ere aipatutako *cispassing* terminoa, cis egoeratik trantsizioaren hasierako prozesu fisikoa islatzen duena, positiboki baloratu izan da, arazo handirik suposatu izan ez balu bezala, batez ere trantsizio fisikoa goiz hasi zuten nesketan.

Negatiboak:

Neska guztiek amankomunean adierazi zuten nola faktore negatiboa edo nolabait oztopatu ziena trantsizioa kanpoko testuingurua izan zen, hau da, testuinguru sozialean ezarrita dauden ideia eta aurrejudizioen eraginez jendearen erreakziorako beldurra.

1. Neskak, adibidez, presio soziala aipatu zuen oztopo bezala, gehituta azken aldian komunikabideetan ikusi ziren eraso transfoboa, berak horrelakorik bizi nahi ez zuela:

“ Presio soziala ere zailtasuna izan da, hau da, lagunekin eta, ondo joan da dena eta familiarekin ere, baina azkenean hortik kanpo ere gizartean jarraitzen da ikusten transfobia asko eta erasoak eta horrelakoak. Azkenean horrek ere zailtzen dizu, ñork ez du pasa nahi horrelako eraso batetik”

Ingurugiroko errealitateari erreparatuta, bere ongizate pertsonala lehenetsi zuen, beldurraren aurrean: “prefiero mi felicidad a mi seguridad”.

Beste oztopo bat bezala ikusi zuten osasun sistema, prozesu astuna delako trantsizioa egin nahi duten pertsonentzat. 1. Neska 2022ko irailtik hormonak hartzeko jarraitu beharreko prozesua hasi zuen, psikiatriatik pasata hainbat alditan, eta orindik ez zituen eskuratu. Egoeraren aurrean desadostasuna eta haserrea adierazi zuen:

“Trantsizio fisikoari dagokionez, orain dagoen sistemarekin hormonak lortzea nahi izan dut, hasi nintzen 2022ko irailean prozesuarekin eta oraindik pasa behar dut beste zita psikiatriko batetik, orduan pasako dut ia urte bat eskatu nuenetik Kruzesen dagoen UIGan ematen didaterako, badirudi saiatzen direla denbora gero

eta gehiago pasatzea, eduki nuen zita psikiatriko bat duela hilabete bat eta oraindikan ezer”.

Psikiatrekin eduki zituen hitzordu horiek nolakoak izan ziren galdetzerakoan, atsekabea adierazi zuen:

“Ez zidan ezer berririk esan, bakarrik denbora behar nuela, (...) ia urte bat daramat kontu honekin, osea, ez det denbora gehiago behar. Esan zidan “bueno, guztia ondo ikusten dut” (*en plan, que no estoy loca*), ‘bi hilabete barru zita emango dizut ikusteko nola doan’. Galdetu nion zergatik, eta erantzun zidan ‘*es que sino no puedo ver bien si ha avanzado la cosa*’, total, bi hilabeteetan berriz esateko ez nagoela ero, eta zitan jadanik banekizkien gauzak esaten zizkidan, y *me trata un poco como si no tuviera idea de nada*, eta ezer gutxi gehiago”

2. Neskak ere osasun sistemarekin atsekabea adierazi zuen, arazo berdina izan zuelako, bi urte pasa behar izan zuelako psikiatriatik, besteak beste, tratamendu hormonalak eskuratu ahal izateko, oztopoak jartzen ari zizkiotelako: “muchas gente en el ámbito médico que me paraban los pies con un montón de psiquiatría, estuve 2 años con psiquiatras, psicólogos y demás, intentado conseguir un tratamiento hormonal que todo el rato me estaban denegando”.

Jasandako erantzunetan aipagarriak diren faktore negatiboetan gizarte bera aurki daiteke eta instituzio publikoen jarrera. Alde batetik lehen aipatu bezala, gizartea eraldatzen ari da, baina prozesu berean eta oraindikan ere, trans identitateen aurkako jarrera nagusitu da, elkarrizketatuek aipatutako komunikabideetan agertutako erasoak eta diskurtsoetan adibidez. Honek atzeraka bota zuen neska hauen trantsizioa hasteko asmoa. Beldurra sentitu zuten kaltetuak izateko aukeraren aurrean. Trantsizioak nolabaiteko aursardia suposatzen du.

Bestalde, osasun sistemari dagokionez, negatiboki baloratuta izan zen, oztopoak jartzen dituelako oraindik hormonen tratamendua eskuratzeko eta sistema oraindik ere jarrera patologizatzailea erakusten duelako, psikiatrekin etengabeko hitzorduak bitarte.

Harremanak:

Lau neskei galdetu zitzairen trantsizioak izan zuen eraginagatik bere harremateko eran. Gehienek erantzun zuten baietz, eragina izan zuela positiboki, erraztasuna eman zielako.

1. Neskak adierazi zuen ez zuela zuzeneko loturarik nabaritu harremanetan jartzeko moduan eta trantsizioaren artean, baina bai eragina izan zuela bigarren maila batean trantsizioaren ondoriozko egoera animikoak.

2. Neskak trantsizioaren ondoriozko eragin positiboa adierazi zuen harremanetan jartzeko moduan, lagunak egiteko erraztasun handiagoa zuela esanez. Beste faktore bat aipatu zuen, harremanetan jartzeko moduan eragiten zuena eta generoarekin lotuta zegoena, adina:

“ Yo antes de empezar mi transición... yo de pequeña no tuve ningún problema con nadie ni nada por estilo porque no entendía nada acerca del género y todo iba bien, de pequeños nos permiten mucho más ser quienes somos porque al final no hay nadie que nos vaya a juzgar, pero al empezar en la ESO, con 11 años más o menos, vi una mirada hacia mí super diferente donde yo me tuve que reprimir a la hora de las amistades, me costaba mucho relacionarme, estudiar, no sabía por dónde tirar... ”

Adinak eragina izan zuen mundua ikusteko eran, harremanetan jartzeko askeago sentitu zen umea zenean, baina hazi ahala kontzientzia hartu zuen bere inguruko jendearen jarreraz eta epaitua sentitu zen, ondorioz erreprimitzeko beharra sentitu zuen.

Neska berak ere beste faktore bat aipatu zuten eragina zuena jendearekin erlazionatzeko momentuan, hau da, hormonon tratamendua: “Las hormonas al principio, traen un montón de cambios, un montón de emociones que me vienen encima, el no saber gestionar todo lo que ha pasado en mi vida y llegar al momento en el que estoy”. Hormonek eragina izan zuten bere egoera animikoan eta emozioen kudeaketan.

3. Neskak eta 4. Neskak ere eragina nabaritu zuten, askatasun handiagoaz jarduteko eta harremanetan jartzeko momentuan, azken honek esan zuten trantsizioaren ondorioz konfiantza irabazi zuela.

Elkarrizketatutako nesken artean aldaketa bat aurkezten da adin garapenean: txikitan egoera pertsonala eta harremanek ez zuten konplexutasunik ezta oztopo handirik, baina hasi ahala zailtasunak agertzen hasten dira, hala nola, jarrera ezkorra gizartearen aldetik eta aurreiritziak eta epaiketak.

Hala ere kasu guztietan trantsizioa nolabait askatasuna suposatzen duen zerbait bezala hartu zen, kasu guztietan trantsizioa baino lehen gaizki pasa zuten, baina trantsizioarekin hobetzea lortu zuten. Trantsizioa lorpena bezala adierazi izan zen.

- Feminismoa

Feminismoaren kontzeptuagatik galdetu zitzairen elkarrizketatuei, denek erantzun zuten ideia amankomun bat: berdintasuna bilatzen zuten mugimendua zela. Gehienek adierazi zuten bere definizioetan berdintasun bilatzen zela kolektibo bat baino gehiagotan, sexu femeninotik haratago.

2. Neskak feminismoa definitu zuten matxismoak sortutako diskriminaziotik abiatuz, berdintasun hori bilatzen zuten mugimendua zela, baina ez bakarrik emakumeekiko berdintasuna, baizik eta zabalduz, matxismo berak eragiten zituen kolektibo guztietara, horiek berdintasunerako borrokan sarturik zeudelarik: “El feminismo es una lucha que empezó desde la base de la discriminación por el machismo, y para conseguir una igualdad, tanto sea de la mujer como de todos los colectivos que se ven desprotegidos por el machismo”.

4. Neskak, aldiz, feminismo kontzeptua berdintasuna lortu arren, bi sexuen arteko kontua zela adierazi zuen, bikotasun sexuala. Bi sexuen eta bi generoen ardura izanik, trans emakumeak borroka feministan ere sartuko lirateke, denontzako berdintasuna bilatuz: “ Lo definiría como el movimiento que se ha construido con los años para conseguir la igualdad entre los dos sexos, los dos géneros, entre lo binario, para conseguir justicia e igualdad para todos”.

Jasotako definizioetan bi faktore nabarmentzen dira. Alde batetik, matxismoa agertu da garaitu beharreko etsaia, desberdintasunak dakartzana eta aurre egin behar dena.

Beste faktorea liteke binariorotasuna, oztopotzat jo zutena elkarrizketatuek, matxismoari aurre egitea feminista guztien ardura izan beharko zitekeela adierazi zuten, sexua edo binariorotasuna alde batera utziz.

- Transfeminismoa:

Transfeminismoaz hitz egiterakoan, guztiek adostasuna erakutsi zuten mugimenduarekiko. Desberdintasunak erakutsi zituzten transfeminismoaren inguruko ikuspuntuan.

1. Neskak zein 3. Neskak transfeminismoa definitu zuten trans pertsonak barne biltzen zuten mugimendua bezala, eta aldiz, 2. Neskak antzekotasuna nabaritu zuten feminismo “normalarekin” eta 4. Neskak transfeminismoa feminismoa zela adierazi zuen, ez zela desberdintzen feminismoaren barruan.

4. Neskak transfeminismoa feminismo normala zela zioen, bi sexuen kontua zenez, ez zelako bakarrik emakumei zuzentzen, baina generoa kontuan hartuz gero, trans pertsonak ere sartzan zirela, cis edo trans izanik:

“El transfeminismo, es feminismo, al final incluye dentro a las personas trans, empezando porque para mí es cosa, no sólo de las mujeres, sino de ambos sexos, contra el machismo, si es por género, las dos somos mujeres, tú eres mujer cis y yo

trans, peor las dos somos mujeres. Entonces, el transfeminismo yo lo considero feminismo”.

2. Neskak transfeminismoa feminismo “arruntarekin” erlazionatu zuen, beste adar bat bezala tratatuz, baina amankomuneko baloreak partekatzen zituen eta feminismo “arrunta” bezain aldarrikatzailea zena.

Kasu orotan transfeminismoa feminismoaren barneko korrante inklusibotzat jo zuten, non kolektibo bat baino gehiago bateratu behar ziren berdintasuna bilatzeko.

- Feminismo erradikal trans baztertzailea:

Ondoren, feminismo erradikal trans baztertzailearengatik galdetu zitzairen. Elkarrizketatuetakoz ezta bat ere ez zegoen ados feminismoaren adar horrekin. Denek lotzen zuten mugimendua jarrera erasokorrekin eta pentsakera itxiekien.

1. Neskak feminismo trans baztertzailea jarrera erasokorrekin lotu zuen eta ideologia kontserbadorearekin: “uste dut nahiz eta esaten duten erradikalak direla, bere diskurtsoa izaten dela nahiko kontserbadorea hainbat arlotan: edo jotzen dute bioesentzialismora, edo jarraitzen dute esaten generoa binarioa dela, beren posizioa nahiko limitatua da”.

2. Neskak mugimendu honen kideak ez zirela benetan feministak adierazi zuen, trans emakumeak edo beste kolektibo baten kideak baztertzerakoan ez zutelako benetako berdintasun baten alde egiten:

“Una persona que ya sea, por temas raciales, transfobia, o por lo que sea, que aparte a otras personas del movimiento feminista, yo no la consideraria feminista porque al final no está luchando por una igualdad que tanto quieren conseguir”.

3. Neskak ere aurreko neskaren argumentu bera erabili zuen berdintasunaren inguruan.

4. Neskak argumentatu zuen mugimenduaren aurkako ikuspuntua, oinarrituz ez zuela zentzurik bakea bilatzea beste kolektibo bat baztertuz, batez ere emakumeen alde egiten duena: “porque en estos temas, cuando se busca la paz, no se excluye a ningún colectivo, de sexo, me refiero, un colectivo que lucha por las mujeres no excluye a una parte de las mujeres”.

Ondoren, elkarrizketatuei galdetu zitzairen esperientziarik eduki ote zuten *terfekin*.

Bik esan zuten ez zutela zuzeneko esperientziarik izan, eta beste erdiak baiezkoa eman zuten.

2. Neskak izan zuen esperientzia sare sozialen bidez izan zen, Instagram eta Twitter bidez, besteak beste. Bertan eztabaidak izan zituen, eta zioenez, mugimendu horretako kideek diskurtso berdina erabiltzen zuten, argumentu berdinekin eta hortik ez zirela ateratzeko gai.

3. Neskak ere esperientzia zuen feminista trans baztertzaileekin, klasekide bat *terf* bat zen eta. Bere hitzetan esperientzia negatiboa izan zen:

“Fue literalmente un debate entre ella y que la tía me hiciera *misgendering*, me llamara como ‘él’ delante de toda la clase. (...). Es algo que no te gusta directamente, pero es pues experiencia que me llamase como él, me intentara dejar por debajo de ella delante de la clase y pues lo que busca humillación, más que nada a nivel... de forma pública, porque era delante de la clase”.

Unibertsitateko klase kideak neska honek dioenez bera mutila izango balitz bezala tratatu zuen gainerako klase kideen aurrean, umiliazioa lortzeko nahian, izenordain maskulinoekin. Esperientzia erasotzeko modua bezala deskribatu zuen, berari minik eragitea ez zuela lortuko, baina beste pertsona sentikorrago bati agian bai eragingo ziola.

Feminista erradikal trans baztertzaileez arituz, galdetu zitzairen trans neskei zeintzuk ziren ideologiaren barruan erabilitako trans pertsonen aurkako argumentuez.

1. Neskak aipatu zuen argumentu nagusia bioesentzialismoa zela, organo eta ezaugarri sexuatu femeninoak zituzten pertsonak emakumeak zirela. Arlo sozialeko ezberdintasunak aipatu zituen ere argumentu bezala, alde kontserbadoretik erabiltzen diren argumentuekin bat egiten dutela zioen:

“Bioesentzialismoa batez ere, genitalen kontua eta bakarrik uteroa dutenak emakumeak direla. Gero ere zati sozialean hitz egiten duten esaten ‘gizon bezala tratatu zaituztenez bizitza osoan ezin zara emakumea izan’ beren esperientzietatik ez zarelako pasa edo, oso desatsegina da, kontserbadoreek egiten dituzten komentario transfoboak erabiltzen dituzte ere (...). Ematen du beren argudioak marko feminista batetik etortzen direla, baina ondo ikusten badituzu ia Vox-ek esaten duenaren berdina da”

2. Neskak entzundako argumentu pare bat aipatu zituen:

“Lo que se dice que es siempre las mismas excusas de ¿qué pasaría si se le permitiera a una mujer trans entrar en los baños de mujeres? ¿Pues qué va a pasar? Pues que va a ir al baño como todas las demás. Y si una persona es una persona violadora, va a ser una persona violadora a sea mujer trans o no sea mujer trans, pueda entrar al baño o no pueda entrar, que si quiere va a ir entrando igualmente, así que yo creo que se basan pues en eso, en un comunicado que siempre es el mismo”.

Kasurako feminista trans baztertzailleek aipatzen zituzten eta trans emakumeak “arriskutsutat” hartzen zituzten egoera batzuk aipatu zituen. Lehenengoa komunen kontua izan zen. Asko eztabaidatu izandako gaia trans emakumeen sarrera komunetarako zena. Berak esan zuenez, feminista trans baztertzailleek esaten zutela trans emakume bat emakumeen komunetara sartzen baldin bazen, bortxatzaile bat sartu egingo zela, baina benetan trans emakume batek beste emakumeak bezala jokatuko zuela, benetako



bortxatzaile batek jardungo zuela trans emakumea izanda edo ez izanda, eta komunera sarrera ezeztatu arren ere sar zatekeela berdin-berdin.

Aipatu zituen beste egoerak izan ziren trans emakumeen sarrera emakumeen espetxeetara edo moduluetara eta hauen kirol-jarduerak eta lehiaketa.

Gainerako elkarrizketatuek biologia eta abantaila sozial eta juridikoaren argumentu berdinak aipatu zituzten.

Bukatzeko feminismoaren arloarekin, *terf* mugimendua tranfobiarekiko lotura eta transfobia maila edo intentsitatearengatik galdetu zitzaien.

Elkarrizketatu guztiek feminismo trans baztertzaila tranfobiarekin lotu zuten. Galdetu zitzaien ea mugimendua beste mugimendu batzuk bezain tranfobikoa ote zen.

Denek erantzun zuten baietz, tranfobikoa zela eta ideologia kontserbadorearekin alderatu zuten, batzuk esanez balitekeela tranfobikoagoa izatea.

2. Neskak feminista trans baztertzailak tranfobiarekin lotu zituen, baina transfobia mailari uko egin zion:

“La transfobia es transfobia, venga por donde venga, o sea, venga desde dentro del feminismo, venga desde desde otra parte, pero sí que es verdad que depende, hay otras formas de ser transfóbico, muchísimo más agresivas, como lo puede ser, pues yo que sé, la la ultraderecha, o puede ser que esté otras 1000 formas en otros países que no están tan avanzados de derechos y tal”.

Tranfobikoa zela argi utzi zuen, baina transfobia faktore dikotomiko bezala hartu zuen, maila desberdinetarako aukera ezabatuz, baina aldatzen zena, bere hitzetan, zen transfobia adierazteko modua. Transfobia egikaritzeko modu oldarkorragoak ere bazirela, kontserbadurismoarekin alderatuz edota herrialde atzeratuagoekin.

Gainerako neskek ere transfobia onartu zuten, 3. Neskak eskuineko alderdi politikoek emandako argumentuekin bat zetorrela haien diskurtsoa, eta haiek tranfobikoak izan

arren, *terf* kideak transfobikoagoak izan ahal zirela esan zuen, gehiago zentratzen direlako trans emakumeen aurka eta gainera jarduerak antolatzen zituztela, adibidez manifestazioak edo grafitiak:

“También son, o sea, igual no es su idea principal. Como se centran en eso, sobre todo, yo creo que más que otros colectivos. yo creo que incluso más, pero por el hecho de eso de llamar la atención y de hacer ruido. Que hay gente, pues también que está en contra, pero no va a hacer manifestaciones, ni va, ni pone pintadas en los baños de la uni”.

4. Neskak, aldiz, *terf* ideologia gizon cishetero normatiboenarekin alderatu zuen, transfobia ere dikotomizatuz: “Yo creo que la mayoría de los hombres cishetero normativos, no los cis heteros, sino cis hetero normativos, creo que están a la misma altura de transfobia y de que gente que discrimina que las *terf*”

Ikuspegi desberdinak agertu ziren elkarrizketetan, feminismo trans baztertzailea aurre egin beharreko zerbait bezala agertu zen, eta mugimendu horren atzean ezarrita zegoen binarismoa gainditu beharrekoa ere bazen.

- Transfobia

Transfobia arloarekin hasteko, kontzeptuarengatik galdetu zitzairen elkarrizketatuei, definizioa eta adierazteko formaz ere.

1. Neskak transfobia trans pertsona bati egiten zitzaion edozein eraso motarekin lotu zuen. Gainerako elkarrizketatuek definizio sakonagoak eman zituzten.

2. Neskak transfobia beste faktore batzuekin lotu zuen:

“No es miedo, porque no es miedo, o tal vez en el fondo sí. Pero es como un rechazo a lo diferente. Yo me acuerdo, no sé qué contexto, pero dije cómo era que una persona que no le gustaba que una mujer tuviese una voz más grave, entre otras cosas”

Hau da, transfobia definitzeko erabili zituen beldurra eta desberdintasuna. Alde batetik zioen jarrera transfoboen atzetik egon ahal zela beldurra, eta bestetik, desberdina zenari ukapena. Adibide bezala erabili zuen trans emakumeen zenbait ezaugarri, ahotsa, besteak beste, gustatu ez izatea.

Ondoren adierazi zuen desberdina izan arren, normalizatzeko prozesuan ari zela , baina oraindik ez zela guztiz “arrunta”.

### 3. Neskak errespetuarekin lotu zuen transfobia:

“Yo creo que lo puedo entender, y no a la vez. Porque si tienes miedo a algo, no lo discriminas, tienes respeto y lo dejas ahí. Yo no pido que me acepten ni que me aprecien, porque ya me acepto yo y tú no me tienes que aceptar, yo pido que me respetes”

Transfobia uler zezakeela adierazi zuen beldurraren aldetik, baina aldi berean, ez zuen ulertzen zergatik ez zen errespetatzen. Berak eskatzen zuen bakararra errespetua zen, ez onarpen soziala ezta gustazea.

Elkarrizketatuei transfobiaren pertzepzio pertsonalagatik galdetu zitzaient, haien bizipen pertsonalak kontatu zituzten batzuek.

1. Neskak ez zuen transfobiazko esperientziarik izan, baina bai pertzibitu zuela bere inguruan, komunikabideetan esaterako, egin ziren eztabaideetan adibidez:

“(…) jendeak eztabaida asko egiten ditu, trans pertsonen identitateak zalantzan jarriz telebistan eta. Ez dut esaten zuek, pertsona cis-ek, ezin duzuenik hitz egin,

baina ematen zaion forma eztabaida horri da zalantzan jartzea trans pertsona, eta oso gauza berria bezala tratatzea”.

### 3. Neskak arlo desberdinetan pertzibitu zuen transfobia:

“Sobretudo a la hora de ligar es una cosa exagerada, y luego, pues eso, con la familia también de gente que no te acaba de ver que ya por el hecho de tu presencia surgen situaciones incómodas, porque como eres diferente es como, hay que tener cuidado como si fueses algo delicado. (...). Con los hombres también, por ejemplo, directamente ligando, no sé, al momento de decírselo, luego me decían, ay, la primera pregunta, “¿te has operado, cuánto te mide?...”, joder. Que había gente que acababa cediendo y le daba igual, sí, pero ya hacían preguntas incómodas, que dices, ‘ya no me siento a gusto’ (...). No es un caso agresivo, pero es en el día a día”.

Arlo desberdin aipatu zituen, non transfobia ematen zen. Lehenengoa zen inguratzeko edo ligatzeko moduan, nabarmenena zena bere hitzetan. Bigarrena familia arloan kokatzen zen, nolabaiteko egoera deserosoak sortzen zirela bere presentzia hutsarengatik, zaugarria balitz bezala tratatzen zutelako. Eta azkenik, gizonekin ligatzeko momentuan, galdera gogaikarriak eta desegokiak egiten zituztela, deseroso sentiarazten zutenak.

Laburbilduz, esan zuen bere pertzepzioa ez zela ekintza oldarkorra, baina bai eguneroko detaileak. Bereziki gizonekin izandako tratuan zentratu zen, deseroso sentiarazten zutela: “Pero es bueno lo de los hombres, ay bueno, me han llegado a llamar de todo y luego querer acostarse conmigo”. Kasu horretan, gizonekin kontraesana azpimarratu zuen, denetarik esan ziotela baina harreman sexualak izan nahi zituztela berarekin.

4. Neskak pertzibitu zuen pertsonalki, besteek kolektiboarentzako erabiltzen zituzten iseka bereziak aipatzerakoan adibide bezala: “por ejemplo, hay gente que en vez de decir transexuales, nos llama ‘mariliendres’ o ‘mariquitas’”. Beste adibide bat ematearren, 3.

Neskak bizitako egoera aipatu zuen, hau da, trans pertsona bati nahita jaiotzerakoan esleitutako izena erabiltzea edo *misgendering*.

Gero hurbileko testuinguruko pertsonen batek bizi ote zuen galdetu zitzairen, nola pertzibitu zuten eta nola uste zuten sentitu zirela.

Guztiek pertzibitu zuten inguruko pertsonak pairatu zutela noizbait transfobia zuzenean edo behintzat zeharka jasan zituztela transfobiaren ondorioak.

1. Neskak bai ezagutzen zuen norbait bere gertuko zirkuluan transfobia pairatu zuena zuzeneko moduan, “erasotuak sentitu zirela suposatu zuela” zioen, esperientzia oldalkor bat eduki izanagatik.

2. Neskak, aldiz, gertuko testuinuruko pertsonak transfobiaren ondorioak pairatu zituela adierazi zuen:

“(..) Directamente mi ama que alguna vez me ha dicho que le han dicho cosas que no tenían ningún tipo de sentido como ‘¿qué le pasa a tu hijo, se ha vuelto loco?’, en fin, cosas así. Sino, en el ámbito de pareja, que tuve una, ya no, y menos mal. Pero él me decía ‘es que ahora, no es por nada, pero me da cosa ir a clase y que me digan algo’”.

Bi egoera azaldu zituen: alde batetik bere amaren ezagunek, ulertzen ez zutenak trans kontua, egiten zizkieten galdera iraingarriak. Bestalde, eduki zuen bikote kide baten adibidea jarri zuen, beldurra zuela bere ezagunek zer esango zuten trans neska batekin egoteagatik. Esan zuenez, ez zion errua botatzen beldur hori sentitzeagatik, baina harresea sentitu zuen beldur hori sentitu behar izatea besteengatik, ez zutelako bera bezalako pentsakera irekia: “pues obviamente podía darse el caso de que le dijeran algo, y pasó, pero es que le da respeto ir a clase porque un subnormal no tenga la mente tan abierta o porque simplemente es subnormal”.

4. Neskak ere laguna zuen, eraso transfobo batetik pasa zena:

“Yo creo que te puedes llegar a sentir asustado, con miedo, frágil, perdido... Yo tengo una amiga que salió en todas las noticias porque le dieron una paliza al salir de casa y viéndolo, y poniéndome en su piel, yo creo que se sintió indefensa más que nada (...)”

Zioenez, lagun batek eraso transfobo fisikoa pairatu zuen, etxetik irtetzerakoan jipoitu zuten-eta. Transfobia pasatzen zuen pertsona batek beldurra eta zaurgarritasuna sentitu ahal zuela esan zuen, kasurako, lagunak zaurgarri sentitu zezakeela pentsatu zuen.

Transfobia modalitateak:

Transfobia adierazteko formengatik galdetu zitzairen neskei, orokorrean erantzunak errepikatu ziren.

Denek erantzun zuten transfobia hitzezkoa edota fisikoa izan zitekeela. Baina 1. Neskak transfobia instituzio publikoetan eman ahal zela adierazi zuen: “Adibidez gobernuan hitz egitean, edo lehen aipatutako genero identitateentzako unitatearen (Unidades de Identidad de Género, UIG) adibidea, ez da eraso zuzena, baina hainbeste zitekin eraso iruditzen zait, nahiko patologizantea sentitzen dena”

3. Neskak adierazi zuen transfobia gutxien adierazten den forma fisikoa zela, eta batez ere orokorrean inkontzienteki ematen zela, informazio faltagatik:

“De una persona de la calle, que te puede hacer un comentario, un comentario tonto que es porque no sabe y tiene curiosidad, pero te lo suelta, te pregunta cualquier cosa que te pueda molestar y es como ‘vale, nos es consciente de que lo es (transfobia), y lo hace por eso’ (...)”

Hau da, detaile txikiak ematen ziren, sutilak, komentarioren bat, ezjakintasunaz egiten zena edo jakinminak bultzaturik, eta molestatu zezakeena.

3. Neskak ere aurreko moduekin bat zetorren, baina hitzezko formaz eta forma fisikoaz gain, legeen inguruan eta Vox eskuineko alderdia aipatu zuen:

“Una es de forma verbal, pues insultos y tal, también hay gente que te pega bocinazos y baja la ventana para chillarte cualquier cosa. De forma física como te acabo de decir, además también podemos ver en tema leyes y tal, no voy a entrar en tema de Vox, pero bueno... Es gente que no tiene gran idea de cómo van las cosas”.

Jasotako erantzunetan transfobia egikaritzeko moduen sailkapen desberdina egin daiteke:

Alde batetik zeharkako moduan, non komunikabideek ardura duten. Izan ere, bertako berrien eta eztabaidek trans kolektiboaren inguruko eraso eta kritiken ingurukoak izan ohi dira.

Zuzeneko moduan ere bizi izan zuten, bai beraiek, bai familiarrek jasandakoa, irainen edo bestelako erasoen bidez.

Eguneroko transfobia ohikoena da erantzunetan, hau da, detaile sotilak izan ohi dira, adibidez, galdera deseroso batzuk, edo komentarioren bat, normalizatuta daude gizartean trans kolektiboarekiko kritikak eta errespetu faltak.

Eskola edo unibertsitatean zuzeneko moduan ere eman ohi da, elkarrizketatuek, lehenik aipaturiko transfobia normalizatuta egonda, harreman sozialak izateko zailtasunak izan zituzten, etengabe epaituta izaten ari zirela sentitu zutelako, zaurgarritasuneko egoegoeran egonda, *bullying*-a jasateko arriskua dute.

- Trans Legea

Elkarrizketatuei aurren, 2023an, argitaratutako Trans Lege berriarengatik galdetu zitzairen, horren inguruan entzundakoa adierazteko eta bere iritzia eta asebetetze-maila adieraz zezaten.

Denek amankomunean adierazi zuten entzundako gauza asko negatiboak izan zirela eta pertsonalki legea ekintza positibotzat ikusten zutela, batez ere trantsizio prozesuaren azkartzea ekarriko zuelako.

1. Neskak adostasuna adierazi zuen legearen argitalpenaren aurrean, aldi berean haserre zegoen sortutako aurkako jarrerekin:

“persona asko horren kontra, esaten argitaratu zenetik ‘orain erabiliko dut generoa aldatzeko ...’, edozein eskusa jarriz erridikulizatzeko legea. Nik positiboa ikusten dut lehen zegoen prozedimenduan azkartzeko, ez pasatzeko 2 urte hormonekin bakarrik aldatzeko DNian dagoen letra, baina persona asko erabili dute polemika sortzeko eta aurka joateko, ‘oposizioak errazagoa izateko’, baina hori, positiboa izan daitekeela prozesuaren aldetik”

Hortaz, elkarrizketatuak aurkeztutako egoerak, oposizioetarako sexua aldatzea bezalakoak, edo beste helburu maleziatsu batzuekin, erabili ziren legeaz iseka egiteko.

Bestalde, legearekin ados zegoen despatologizazio aldetik, eta prozesua arintzearekin.

2. Neskak adostasuna adierazi zuen partzialki, baina atsekabea ere manifestatu zuen legearekiko, proiektuak izandako egitura eta edukiaren garapenagatik:

“A ver, la ley trans es un proyecto que se lleva hablando varios años, yo estuve en 2021 en el Parlamento, hablando acerca de esto y considero que desde que comenzó una ley bastante bien estructurada y tal hasta lo que ha llegado en sí a lo que es una ley trans, que es en sí una ley LGBT, en el que solo se dedica una página a las personas trans, bueno, para mí deja mucho que desear porque se deja afuera muchísimo, muchísimas personas, pues que igual son las más perjudicadas por la sociedad”



Elkarrizketatuak Trans Lege proiektuaren idea zenagatik benetako lege izatera iritsi arte, pobretzen joan zelako pertzepzioa zeukan, trans pertsoneri eskaintzen zitzaizen espazioa txikiegia zelakoan. Oraindik asko geratzen zela lantzeko uste zuen.

Neska berak ere puntu positiboak nabarmendu zituen, beste elkarrizketatuek aipaturiko despatologizazioa barne. Baina beste puntu bat ere azpimarratu zuen, hormonon tratamendua hain zuzen:

“que es un avance bastante grande el hecho de que no tengan que necesitar, pues un tratamiento hormonal, porque no se ven, pues reflejados en unas hormonas, en un o en un cuerpo estándar de una mujer o de un hombre para poder cambiarse la mención de sexo o el nombre en el DNI”

Goretsi zuen lege berria sexua aldatzeko prozeduran hormonak hartzeko beharra ez izatea, norbere burua hormona edo emakume edo gizon cis baten gorputzean irudikatuta ikusten ez zuelako. Horrekin ikus daiteke elkarrizketatuak ez zuela lotzen generoa eta gorputza, ezaugarri sexuarekin, zuzeneko moduan

3. Neskak eta 4. Neskak nabarmendu zituzten lehen aipaturiko legearen aurkako gezurrak sexua aldatzearekin lotuta, komunak bezalako egoerekin, trans emakumeen irudiaren bortxaketekin lotzen zituena. Hirugarren Neskak kritika egin zien legearen ondorioz sortutako gezur horiei:

“ Y que una una ley que ayuda a personas que tienen más dificultades que tú y que tú quieras ir ahora, haciendo el tonto diciendo que por no sé qué van a violar más. *No maiti*, los violadores están ahí y sí quieren violar, lo van a hacer, al igual que los acosadores, pero como todo el mundo. No es una facilidad”.

3. Neskak komunikabideetan zein sare sozialetan zabalduko gezurrei edota akusazioei aurre egin zien esanez bortxatzaileak bortxatu nahi baldin bazuten, egingo zutela, baina trans emakume bat izateak ez ziela erraztasunik emango.

Kritika horrek islatu egiten du trans emakumeen irudia bereziki “zikindu” egin izan dela sortutako polemikarekin, delitu sexuarekin lotu direlarik.

4. Neskak aipatutako gezurrak prozeusarekin lotuta zeuden:

“He oído barbaridades y muchos bulos. Porque hay gente que cree que si tú te plantas en el registro civil y dices que de ahora en adelante eres chica y te quieres cambiar el nombre, te lo van a cambiar ese mismo día. Y de hecho hay gente famosa en Internet que lo ha presumido, pero más allá de un papel doblado, yo no he visto ningún documento ni que les hayan cambiado el nombre de verdad. (...). No es tan estúpido como la gente lo hacer sonar”

Bere hitzetan, zabaldutako gezurretako bat zen erregistro-aldaketa egin ahal izateko prozesua erraztearen inguruan, gehiegikeriazko puntu batera eraman zela, non jendeak sexua aldatzeko borondatearekin nahikoa zela uste zuen, egun berean aldaketa egingo zela. Pertsona famatuak ere bazirela, sexu aldaketa berehala egin ahalko zutela esaten zutenak, baina ez zegoen argi benetan gertatu ote zen. Beraz, argi geratzen da ezjakintasun handia egon izan dela legearen edukiaren inguruan, erraz zabaltzeko sexua errez alda zitekeela, espontaneoki, lehen aztertu den bezala, gutxieneko epea hiru hilabetekoa denean lege berriaren arabera.

Elkarrizketatutako neskeek pertzibitutako legeak ekarriko dituen aldaketen artean honako hauek nabarmentzen dira:

Trantsizioa erraztu ahal izateko prozedura arinagoa bihurtuko da, gehienek denbora luzea pasa izan zuten erregistroko aldaketa egin ahal izateko aukera izanik ere erabakia hartu behar zuen epaileak ezezkoa emateko, orain prozesua egin nahi izango duten pertsonak ez dute hainbeste trabarik izango.

Osasun sistemak jarraitutako protokoloa aldatuko da, berez autonomia erkidego bakoitzak trans legedi propioan kudeatzeko aukera izan arren, elkarrizketatutako neskek, EAEko Osakidetza osasun zerbitzuan jasotako zerbitzua patologizatzaile bezala deskribatu zuten, psikiatriaz josita. Orain, lege berriarekin, despatologizazioaren aldeko pauso bat eman dela baieztatu da eta diagnostiko psikiatrikorik gabe ezta hormonon tratamendurik gabe aurrera eraman ahal izango da aldaketa.

Bestalde, neska gehienek kritika egin zuten komunikabideetan zabaldutako gezurren eta iruzurren inguruan, mezu transfobikoa zeramatzatenak atzean, zabaldutako eztabaida eta berrien ondorioz sentsatzionalismoa sortzeko helburua izan dute, kriminalizatzen trans pertsonen irudia mutilazioarekin edota bortxatzaile irudiarekin, *terf* eta beste kolektibo transfobikoen argumentu eta kanpainiak elikatzen dituztenak. Beraz, komunikabideen edukia kontrolatzeko beharra dago.

- Etorkizunerako espektatibak

Elkarrizketatutako neskei legeak ekarriko dizkien aldaketak zeintzuk ziren galdetu zitzairen. Gehienek ez zuten aldaketa nabarmenik espero, gehien errepikatu zena izan zen prozesuaren arintzea eta despatologizazioa, erregistroko aldaketa egiteko.

2. Neskak autodeterminazioaren aldeko aldaketa ikusi zuen, baina zehazki Euskal Herrian aldaketa nabarmenik ez zela egongo adierazi zuen jadanik 2019tik bazegoelako trans kontua erregulatzen zuen legea, are gehiago, agian atzerapauso bat izateko arriskua ikusi zuen. Bestalde, aipatu zuen puntu positibo bat zen aldaketa egiteko oztopo gutxiago egongo zirela orokorrean, epaileek ezezkoa emateko aukera gutxiago egongo zirelakoan.

3. Neskak izapide prozesua arintzeaz gain, aldaketa sozialak ekarriko zituelakoan zegoen, legearen argitalpenarekin batera gizartean informazioa eskuratzeko aukera ematen zelako.

4. Neskak, aldiz, ez zuen sozialki aldatzeko aukera handirik ikusten, prozesurako arintzeaz gain, oraindik trans kolektiboaren aurkako erasoak egongo zirela uste zuen eta zaila zela uste zuen.

Neskek pertzibitutako Trans legeak eragin beharreko etorkizuneko aldaketen artean nagusia prozesuaren arindura da. Bestalde, informazioa zabaltzeko tresna bezala ikusi da ere. Kasu gehienetan legearen argitalpena aldaketa handirik ekarriko ez zuela uste zen, azalezko neurria izanik, ez zituzten guttiz asetuta ikusten beren beharrak.

- Proposamenak eta etorkizunerako ikuspegiak

Neskei galdetu zitzaien zer gustatuko zitzaien aldatzea arlo desberdinetan, hala nola, feminismoan eta gizartean. Hortaz gain, feminismo inklusibo bat lortzeko proposamenak ote zituzten galdetu zitzaien, eta nahi zutena gehitzeko aukera eman zitzaien.

Aldaketa sozialari dagokionez, guztiek trans kolektiboaren aldeko normalizazio eta ikusgarritasunaren aldeko aldaketak nahi zituztela eta suspertu behar zirela proposatu zuten.

1. Neskak, 2. Neskak eta 4. Neskak trans pertsonen presentzia normalizatzeko eta ikusgarritasuna lortzeko, hezkuntzan neurriak hartzeko beharra ikusi zuten, gizartean kolektiboaren inguruko informazioa eskaintzeko eta gaia eramaten jakiteko.

Feminismo arloan, *terf* mugimenduaren aurkako jarrera nabarmendu zen, ikuspegi inklusibo batetik, hau da, feminismoaren barruan bazterketa eta diskriminaziorik ez egiteko asmoa.

1. Neskak eta 3. Neskak *terf* kideen diskurtsoa ez nagusitzea eskatu zuten, ikusgarritasuna aldarrikatuz.

4. Neskak feminismoaren barruan informazio falta sumatezn zuela esan zuen, eta hori konpondu beharreko kontua zela, agian *terf* mugimenduko kideek benetan trans kolektiboaren inguruan informatzen baziren, ez zutela kolektiboa baztertzeko. Esan daiteke lotura egin zuela diskriminazioa eta informazioa edo ezagutza mailaren artean.

Feminismo inklusibo bat lortzeko aukeraren espektatiban, iritziak desberdinak izan ziren.

4. Neskak feminismoaren eztabaidan sortu zen kontraesana adierazi zuen: “(...) por una parte dices “no debería quitarse la voz a ninguna mujer”, pero por otra piensas “si tu voz la vas a usar para excluir a otras mujeres, no tiene sentido que la uses”, es

complicado”. Hau da, emakume orok ahotsa izan beharko zutela, adierazpen-askatasun eskubidea errespetatuz, baina aldarrikatzen zuen mezua beste emakume batzuk baztertzeko erabiltzen bazuen zentzua galtzen zuela, kontraesana sortzen zela.

Hala ere, kontuan hartu behar da adierazpen-askatasun eskubidearen muga beste banakoen askatasunarekin egiten dugula topo.

## 2. Neskak inklusibotasun osoa lortzeko zailtasuna ikusi zuen:

“(…) Una finalidad muy difícil, porque al final choques va a haber siempre, porque no todas las personas percibimos las cosas de la misma manera, pero no sé, poniendo el foco en la lucha real del feminismo y sabiendo cuáles son las principales funciones, que es combatir el machismo y llegar a un estado de igualdad”.

Zioenez, pertsona bakoitzak desberdin pertsibitzen zuenez errealitatea, inklusibotasuna lortzea zaila zen. Beraz, oztopo nagusia aniztasuna zen, ideia eta pertsona arteko aniztasuna. Baina oztopo edo zailtasun horren aurrean proposautakoa zen kontuan hartzea feminismoaren funtsa, zela matxismoari aurre egitea eta berdintasuna lortzea.

1. Neskak eta 3. Neskaren proposamena izan zen lehen aipatutakoa, feministen trans baztertzailen mugimenduak bultzatutako diskriminazioari hainbesteko garrantzia ez ematea.

Bukatzeko, neskei nahi zutena gehitzeko aukera eman zitzaien, lehen aipatutakotik kanpoko beharren bat edo nahiren bat baldin bazuten.

2. eta 3. Neskak eskatu zuten ikerketa eta ikasketa gehiago egitea, informazioa eskuratzeko iturri gehiago izateko, trans kolektiboaren inguruan.

Jasotako erantzunetan trans kolektiboaren beharrak asetzen lagundu dezaketeen proposamen posible desberdinak agertzen dira.

Nahiz eta trans identitateak ez diren gaurko kontua, oraindik ezjakintasuna dago gizartean. Hortaz, elkarriketatuek ikusgarritasuna eskuratzeko neurriak eskatu zituzten

eta informazioa zabaltzea hezkuntzaren bitartez, ikerketak egitea gaiaren inguruan eta zabaltzea komunitatera.

Feminismo inklusibo baten alde egin behar da, eta diskriminazioa egikaritzen eta bazterketa bultzatzen duten mugimenduen geldiaraztea.

Terf mugimenduekin informazioa partekatzea, eskuragarria izan dezaten, beren ikuspegia zabal dezaten eta beldurrik izan ez dezaten.

## EZTABAIDA

Trans emakumeen errealitatea eta gaur eguneko gaiak aztertu nahi izan ditut egindako lan honekin, fokoa nagusiak arlo soziala, juridikoa eta feminismoa izanik baita ere komunikazio medioetan trans lege berriaren inguruan eman den eztabaida eta polemika jarraitzen saiatu naiz. Horretarako gainera informazio garrantzitsua eskuratzea ahalbidetu zezaketen galderak prestatu ditut emakume trans batzuen ahotsak entzun eta ikuspegiak ezagutzeko. Behin erantzunak jasota, aztertutako hainbat gaien atzean ikuspegi kontrajarrien eragina dagoela nabaritu dut eta beraz, gai delikatuak direnez era dilematikoan (Billig et al., 1988) bizi dituztela iruditzen zait.

Trantsizioaren inguruko kontzeptuei dagokienez, “transexualitatea” eta “transgeneroa”, kontzeptu biak indibidualki ukatzen dituzte elkarrizketatuek genero trantsizioa egin beharra kolokan jartzen denean. Batzuk zioten ez zutela generoa aldatu, baizik eta perspektiba, beste batzuek esan zuten jaiotzerakoan esleitu zitzaizkien gorputzarekin ez zirela eroso sentitzen, generoa eta sexuaren arteko diskordantzia eman daiteke, baina ez da beharrezkoa. Diskurtso bien funtsean generoa aldatzen ez delako argumentua dago, bertan sartzen da zalantza. Generoa sexuaren arabera baldin bada objektiboki, generoa aldatzeko beharrezkoa ote da aldaketa fisikoa egitea, bakarrik genitalekin nahikoa litzateke edo beste ezaugarri sexuatuak ere operatu beharko lirateke? Hala balitz, bakarrik emakumetzat joko lirateke emakume transexualak. Egoera horren aurrean genero autodeterminazioa hobetsi da, Trans Lege berriari islatzen dena, jadanik hormonon tratamendua beharrezko neurri ez izatearekin batera, beraz gorputzarekin eroso sentitzen diren pertsonak esleitutako generotik at senti daitezkeela ulertzen da.

Horrekin erlazionaturik, beste zalantza bat sortzen da transexualitateaz hausnartzerakoan, hau da, zein da pertsona trans batek interbentzio kirurgikoak egiteko (genitalak eta ezaugarri sexuatuak aldatzeko asmoz) oinarritzko arrazoiak, gizartean onarpena lortzea emakume edo gizon bezala, ala nahikoa da beste generokoa bezala onartzea norbere burua, jadanik jaiotako sexua mantenduaz? Elkarrizketetan nabari da nola parte hartzaileei ez zaien beharrezkoa iruditzen hormonon tratamendua ezta interbentzio kirurgikorik beste genero batean kokatzeko. Jasotako erantzunen arabera,

badirudi pertsona trans guztiek ez dutela bere burua beste ezaugarri fisikoetan islatuta ikusten, baina bidea izan daitekeela gizartearen gehiengo cis horrekiko berdintzea errazteko urrats bat eta aldiberean norbere buruarekin erosoago egoteko pauso bat.

Beste alde batetik, trantsiozioko faktoreei buruz galdetu zitzairen trans pertsonak dituzten erronkak eta ezarrita dauden oztopoak identifikatzeko. Elkarrizketatu guztiek beraien ingurugiroan gizarte transfobikoa zegoela sumatu zuten, nolabait arrisku sententzia eman ziena. Egoera horren aurrean, norberaren identitatea agertzeak arriskuan jartzea suposatzen dezake. Interes gatazka bat sortzen da, gizabanakoaren bizitzaren eta segurtasun propioaren artean, hau da, armairutik ateratzea benetan pena merezi du? Orduan planteatu beharko litzateke zerk duen pisu gehiago, norbanakoaren segurtasun pertsonalak, identitate propioa erakutsi gabe eta frustraturik, ala arriskuan jartzea armairutik irteterakoan, gizarte transfobiko baten aurrean trans gizabanakoak bere burua ikusgai jarri. Elkarrizketatu guztiek arriskatzea hautatu zuten, arriskua bazegoela onartuz, baina aldi berean transfobia pertzibituta ere hobekuntza bat nabaritu zuten azken hamarkadan, askatasunez jarduteko.

Transfobia arloko galderak trans nesken pertzepzioa lortzeko egituratu ziren eta gainera, transfobia adierazteko era desberdinak osatzeko. Argi dago transfobia badagoela, eta trans Legearen argitalpenarekin aurkako diskurtsoak ikusgarritasuna hartu duela, batez ere komunikabideetan. Baina zalantza sortzen da hartu beharreko jarreraren inguruan. Hau da, transfobiaren aurrean bi ikuskera desberdinak daude: alde batetik, gizartean finkatuta dagoen arazo delako oraindik eta beste alde batetik, aldatzen ari den fenomeno sozial delako, aurrerapenak lortu direlarik. Lehen aipatu bezala, trans pertsonen egoera eta estatus juridikoa aldatu da historian, frankismoan izate hutsarekin zigortuta izaten ziren eta gaur egun norberaren genero ez cisa adieraztearen aldeko legea argitaratu da nazio-mailan, jadanik lege autonomikoak argitaratuta bazeudelarik. Noski, horrek ez du esan nahi arazoarekin bukatu denik, oraindik kaleetan erasoak ikusten dira eta kongresuan bertan ere argumentu transfobikoak aurkezten dira, aldaketa ahulak ematen ari dira. Elkarrizketatuek emandako erantzunetan erakunde publikoen partetik transfobia pertzibitu da, jarrera eta protokolo patologizanteak izanda oraindik osasun sisteman, psikiatriaz josita, oraindik ere aldatu ez dena eta jadanik zaharkituta geratu dena.



Bestalde, transfobiako galderak elkarrizketatuei zuzenduta zeuden, bizipen propioak adierazteko edota gertuko kasuak. Emaitzetan ikusi da arlo pertsonalean, zein ezagunekin edikitzen diren hartu-emanetan, zuzeneko moduan pairatu izan zutela. Baina hortaz gain, familiaren testuinguruan ere transfobia pairatu dezaketela zeharkako moduan.

Trans Legearen inguruko galderak egituratu ziren trans elkarrizketatuen asebetetzea eta itxaropenak adierazteko. Erantzunetan aldaketa gutxi espero ziren, eta espektatiba gutxi zuten etorkizunarekiko. Beraz, zergatik onartu beharko litzateke legea, azalezko aldaketa besterik ez bada? Jasotako emaitzetan aldaketa handirik ekarriko ez duen neurritzat hartu da lege berria, baina aipatzekoa da lege hau baino lehen autonomia bakoitzak trans lege propioa argitaratzeko aukera zuela. Horrek esan nahi du trans legerik ez izatea ere bidezkoa zela. Autonomia gehienak trans lege autonomikoak sortzen joan dira, baina ez guztiak. Beraz Euskal Autonomia Erkidegoan erregulazioa jadanik egonda, ez da aldaketa nabarmenik ikusi, baina agian trans legerik ez zuen autonomia erkidego batean aldaketa positibo sakona eman daiteke hasierako egoerarekin (lege berria argitaratu baino lehenago) alderatuz. Adibidez, nahiz eta Gaztela eta Leonen ez duten ez LGTBI Legerik ezta Trans Legerik, beharbada bertako biztanleen artean aldaketa positibo sakonagoa suposa dezake lege berriak aurrerantzean, oraingoz goiz da jakiteko benetan hala izan den. Beraz, ikusi beharko litzateke beste erkidego batean, egoera juridiko berdinean ez dagoena, nola eraman den gaia, baina oraindik denbora gutxiegi pasa da aztertzeke lege berriak izandako inpaktua eta ez dago horren inguruko daturik.

Elkarrizketatuek ez zuten itxaropen handirik Trans Legearen inguruan, ez zuten aldaketa handirik espero, nahiz eta nagusiki prozesuaren arintzea eta patologizazioaren ezabaketa abantaila modura aipatu zituzten.

Hala ere esan daiteke lege berriak arlo juridikoaz aparte, sinbolikoki eta sozialki dagoeneko aldaketa kualitatibo bat suposatu duela, bertan onartzen baita genero autodeterminazioa, patologiarik uko eginez. Horrek esan nahi du gobernuan bertan onartu direla trans identitateak, legean ezarri direla eta herritarrek errespetatu beharko dituztela. Beraz, autodeterminaziorako aurrera pausoa ere bada, ez bakarrik juridikoki.

Feminismoari dagokionez, galderen asmoa zen feminismoa eta transfobiaren arteko lotura aztertzea. Prentsa zein elkarrizketei erreparatuz, *terf* mugimendua eta transfobiaren arteko lotura badagoela hautematen da, hainbat argumentu badutela amankomunean beste kolektibo transfobikoekin eta trans kolektiboaren aurka egiten dutenez zehazki, izena hortik datorrela ikustia, nolabaiteko lotura baduela argi dago, zein motatakoa den zehazteko litekeena da gehiago aztertzea, denbora luzeagoan eta sakonago.

Feminismo barneko problematikari dagokionez, egoera hobetzeko jarraitu beharreko bideari buruzko ikuspegi desberdinak daude. Aurre egin behar zaion arerio nagusiarri buruz ikuspegi bateratua ez dago eta. Adar edo sektore batek trans kolektiboa baztertzen du bertatik eta elkarrizketatuei galdetu zitzairen zein erantzun edo konponketa ziren posible feminismo inklusibo bat lortzeko. Emaitzetan aniztasuna agertu zen. Orokorrean *terf* mugimendua abolitzea nagusitu zen, baina helburu oso zaila zela ere onartu zen, bizi garen gizarte multikulturaleko aniztasuna dela-eta, ezin zaio inori bere iritzia askatasuna kendu, baina agian egoera alda daitekeela, mugimendu horretako kideek benetan ezagutuko balute kolektiboa. Beraz eztabaida sortzen da, konponbidearen inguruan, bidezkoa izan ote daitekeen *terf* mugimendua eta beste trans baztertzaille batzuk abolitu edo transfeminismora erakarri behar ote diren feminismo inklusiboa lortu nahian, edo gizarte osoaren kontua izan behar ote den, heziketa bat zabaldu behar ote den.

Feminista erradikal trans baztertzailleak trans emakumeak diskriminatzen dutela argi egon arren, ez dira bakarrak, bestelako kolektibo transfobikoak ere badira, agian beste ideologia batzuetan oinarritzen direnak trans kolektiboaren aurka egiteko. Beraz esan daiteke arazoa ez dela bakarrik kolektibo edota mugimendu zehatz batzuetara mugatzen, badago jende gehiago ados ez dagoena, edo deseroso sentitzen diren pertsonak trans kolektiboarekin, baina ez dute zuzenki adierazten edo ez dute erasorik gauzatzen. Arazoa ez da bakarrik hortara mugatzen, ados ez egotetik diskriminazioa edo edozein motatako erasoak egikaritzera aldea badago, arazoa da eskubideen urraketa edo arriskatzzea ematen dela. Beraz arazo kolektiboa dela ondorioztatu daiteke, agian heziketa kontua.

Elkarrizketetako emaitzak ikusita, feminismo barneko gatazkaren oinarrietako bat biologian zein gizartean finkaturik dagoen binariorotasuna da. Hau da, sexu femenino edo maskulinoa izanda, emakume edo gizona izan beharra, besterik ez, sexuaren arabera generoa esleituko da, mundua ikusteko era baldintzatzen duena. Ideia hau oso mugatua da, eta ikuspegi honek trans kolektiboa kanpo uzten du. Guzti hau kontuan izanda, zalantza sortzen da, zein ote den benetako konponbidea, binariorotasunarekin amaitzea, edo gizartea heztea binariorotasunaren logikan, baina genero autodeterminazioa mantenduz? Logika honek kanpo uzten ditu ere pertsona intersexualak, ez direnak bietako batean ere sartzen anatomikoki. Alor sozialean, genero eta sexu binario arteko loturak beste kolektibo gehiago baztertzeko dituzte, egungo gizartean jadanik existitzen direnak, adibidez, pertsona ez binarioak, besteak beste. Binariorotasuna zorrotz aplikatzearen ondorioz, bai sozialki, bai biologikoki, gizartean dagoen aniztasuna ez da guztiz errespetatuko eta marko horretan sartzen ez diren kolektiboak estigmatizatzeko probabilitate altua dago. Beraz, arazoa konpontzeko irtenbide biak erabil daitezke. Heziketan, informazioa eman daiteke, irakatsi ez daudela bakarrik sexu maskulinoa eta femeninoa, eta generoak ez duela aldaezinezko patua suposatzen, ikusgarritasuna emanaz existitzen diren kolektibo desberdinei.

Heziketa eta informazioaren bidez, emakume trans batzuk uste dute binariorotasuna ezabatu daitekeela. Horrela, feminista erradikal trans baztertzailak zabaldutako trans kolektiboaren aurkako diskurtsoan eragin ahalko litzateke. Izan ere, *terf* kolektibokoek erabili ohi duten argumentu nagusia azken finean ideologia queer anti-binarioaren ondorioz identitate maskulinoa eta femeninoa arriskuan egongo liratekeela da eta. Binariorotasuna apurtzen ez bada ere, komenigarria liteke *terf* mugimenduko kideak informatzea, lehen aipatu den bezala, transfobiaren oinarrietako bat ezjakintasuna baita.

Binariorotasunak oztopo asko jartzen ditu, gizartean oso sustraitua dagoen kontzeptua denez, eta ezabatzea oso zaila liteke. Oro har, esan daiteke egiturazko arazoa dela, beraz, binariorotasuna ezabatzea ez da helburu errealista bat, baizik eta oraindik utopia gisa hautematen den helburu bat. Horrek esan nahiko luke etsipena ekarriko duela eta ezin izango dela lege trans honekin lortu dena baino gehiago eskatu? Binariorotasunak bertan jarraituko du, horrek ez du esan nahi ezinezkoa dela arazoa konpontzea, ezta etsi egin

behar denik. Gogoratzekoa da trans kolektiboa, zein bertako kide diren trans emakumeak eta diskriminatua den beste edozein kolektiboarekin eman daitezkeen arazo nagusia dela eskubideen urrapena. Giza eskubideak eta Oinarrizko eskubideak, horiek jokuan sartzen diren heinean, neurriak hartu beharko dira, modu progresiboan betiere, bidea erraztuz eta errespetua bermatuz. Lehen esan bezala, edonork desberdin pentsa dezake, baina ideologiak ez du justifikatzen beste pertsoonekiko egin daitezkeen erasoak edo bestelako eskubideen urrapena.

Trans kolektiboak historian izandako garapenean hobekuntzak egon arren, arazoa ez da bukatu, oraindik ere transfobia badago eta izaten jarraituko da, fenomeno soziala izanik eta iritzi aniztasuna kontuan hartuz, baina kontua da egunez egun eskubideen urraketa ematea saihestu behar dela, hortaz, lege berriarekin aurrera pausoa izan arren, ez da konformismora jo behar, etengabeko prozesua izan behar da, arazo sozial bati aurre egiteko, neurriak hartuz interbentziorako eta prebentziorako. Honela ere aldaketak pixkanaka ikusiko dira.

## ONDORIOAK

Prentsan aipatu diren berrien eta eztabaideetan erabilitako trans kolektiboaren inguruko neurrien aurkako argumentuetan ikus daiteke kritika negatibo gehienak eskuineko alderdiengatik zetozela, hala nola VOX eta Alderdi Popularra (PP), gehien errepikatuz legearen etorrerak kalte itzuliezinak sortuko zituela, baina azaldu gabe zer nolako kalteak eman zitezkeen. Gainera, legea adingabeengan eragin negatiboak izango zituelako argudioak erabili zituzten, eta hirugarren eta azken argudio nagusia izan zen biologiaren aurkakoa zela, eta hortaz, oinarri zientifikorik gabeko legea zela.

Ezkerreko alderdien kritika negatibo gehienak legearen ziurtasun juridikoaren urritasunean oinarritzen ziren, edo izandako garapenaren inguruan nagusiki.

Elkarrizketei dagokienez, ateratako ondorioak hurrengoak izango lirateke:

- Trantsiziorako ezinbesteko oinarriak dira familia, lagunak eta bikote kidea, hala badagokio. Hurbileko testuinguru batean zein kanpoko testuinguruan, gizartea ere bai. Horiek mugatzen dute banakoak izango duen trantsizioa.
- Trantsizioaren mugetako nagusia trans kolektiboak duen estatus soziala da, eta estatus horren oinarri garrantzitsu bat komunikabideak dira, sare sozialekin batera. Izan ere, elkarrizketatu gehienek erreferentzia egin diete trantsizioko zailtasunen barruan.
- Komunikabideetan agertutako eztabaida eta berrien atzetik trans kolektiboaren inguruko polemikarekin batera, batez ere trans emakumeen irudi kriminalizatu bat zabaldu izan da, delitu sexualei lotuta, oinarri zientifikorik gabekoak.
- Kriminalizazio hori feminista trans baztertzailen talde batzuek bere diskurtsoaren barruan sartzan dutena da, transfobiarekin lotura dagoelarik.
- Arlo sozialean informazio falta dago trans identitateen eta egoera juridikoaren inguruan, eragina duena legearen argitalpenaren inguruko gezurrak eta zurrumurruen zabalkuntzan eta transfobiaren jatorrian, partzialki.
- Eskuineko alderdiek eta feminista erradikal trans baztertzailiek emandako argumentuen artean lotura dago.

- Feminismo inklusibo bat lortzea ez litzateke egingarria, jadanik trans kolektiboa bazterten duen mugimendua egoteaz gain, beste kolektibo batzuk bazterten dituzten talde feministak ere badirelako eta integratzea ia ezinezkoada, aniztasuna oinarria izanda.

Argitu beharra dago lanaren hasieran aurreikusita zegoela bakarrik trans emakumeen eztabaida feminismoaren barruan, baina lana egin ahala, egoera juridikoa eta soziala lantzeko beharra zegoen, honela ulertzeko trans ikuspuntua.

Batez ere polemika gehien sortu izan da trans emakumeen inguruan, jaiotzetiko generoa maskulinoa izanda, cis gizonekin erlazionatutako kontu polemikoak trans emakumeen arlora eztabaidagai bezala eraman direlako (adibidez, sexu-delituak edo komunen polemika).

Bildutako informazioaren aurrean, hainbat proposamen formulatu dira, etorkizunera begira hobekuntzak lortzeko asmoz:

- Haur eta gazteei informazioa eskaintzea, gizartean trans kolektiboa ikusgarriagoa izateko eta arrotza bezala tratatua ez izateko.
- Komunikabideetako informazioa kontrolatzea, eragin dezakeen kolektiboarengan kalterik ez sortzeko.
- Ikerketa gehiago egitea kolektibo honen eta LGTBI+ kolektiboaren inguruan, sektore publikoan erabili ahal izateko.
- Kongresuko kideek ere Espainiar lurraldeko populazioaren aniztasuna kontuan hartuta, formazio gehiago izatea hau bezalako kolektiboaren inguruan.
- Legea etorkizun batean aberasgarriagoa edota osatuagoa izateko erreformak gehitzea, aurrerapauso handia izan arren, modu orokorrean idatzita dago.
- Transfobiari aurre egiteko interbentzio programak egituratzea instituzio publikoetan.

## BIBLIOGRAFIA

### Iturri akademikoak

14/2012 LEGEA, ekainaren 28koa, transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa. *Euskal Agintaritzaren Aldizkaria*, 132, 2012ko uztailaren 6koa. [Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria - EHAA/BOPV \(euskadi.eus\)](http://euskadi.eus) 234/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa, transexualen dokumentazio administratiboari buruzkoa. *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 69, 2016ko urtarrilaren 11a. [234/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa, transexualen dokumentazio administratiboari buruzkoa. - Eusko Jaurlaritz - Euskadi.eus](http://euskadi.eus)

4/2023 LEGEA, otsailaren 28koa, trans pertsonen berdintasun erreal eta eraginkor egitekoa eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzekoa. Estatuko Aldizkari Ofiziala, 5366, 2023ko martxoaren 1a. <https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2023-5366>

7/2006 Instrukzioa, (2006ko martxoaren 9a). Espetxeetako Zuzendaritza Nagusia

Albornoz Pollmann, L., & Barcia Lehmann, R. (2022). *EL NEOFEMINISMO, O LOS NUEVOS FEMINISMOS*. Revista de Ciencias Sociales, 81, 177-214. <https://doi.org/10.22370/rcs.2022.81.3566>

American Psychiatric Association. (2022). *Guía de Consulta de los Criterios Diagnósticos del DSM-5- TR* ® (edición revisada de 978-84-9835-809-4). Editorial Médica Panamericana S.A.

Ana, M. A.-V. (2019). Un recorrido por la historia trans\*: desde el ámbito biomédico al movimiento activista-social, 57(57). <https://doi.org/10.1590/18094449201900570001>

Barriga, N. A. (2020). Una aproximación teórica a las olas del feminismo: la cuarta ola. *Femeris*, 5(2), 121. <https://doi.org/10.20318/femeris.2020.5387>

Beorlegui Zarranz, D. (2020). *Rememorando el devenir feminista. Memoria y subjetividad política de la segunda ola del feminismo en el País Vasco*. Arenal. Revista de historia de las mujeres, 27(1). <https://doi.org/10.30827/arenal.v27i1.11447>

Billig, M., Condor, S., Edwards, D., Gane, M., Middleton, D., & Radley, A. (1988). *Ideological dilemmas: A social psychology of everyday thinking*. Sage.

Blanco García, A. (2005). *Cuestiones de género: De la igualdad y la diferencia*. Revista Del Seminario Interdisciplinar de Estudios de Las Mujeres de La Universidad de León, 0, 1-8. <https://doi.org/10.18002/cg>

Calvo Poyato, C., Campo Moreno J.C., Montero Gil, I. (2021eko uztailaren 26). Lege Aurreproiektua. Transexualen berdintasun erreal eta eraginkorrerako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko Legearen aurreproiektua. <https://www.igualdad.gob.es/servicios/participacion/audienciapublica/Paginas/2021/apl-igualdad-efectiva-persona-trans-derechos-lgtbi.aspx>

Díaz-Bravo, L., Torruco-García, U., Martínez-Hernández, M., Varela-Ruiz, M. (2013). *La entrevista, recurso flexible y dinámico*. [https://scielo.org.mx/scielo.php?script=sci\\_arttext&pid=S2007-50572013000300009&lng=es&tlng=es](https://scielo.org.mx/scielo.php?script=sci_arttext&pid=S2007-50572013000300009&lng=es&tlng=es)

Fernández Chagoya, M. (2021). *¿Feminismo transexcluyente? Breves apuntes en torno al ``sexo´´: Un repaso necesario al feminismo materialista*. Zona Franca. 78-96 orr. 10.35305/zf.vi29.192.

Fernández Fraile, M. (2008). Historia de las mujeres en España: historia de una conquista. *La aljaba*, 12, 11-20 orr.

Folguera (2022). *El feminismo en España: dos siglos de historia*. EDITORIAL PABLO IGLESIAS, 204.orr.



Folguera (2022). *El feminismo en España: dos siglos de historia*. EDITORIAL PABLO IGLESIAS, 94.orr.

Gálvez Mozo, Ana, Tirado Serrano, Francisco. (2020). Dilemas ideológicos y vida cotidiana: Una mirada cualitativa sobre las mujeres que teletrabajan en España. *Psicoperspectivas*, 19(3), 17-28.

Guerra Palmero, M. J. (2016). *La mujer-filósofo o la más “antinatural” de las criaturas. En torno a Simone de Beauvoir y a su obra El segundo sexo*. *Revista Valenciana estudios de filosofía y letras*, 7, 131. <https://doi.org/10.15174/rv.v0i7.229>

Hernández-Melián, A. (2023). Análisis y clasificación de las políticas de empleo para personas trans en España: marco europeo y regulación autonómica. *OBETS. Revista de Ciencias Sociales*, 18(1), 115. <https://doi.org/10.14198/obets.22770>  
<https://dx.doi.org/10.5027/psicoperspectivas-vol19-issue3-fulltext-1993>

Jiménez Abad, A. (2021). *La mujer: ¿en busca de la identidad perdida?* CUADERNOS DE PENSAMIENTO, 34, 165-194. <https://doi.org/10.51743/cpe.209>

Márquez Padorno M. (2022). Las olas del feminismo, una periodización irreconciliable con la Historia. *Historia y Comunicación Social*, 27(2), 381-387. <https://doi.org/10.5209/hics.84385>

Miyares, A. (1999). 1848: El manifiesto de Seneca Falls. *Leviatán: Revista de hechos e ideas*, 75, 135-157 orr. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=55227>

Montoya Gómez, M. V. (2015). *Entrevista: “Historia de las mujeres”. A propósito de una conversación con Isabel Morant Deusa*. *Historia Crítica*, 56, 187-196. <https://doi.org/10.7440/historicrit56.2015.08>

Muñoz, S. G. (2020). Las mujeres como clase social: origen y desarrollo de una teoría. De los Colectivos Feministas al Partido Feminista de España (1975-1983). *Femeris*. <https://doi.org/10.20318/femeris.2020.5152>

Muñoz Encinar, L. (2021). *Desenterrando la represión de género: análisis de la violencia ejercida sobre las mujeres durante la Guerra Civil y la dictadura franquista en el suroeste de España*. Huarte de San Juan. *Geografía e Historia*, 28, 73-100. <https://doi.org/10.48035/rhsj-gh.28.4>

Navarro, P. (2019). *Transfeminismo y activismos queer: emergencia y cohabitación en las fronteras de la coalición*. *Recerca: Revista de Pensament i Anàlisi*, 24(2), 151-172. <https://doi.org/10.6035/recerca.2019.24.2.8>

Organización Mundial de la Salud. (2019). *CIE-11 Clasificación Internacional de Enfermedades para Estadísticas de Mortalidad y Morbilidad*. [https://icd.who.int/es/docs/Guia%20de%20Referencia%20\(version%2014%20nov%202019\).pdf](https://icd.who.int/es/docs/Guia%20de%20Referencia%20(version%2014%20nov%202019).pdf)

Peña-Fernández, S., Larrondo-Ureta, A., & Morales-i-Gras, J. (2023). *Feminismo, identidad de género y polarización en TikTok y Twitter*. *Revista Comunicar*. <https://www.revistacomunicar.com/index.php?contenido=detalles&numero=75&articulo=75-2023-04>

Rodríguez, I. (2018). El sufragio femenino en la II República. *Revista de derecho UNED*, 145-148 orr. <https://doi.org/10.5944/rduned.22.2018.22282>

Rodríguez Ponce, M. (2022). *TERF: ¿Insulto o meme?: El sesgo ideológico en el análisis crítico del discurso*. *Verba Hispanica*. 30. 173-193 orr. 10.4312/vh.30.1.173-193

S, S. (2017, 16 marzo). *Hazte Oír recupera su eslogan «Los niños tienen pene, Las niñas tienen vulva» en su autobús transfóbico*. *La Razón*.

<https://www.larazon.es/sociedad/hazte-oir-recupera-su-eslogan-los-ninos-tienen-pene-las-ninas-tienen-vulva-en-su-autobus-transfobico-IA14725094/>

Sierra González, Á. (2008). *Una aproximación a la teoría QUEER: El debate sobre la libertad y la ciudadanía*. Cuadernos del Ateneo, 26, 29-42.  
<https://dialnet.unirioja.es/descarga/articulo/3106547.pdf>

Zerbino, L. P. (2023). Perspectiva de género e informes criminológicos: Una mirada obligatoria y necesaria. *ESTUDIOS SOCIALES SOBRE DERECHO Y PENA. Revista del Instituto de Criminología*, (1).  
<https://revistasacademicas.unsam.edu.ar/index.php/ric/article/view/1335>

### Bestelako iturriak

Álvarez, P.. (2021, 6 febrero). *La 'ley trans' desde ángulos opuestos*. El País.  
[https://elpais.com/sociedad/2021-02-06/la-ley-trans-desde-angulos-opuestos.html?event\\_log=go](https://elpais.com/sociedad/2021-02-06/la-ley-trans-desde-angulos-opuestos.html?event_log=go)

Amoedo, A. (2021). *La televisión y las redes sociales consolidan su dominio entre fuertes caídas de los medios impresos y de la radio | Digital News Report España 2022 (DNR): informe de noticias digitales en español*. <https://www.digitalnewsreport.es/2021/la-television-y-las-redes-sociales-consolidan-su-dominio-entre-fuertes-caidas-de-los-medios-impresos-y-de-la-radio/>

BBC News Mundo. (2017, 16 enero). «*Hay niñas con pene y niños con vulva*»: la polémica campaña sobre los niños transexuales en España. BBC News Mundo.  
<https://www.bbc.com/mundo/noticias-38637999>

BBC News Mundo. (2017b, marzo 1). “*Los niños tienen pene. Las niñas tienen vulva*”: el autobús en contra de la transexualidad infantil que causa polémica en España. BBC News Mundo. <https://www.bbc.com/mundo/noticias-39133448>

Bonastre, P. (2023, 25 abril). *El Govern impone una multa de 20.000 euros a Hazte Oír por el bus contra las personas trans*. La Vanguardia. <https://www.lavanguardia.com/politica/20230425/8921037/govern-impone-multa-20-000-euros-hazte-oir-bus-personas-trans.html>

Cambridge Dictionary. (2023). *traducir queer: homosexual, raro, gay, homosexual, marica [masculine-feminine, singular], maricón*. l. <https://dictionary.cambridge.org/es/diccionario/ingles-espanol/queer>

Carvajal, L., Coll, V., Carvajal, L., & Coll, V. (2023, 16 febrero). *Irene Montero logra aprobar la Ley Trans en el Congreso y el PP avisa de "un nuevo 'sí es sí'*. ELMUNDO. <https://www.elmundo.es/espana/2023/02/16/63ee1dabe4d4d872438b45a9.html>

Chiappe, D. (2023, 18 febrero). *Incertidumbre en las prisiones ante la entrada en vigor de la ley trans: ¿Dónde debe ingresar un hombre que se declara mujer? ¿En una cárcel masculina o femenina?* La Voz de Galicia. <https://www.lavozdeg Galicia.es/noticia/sociedad/2023/02/17/incertidumbre-prisiones-ante-entrada-vigor-ley-trans-donde-debe-ingresar-hombre-declara-mujer-carcel-masculina-femenina/00031676657184446465503.htm>

Confluencia Movimiento Feminista. (2021, uztailaren 26a). Manifiesto #26J -. <https://movimientofeminista.org/manifiesto-26j/>

Confluencia Movimiento Feminista. (2023, otsailaren 5a). Confluencia Movimiento Feminista -. <https://movimientofeminista.org/>

Cope. (2023, otsailaren 24a). *Baño de masas de Montero en un acto de Igualdad: «La ley trans es feminista»*. COPE. [https://www.cope.es/actualidad/sociedad/noticias/bano-masas-montero-acto-igualdad-ley-trans-feminista-20230224\\_2571789](https://www.cope.es/actualidad/sociedad/noticias/bano-masas-montero-acto-igualdad-ley-trans-feminista-20230224_2571789)

El Mundo (2023, 7 marzo). *La izquierda acusa a Ayuso de "burlarse" de las personas trans*. ELMUNDO.

<https://www.elmundo.es/madrid/2023/03/07/640775d6fc6c83001f8b4572.html>

El País, (2023, 9 febrero). *Así ha trascendido el debate de la 'ley trans' en el Senado, aprobada y que ahora volverá al Congreso*. El País. <https://elpais.com/espana/2023-02-08/sesion-de-control-al-gobierno-en-el-congreso-en-directo-sanchez-responde-por-la-ley-del-si-e-si.html>

Ep, A. /. (2023, 14 abril). *Ayuso reitera que reformará la Ley Trans regional: «La autodeterminación de género no tiene ningún sentido»*. ABC. <https://www.abc.es/espana/madrid/ayuso-reitera-reformara-ley-trans-regional-autodeterminacion-20230327111204-nt.html>

Federación Estatal de Lesbianas, Gais, Trans, Bisexuales, Intersexuales y más. (2020, ekainaren 16a). *Fundación Triángulo y FELGTB lanzan un manifiesto en favor de la autodeterminación de las personas trans - FELGTBI+*. FELGTBI+. <https://felgtbi.org/blog/2020/06/16/fundacion-triangulo-felgtb-lanzan-un-manifiesto-en-favor-de-la-autodeterminacion-de-las-personas-trans/>

Hernández, P. (2018, abuztuaren 31a). *La transexual que desafió el US Open*. La Vanguardia. <https://www.lavanguardia.com/deportes/tenis/20180831/451538382045/us-open-renee-richards-transexual-richard-raskind.html>

Observatorio Andaluz contra la Homofobia, Bifobia y Transfobia. (2021, otsailaren 18a). *Informe anual sobre delitos de odio en España 2019*. <https://observatorioandaluzlgbt.org/informe-anual-sobre-delitos-de-odio-en-espana-2019/>

*Presentación - Fundación Triángulo*. (2019, azaroaren 17a). Fundación Triángulo. <https://fundaciontriangulo.org/presentacion/>

*QUIÉNES SOMOS - FELGTBI+*. (2023, otsailaren 9a). FELGTBI+. <https://felgtbi.org/quienes-somos/>

Requeijo, A. (2023, 24 marzo). *Igualdad cierra la puerta al opositor a policía que se define mujer: "No es válido"* elconfidencial.com. [https://www.elconfidencial.com/espana/2023-03-24/igualdad-cierra-puerta-opositor-policia-define-mujer-no-es-valido\\_3599243/](https://www.elconfidencial.com/espana/2023-03-24/igualdad-cierra-puerta-opositor-policia-define-mujer-no-es-valido_3599243/)

Santos-Olmo, A. (2023, 6 marzo). *Ayuso desprecia la ley trans: «A través de la autodeterminación de género puedo tener a Enriqueta López y a Enriqueta Ossorio»*. elDiario.es. [https://www.eldiario.es/politica/ultima-hora-actualidad-politica-directo\\_6\\_10006922\\_1097932.html](https://www.eldiario.es/politica/ultima-hora-actualidad-politica-directo_6_10006922_1097932.html)

## ERANSKINAK

### 1. Jarraitutako gidoia euskaraz

#### TRANTSIZIO ARLOA

Zer da transgeneroa izatea zuretzat? Eta transexualitatea?

Zeintzuk izan dira zure trantsizioa erraztu eta oztopatu duten faktoreak? Zergatik?

Zergatik uste duzu ingurugiroak lagungarri izan zaizula edo ez zaizula lagungarri izan?

Nola uste duzu aldatu direla zure harremateko moduak (famiariarekin, lagunekin..)?

#### FEMINISMOA

Feminismoaren jarraitzaile kontsideratzen zara?

Zer entzun duzu transfeminismoaren inguruan?

Feminismoaren barruan bada adar bat, erradikala dena eta trans kolektiboa baztertzen duena (terf), zer entzun dezu horren inguruan?

Zer esperientzia izan dezu erf-ekin? Entzun dezuanaren arabera, zer deritzozu horren inguruan?

Zeintzuk uste duzu direla trans kolektiboaren aurka erabiltzen dituzten argumentuak?

Kolektibo hau beste kolektibo batzuek bezain transfobikoa dela esango zenuke? Zergatik?

#### TRANSFOBIA

Nola definituko zenuke transfobia?

Nola pertzibitu duzu transfobia? Zergatik uste duzu baztertua izan zarela?

Ez baduzu esperientziarik izan, zure inguruak nola sentitu dute transfobia pairatu duten pertsona ezagunek?

Zein formatan uste duzu/ikusi duzu ematen dela transfobia?

#### TRANS LEGEA

Badakizu zer den Trans Legea? Zer entzun duzu horren inguruan?

Zer uste duzu aldatuko dela legearekin?

## PROPOSAMENAK

Zer gustatuko litzaizuke aldatzea arlo sozialean trans mugimenduarekiko?

Eta feminismoarekiko?

Nola lor daiteke feminismo inklusibo bat?

Zer gehiago gehitu nahiko zenuke?

## 2. Jarraitutako gidoia (gaztelaniaz)

### TRANSICIÓN

¿Qué es ser transgenero para ti? ¿Y transexualidad?

¿Cuáles son los factores que han facilitado y dificultado tu transición? ¿Por qué?

¿Por qué dirías que tu entorno ha facilitado/dificultado tu transición?

¿Cómo dirías que ha cambiado tu manera de comunicarte o relacionarte con la gente? (familia, amigos...)

### FEMINISMO

¿Qué es el feminismo para ti? ¿Te consideras parte del movimiento?

¿Qué has oído sobre el transfeminismo?

Hay una rama del feminismo, que es radical y excluye a las mujeres trans de éste (terf), ¿qué has oído hablar sobre ello?

¿Qué experiencias has tenido con las terf? ¿Cuáles son sus argumentos contra las mujeres trans ?

¿Dirías que este colectivo es tan transfóbico como otros?

### TRANSFOBIA

¿Cómo definirías la transfobia?

¿Cómo has percibido la transfobia? ¿Por qué crees que has sido excluida?



Si no has tenido experiencias, ¿cómo se han podido sentir personas conocidas tuyas que hayan pasado por transfobia?

¿En qué forma crees que se da la transfobia?

#### LEY TRANS

Este año se ha publicado la Ley Trans nacional, ¿qué has oído hablar sobre ella?

¿Qué crees que va a cambiar con la ley?

#### PROPUESTAS

¿Qué te gustaría que cambie en el ámbito social hacia el movimiento trans?

¿Y en el ámbito feminista que cambios te gustaría ver?

¿Cómo podríamos conseguir un feminismo inclusivo?

¿Qué más te gustaría añadir? (si es que quieres añadir algo)

## TXOSTEN EXEKUTIBOA

Gaur egungo gizartea anitza da, erlijio, arraza, etnia, orientazio sexual eta bestelako ezaugarri desberdineko norbanako zein taldeak elkarrekin bizi behar dutelarik. Aniztasun horren ondorioz, elkarbizitza zaildu daiteke, talde arteko desberdintasunak direla medio. Sor daitezkeen gatazken ondorioz, erantzun eta konponbideak bilatu behar dira bizikidetzak baketsu bat bermatu ahal izateko, ardura botere publiko zein legegilearena izanik.

### Marko teorikoa

Azken hamarkadan talde edo kolektibo batek atentziora deitu du, cis kultura hegemonikoa kolokan jarri izan duena: trans kolektiboa. Talde hau ez da berria, baina azken aldiaren egondako eraso transfobikoengatik, Kongresuan izandako eztabaidengatik eta trans kolektiboarentzako atala duen LGTBI+ Lege proiektua (Trans Legea) argitaratzearen etorrerarekin orden soziala hankaz gora jarri da.

Nagusiki, Trans Legeak berriz ere trans identitateen inguruko eztabaida mahai gainean jarri du, legearen aurka argumentu transfobikoak eman direlarik ez solik politikarien partetik, baita ere eta mugimendu feministaren sektore trans baztertzaileren partetik eta beste kolektibo eta norbanako transfoboen partetik gogor aritu dira Trans Legearen aurka. Egoera ikusita mugimendu transfeminista eta trans kideek osatutako taldeek zaurgarritasunean dihardutela esan daiteke. Honako gatazka hau aztertzea du helburu lanak.

Hasiera batean lana feminismo erradikal trans baztertzailera eta trans emakume eta talde transfeministen inguruan planteatuta zegoen. Dena den, lana garatu ahala konturatu naiz beharrezkoa dela ere aztertzea transfobia gizartean modu orokor batean eta kongresuan egondako eztabaida, honela sakonago aztertzeke trans emakumeek bizi duten gaur egungo egoera.

Lanak zati teorikoa zein enpirikoan oinarriturik dago, gaia konplexua izanik, testuinguru teoriko anitza behar izan da, batez ere feminismoaren inguruan.

Arlo juridikoari dagokionez, Trans Legea argitaratu aurretik trans pertsonen egoera kudeatzeko indarrean egon den legedia eta garapen juridikoa aztertu da, ondoren lege berriaren trans kolektiboaren inguruko atala eta azkenik, Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen kolektiboaren kudeaketaren inguruko legedia.

Arlo sozialari dagokionez, Kongresuan alderdi politiko desberdinek proiektua aurrera eramateko egondako eztabaidei erreparatu zaie, legearen aurreko erreakzioak eta inguruko argumentuak agertuz.

Feminismoaren barnean ere izan den gatazka azaldu da, non bi ikuspuntu aurkitzen diren. Alde batetik, feminismo erradikal trans baztertzailea (*trans exclusionary radical feminism, terf*) eta bestetik trans feminismoa, trans emakumeen presentzia onartzen duen mugimendua.

Izan ere, trans emakumeak eskubideak eskuratzeko borrokan murgildu dira gaur egun arte, oraindik ere berdintasunerako bidean daidelarik. feminismoaren sektore batek trans emakumeen etorrera oztopo edo arrisku bezala ikusten du, jadanik lortutako eskubideak arriskuan jarriko balituzte bezala.

Argumentu nagusia biologian datza, non pertsona bakoitzari sexu jakin bat dagokion, maskulinoa edo femenino izanik. Sexuaren arabera mundua ikusteko era desberdina izango luke norbanakoak, eta ikuspuntu horrek generoa barnebilduko luke. Generoa eraikin soziala da, gizartean finkatutako balore eta sinesmenek osatutakoa, historian genero femeninoa, edo emakumea, izateak opresioa suposatu izan du. Beraz, hori da oinarri biologikoa: sexua ezin dela aldatu jatorrizkoa delako.

Bestalde, oinarri biologikotik abiatuz, arlo soziala dago. Feminismoa generoak biltzen dituen estereotipo eta matxismoari aurre egiten saiatu da. Feminista trans baztertzaileek ez dituzte onartzen jadanik sexu maskulinoarekin jaio diren pertsonak, jatorriz genero maskulinoa delako susmatzen da bizitza ikusteko beste era bat izan duela, eta hori ezin dela emakumea izan.

Trans identitateak ez dira ezer berria, transgenero terminoa erabili aurretik ere existitzen ziren. Baina itxura ikusezinak izan dira 1960ko hamarkada arte, trans kolektiboak ikusgarritasuna bereganatu zuelarik. Gizartearen ordena eta arau estandarrak apurtzen zituen kolektiboa izanik, binariotasunaren arauak zehazki, arbuio asko jaso izan dituzte gaur egun arte, oraindik eraso transfobikoak ikusten direlarik kaleetan.

Lanaren asmoa izan da jakitea nola iritsi garen gaur egungo gatazkara, eta aurten izandako aldaketek duten eragina trans gazte emakumeengan.

## Metodologia

Trans erronka aztertzeke erabilitako metodologian prentsa online eta elkarrizketa erdiegituratuak erabili dira. Gaurkotasunean ari garenez, trans emakume gazteen profila aukeratzen erabaki dut elkarrizketak egin hala izateko, kasurako, hemezortzi eta hogeita hiru urte bitartekoak izan dira, guztiak Euskal Herrikoak jatorriz.

Kongresuan izandako eztabaida eta mitinei dagokienez, eskuineko alderdiek aurkako jarrera erakusten dute lege berriarekiko, argumentu transfobikoetan oinarrituz, trans identitateak ukatuz eta kriminalizatuz. Hortaz gain, kolektiboari zuzenduta dagoen lege baten argitalpena ondorio kaltegarriak ekarriko dituen aldaketatzat ikusten da, baina ez da zehazten zer nolako ondorioak izango dituen ezta zergatik izango den hondamendia. Ezkerreko alderdietan trans kolektiboaren aldeko jarrerarako joera handiagoa dago.

Elkarrizketetarako erabilitako gidoiak bost arlo jorratzen ditu: trantsizioa, feminismoa, transfobia, Trans lege berria eta proposamenak eta etorkizunerako ikuspegia.

Horiekin lortu nahi izan dudana informazioa zera da, trans pertsonen trantsizioa osatzen zuten faktore positibo eta negatiboak, zein erakunde sozialek hartzen duten parte eta jokatzeko duten papera, trans emakume elkarrizketatuek feminismoarekin izandako harremana eta euren ikuspegia feminismoarekiko, trans legearekiko asebetetze-maila,

legearen aurrean izandako itxaropena eta gabeziak, elkarrizketatuen beharrak eta hobetzeko proposamenak.

### Emaitzak

- Komunikabideetan agertutako albiste eta eztabaidek areagotzen dute elkarrizketatuen beldurra eta konfiantza eza.
- Elkarrizketatu gehienek transfobiazko esperientziaren bat pairatu dute. Esperientzia hauek egunerokotasuneko detaielak izan dira batez ere, ezjakintasunean oinarrituak
- Bestalde, feminismo arloan, feminista trans baztertzailerekin izandako esperientziak negatiboak izan dira, haiek jarrera erasokorrak erakutsi dituztelarik.
- Hezkuntza falta da argumentu transfobikoetan nagusitzen den gabezia.
- Trans Legeak ez ditu trans emakumeen beharrak guztiz asetzen, oraindik ez litzateke gatazka bukatutzat eman beharko.
- Kongresuan bertan ere argumentu transfobikoak erabili dira eta gazteek hortaz konturatzen dira, honek eragina du beraiengan.
- Elkarrizketatuek ez dute adiskidetasuna bilatzen gizartearekiko, errespetua baizik.

### Ondorioak

Komunikabideek hedatutako berrien eta eztabaideetan kontrol bat ezarri behar da, igortzeko erari dagokionez.

LGTBI+ kolektiboaren inguruko informazioa eta hezkuntza indartu behar da, batez ere gizartean ikusgarritasun gutxien duten kolektiboen inguruan, hori baita arazoaren oinarri nagusietako bat, estigma, arbuio eta komentario desatseginen funtsa izanik.

Feminismo inklusibo bat lortzea helburu zailegia da, oso adarkatuta dagoelako urteen ondorioz eta ideologia bateratu bat lortzea ez da egingarria, puntu komunak egon arren, baina horrek ez du uzten gorroto diskurtsoentzako edo kanpainentzako lekurik.

Feminista trans baztertzialeek emandako trans kolektiboaren aurkako argumentuen artean, badaude hainbat, alderdi eskuindarrek eta bestelako talde kontserbadoreek emandako argumentuekin bat datozenak.

Trans Legea argitaratu arren, ez litzateke bukaera izan beharko, oraindik ere beharrak ase gabe geratzen dira, eta orain arte jarraitutako bideari eutsi behar zaio, eskubideak bermatzeko neurriak hartuz.